


INFORME

45

GENERO-ARRAKALA EUSKAL

AUTONOMIA ERKIDEGOKO

PENTSIOETAN



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**GENERO-ARRAKALA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOKO
PENTSIOETAN**

Txostenaren hartzaila:

Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea
2020ko otsaila

IZENBURUA:	La brecha de género en las pensiones en la Comunidad Autónoma Vasca
EDITOREA:	EMAKUNDE - Instituto Vasco de la Mujer. Manuel Iradier, 36. 01005 Vitoria-Gasteiz
TALDE TEKNIKOA:	Olga Fotinopoulou Basurko (UPV/EHU), Alberto Riesco-Sanz (UCM), Elixabete Errandonea Ulazia (UPV/EHU) eta Edurne López Rubia (UPV/EHU)
MAKETATZAILEA:	EPS Comunicación
DATA:	2020ko Uztaila
DESKRIBATZAILEAK:	Pentsioak, Gizarte Segurantza, Sexu-Diskriminazioa, Genero-Desberdintasunak, Datu Estatistikoak

TXOSTENAREN EDUKIA

SARRERA	11
HITZAURREA Pentsioetan dagoen genero-arrakala, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun-faktore gisa	15
1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN-MERKATUAN PARTE HARTZEKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK	21
1.1. Jarduera eta lanbidea	23
1.2. Lanaren eta enpleguaren banaketa horizontala eta bertikala Euskal Autonomia Erkidegoan	29
1.3. Lanaldi eta kontratu mota	34
1.4. Lan-bizitzako etenaldiak, seme-alabak eta/edo senideak zaintzeko	36
1.5. Langabezia	39
2. GENERO-ARRAKALA GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KOTIZAZIO-OINARRIETAN	43
2.1. Euskal Autonomia Erkidegoko afiliazio-datu orokorrak	45
2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera bereizita	50
2.3. Batez besteko kotizazio-oinarriak	54
3. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PENTSIOSISTEMAKO PARTE-HARTZEA	57
3.1. Gizarte Segurantzako kotizaziopeko pentsioak	60
3.1.1. Erretiro-pentsioa eta genero-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan	66
3.1.2. Alarguntza-pentsioa eta genero-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan ..	69
3.1.3. Ezintasun iraunkorratikoko pentsioa eta genero-arrakala Euskal Autonomia Erkidegoan	71
3.1.4. Amatasun-osagarria eta erretiroko, alarguntzako eta ezintasun iraunkorreko kotizaziopeko pentsioak	74
3.2. Kotizaziorik gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak	75
3.2.1. Kotizazio gabeko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak jasotzen dituzten pertsonak	76
3.2.2. Kotizazio gabeko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak Euskal Autonomia Erkidegoan	80
LABURPENA	89
ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA	95
I. eranskina: ESTADISTIKA-TAULA OSAGARRIAK	99

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula.	16 urte eta gehiago dituzten EAeko biztanleen enplegu-tasa, hiruhilekoka, beren kargura duten seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera. Datuak: %, 2019ko II. hiruhilekoa	26
2. taula.	16 urte eta gehiago dituzten EAeko biztanleen jarduera-tasa, hiruhilekoka, beren kargura duten seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera. Datuak: %, 2019ko II. hiruhilekoa	27
3. taula.	Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide-kategoriaren arabera (enplegu osoaren %). 2010-2016.....	32
4. taula.	Biztanle landunak, lanbidearen (taldekatuta) eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).....	32
5. taula.	Urteko eta orduko batezbesteko irabaziaz Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide motaren (kualifikazio-mailaren arabera taldekatuta) eta sexuaren arabera. 2017. Unitatea: €.....	33
6. taula.	Orduko batez besteko irabazia Euskal Autonomia Erkidegoan, kontratu motaren, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. 2017. Unitatea: €.....	35
7. taula.	Amatasun-prestazioak, jasotzailearen sexuaren arabera, eta zenbatekoa, Autonomia Erkidegoaren eta probintziaren arabera. 2017-2018.	37
8. taula.	Seme-alabak eta senideak zaintzeko eszedentzia Autonomia Erkidegoaren eta probintziaren arabera. 2018.	38
9. taula.	Gizarte Segurantzako afiliatuak (urteko batezbestekoak) araubideen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2001-2019). Datuak: % horizontalak.	47
10. taula.	Gizarte Segurantzako afiliatuak Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta afiliazio-araubidearen arabera, 2018-2019 (hileko batezbestekoak). Unitatea: batez besteko afiliatuak.....	52
11. taula.	Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Gizarte Segurantzako afiliatutako pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriak (gertakari arruntak), kotizazio motaren eta sexuaren arabera, 2017.	54
12. taula.	Kotizaziopeko pentsioen kopurua eta batez besteko zenbatekoa autonomia-erkidegoen arabera, 2018an (urteko batezbestekoa); sistemaren gutzitza. Unitateak: milaka pentsio eta €.	61
13. taula.	Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).	62
14. taula.	Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen kopurua 2018an (urteko batezbestekoa), sexuaren eta zenbateko-tarteen arabera (sistema osoa): Unitatea: pentsio kopurua eta % (bertikalak).....	64
15. taula.	Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen kopurua 2018an (urteko batezbestekoa), sexuaren eta zenbateko-tarteen arabera (sistema osoa): Unitatea: pentsio kopurua eta % (horizontalak).	64
16. taula.	Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen kopurua 2018an (urteko batezbestekoa), sexuaren, pentsio motaren eta zenbateko-tarteen arabera (sistema osoa). Unitateak: unitateak eta % (sexu bakoitzaren horizontala). ..	65

17. taula.	Gizarte Segurantzako ZBDA araubideko pentsioen kopurua eta batez besteko zenbatekoa, sexuaren eta pentsio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).....	66
18. taula.	Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera eta erretiro-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak	67
19. taula.	Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera eta alarguntza-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak....	69
20. taula.	Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera eta ezintasun iraunkor-rragatiko pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak.....	72
21. taula.	Indarrean dauden kotizazio gabeko pentsioen kopurua. Espainian, guztira, 2006tik 2018ra (urte bakoitzeko abenduko datuak).....	77
22. taula.	Indarrean dauden kotizazio gabeko pentsioen kopurua autonomia-erkidegoaren arabera (2018ko urtarileko datuak).....	78
23. taula.	Kotizazio gabeko pentsioak (KGP), autonomia-erkidegoen eta sexuaren arabera. Datuak: unitateak eta ehunekoa. 2018ko abenduko datuak.	79
24. taula.	Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa (Euskal Autonomia Erkidegoa). Nominen onuradunak eta zenbatekoak (2012-2019).....	81
25. taula.	Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa Euskal Autonomia Erkidegoan. Nominen onuradunak eta zenbatekoak (2012-2019).....	81
26. taula.	Kotizazio gabeko pentsioak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainia osoan, sexuaren eta pentsio motaren arabera. 2018ko abenduko datuak.	82
27. taula.	Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa, sexuaren eta adin-tarteen arabera. ..	83
28. taula.	Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa, sexuaren eta adin-tarteen arabera.	83
29. taula.	Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa, sexuaren eta egoera zibilaren arabera.	85
30. taula.	Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa, sexuaren eta egoera zibilaren arabera.	85
31. taula.	Benetako pobreziaren eta prekarietatearen bilakaera, etxearen edo erreferentziako pertsonaren mota soziodemografikoaren arabera. 2008-2018. Biztanleak familia-etxebizitzetan. Datuak: %	93
32. taula.	Benetako pobreziaren eta prekarietatearen bilakaera, etxearen edo erreferentziako pertsonaren mota soziodemografikoaren arabera. 2008-2018. Biztanleak familia-etxebizitzetan. Datuak: unitateak	94
33. taula.	Biztanleria landuna, lan-egoeraren eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan (2018). Unitatea: Autonomia Erkidegoko zenbateko osoaren %.....	101
34. taula.	Jarduera-, enplegu- eta langabezia-tasak, sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitateak: %	101

35. taula.	Jarduera- eta enplegu-tasak sexuaren eta adin-taldean arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %	102
36. taula.	Jarduera- eta enplegu-tasak sexuaren eta nazionalitatearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %	102
37. taula.	Aktiboak eta landunak, sexuaren eta lortutako prestakuntza-mailaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: % horizontalak ...	103
38. taula.	Biztanleria landuna, jardueraren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: milakoak eta %	103
39. taula.	Biztanleria landuna, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018) Unitatea: EAEko guztizkoaren %	104
40. taula.	Biztanleria landuna, kontratu motaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitatea: EAEko guztizkoaren %	104
41. taula.	Langabezia-tasak sexuaren eta adin-taldean arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %	104
42. taula.	Langabezia-tasak sexuaren eta nazionalitatearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %	105
43. taula.	Gizarte Segurantzako afiliatuak araubideen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2001-2019). Datuak: unitateak (urteko batezbestekoa).	105
44. taula.	Gizarte Segurantzako afiliatuak (urteko batezbestekoa) araubideen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2001-2019). Datuak: % horizontalak .	106
45. taula.	Gizarte Segurantzako afiliatuak (hileko batezbestekoa) araubideen eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2017-2019). Datuak: % horizontalak	108
46. taula.	Gizarte Segurantzako afiliatuak (hileko batezbestekoa) araubideen eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2017-2019). Datuak: Batez besteko afiliatuen kopurua.	109
47. taula.	Gizarte Segurantzako EAEko afiliatuak alta-araubideen, sexuaren eta nazionalitatearen arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: batez besteko afiliatuak eta %	110
48. taula.	Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta pentsio motaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa)	111
49. taula.	Gizonen kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta pentsio motaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa)	112
50. taula.	Emakumeen kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta pentsio motaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).	113
51. taula.	Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko eta kotizazio gabeko pentsioak, onuradun kopuruaren, gastu-bolumenaren eta urte arteko aldaketaren arabera, 2019ko apirila	114

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa.	Jarduera- eta enplegu-tasak sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitateak: %	24
2. grafikoa.	Gizonen eta emakumeen jarduera- eta enplegu-tasak adin-taldeen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %	25
3. grafikoa.	Gizonen eta emakumeen jarduera- eta enplegu-tasak nazionalitatearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %	28
4. grafikoa.	Biztanleria landuna, jarduera-arloaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: Euskal Autonomia Erkidegoko landun guztien %	30
5. grafikoa.	Biztanleria landuna, jarduera-arloaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: Jarduera-arloko landun guztien %.	31
6. grafikoa.	Biztanleria landuna, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitatea: EAEko guztizkoaren %	34
7. grafikoa.	Biztanleria landuna, kontratu motaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitatea: EAEko guztizkoaren %	35
8. grafikoa.	Langabezia-tasak sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018).	39
9. grafikoa.	Gizarte Segurantzako afiliatuak araubideen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2001-2019). Datuak: unitateak (urteko batezbestekoak).	46
10. grafikoa.	EAEko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko afiliatuak jarduera-arloaren arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %	48
11. grafikoa.	Euskal Autonomia Erkidegoko Langile Autonomoen Araubide Bereziko afiliatuak jarduera-arloaren arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %	49
12. grafikoa.	Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Segurantzako afiliatuak kontratu moten arabera, 2001-2019 (urteko batezbestekoak). Unitatea: batez besteko afiliatuak.	50
13. grafikoa.	EAEko Gizarte Segurantzako araubide nagusietako afiliatuak sexuaren eta afiliazio-araubidearen arabera, 2017-2019 (hileko batezbestekoak). Unitatea: batez besteko afiliatuak.	51
14. grafikoa.	Gizarte Segurantzako Euskal Autonomia Erkidegoko afiliatuak (gizonak) alta-araubideen arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: % ...	53
15. grafikoa.	Gizarte Segurantzako Euskal Autonomia Erkidegoko afiliatuak (emakumeak) alta-araubideen arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %	53
16. grafikoa.	Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Gizarte Segurantzako afiliatutako pertsonen hileko batez besteko kotizazio-oinarria (gertakari arruntak), kotizazio motaren eta sexuaren arabera, 2017. Unitatea: euroak (hileko batezbestekoa).	55

17. grafikoa.	Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).....	63
18. grafikoa.	Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubide nagusien eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).....	63
19. grafikoa.	Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera (grafikoaren ezkerreko ardatza) eta erretiro-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera (grafikoaren eskuineko ardatza) Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak.....	68
20. grafikoa.	Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera (grafikoaren ezkerreko ardatza) eta alarguntza-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera (grafikoaren eskuineko ardatza) Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak.....	70
21. grafikoa.	Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera (grafikoaren ezkerreko ardatza) eta ezintasun iraunkorragatiko pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera (grafikoaren eskuineko ardatza) Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak	73

S

SARRERA



Emakumeen autonomia ekonomikoa bitzta osoan bermatzea helburu eztabaida ezina da, eta ezinbesteko helburua emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrera egin ahal izateko. Hala ere, pentsioetako genero-arrakalak erakusten digu helburu hori ez dagoela bermatuta; aitzitik, emakumeek bizitzan zehar eta beren karrera profesionalean dituzten desberdintasun ugarien isla da, bereziki soldata-arrakala. Emakumeek gehiegizko ordezkariak dute lanaldi partzialeko lanetan, ekonomia informalean edo murgilduan jarduten dute, feminizatutako lanetan balorazio txikiagoa dute eta gutxiago ordaintzen zaie, zaintza-lanetan aritzeak haien ibilbide profesionala eteten du... Horiek guztiek bitzta aktiboan zehar desberdintasuna sortzen duten faktoreetako batzuk dira, baita, gerora, pentsio-erregimen eta -modalitateetan sartzeari eta jaso beharreko zenbatekoak jasotzeari dagokienez ere. Izan ere, emakumeek jasotzen dituzte pentsioetan zenbateko txikiak, eta, beraz, emakume pentsiodunek gizonen baino arriku handiagoa dute pobrezian egoteko.

EAEko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako indarrean dagoen planean, helburuetako bat da emakumeen eta gizonen pentsioen arteko arrakala ekonomikoa murriztea; bestalde, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak xedatzen du EAEko administrazio publikoek neurri juridiko eta ekonomikoak sustatuko dituztela alarguntasunaren ondorioz egoera ekonomiko larrian dauden pertsonen baldintzak hobetzeko, eta adineko emakumeen ongizatea eta gizarte-babesa zainduko dituztela.

Azterlan honek pentsioen egungo egoeraren argazki bat egiten digu, generoaren ikuspegitik, eta, beraz, tresna ona da gaian ahalik eta eraginkortasun handienarekin jardun ahal izateko. Horrez gain, Emakunden zuzeneko harremana izan dugu honako hauekin: Oneka emakume pentsiodunen kolektiboarekin, HEHrekin (Emakume erretiratuen eta pentsiodunen plataforma) eta FEVIrekin (Emakume alargunen elkarten federazioa). Talde horiek guztiek beren aldarrikapenak helarazi dizkigute zuzenean.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet, egindako ahaleginagatik eta egindako ekarpen aditu eta espezializatuagatik, EHUko Zuzenbideko eta Lan eta Gizarte Segurantzako irakaslea den Olga Fotinopoulou Basurko andreari, hark koordinatu eta zuzendu baitu azterlana, bai eta haren irakasle-taldeari ere, hau da, Edurne López Rubia, Elixabete Errandonea Ulazia eta Alberto Riesco Sanz irakasleei.

Izaskun Landaida Larizgoitia

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

H

HITZAURREA

PENTSIOETAN DAGOEN GENERO-ARRAKALA, GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO DESBERDINTASUN-FAKTORE GISA.

Honela definitu da pentsioetan dagoen genero-arrakala: gizonen eta emakumeen pentsio gisa jasotzen dituzten hileko edo urteko batez besteko ordainsarien arteko aldea (Samek Ludovici *et al.*, 2016). Horrek, emakumeen kalterako, sexuen arteko desberdintasun kuantitatiboa adierazten du pentsioen testuinguruan, edo oro har, nahi izanez gero, gizarte-babeseko sisteman. Fenomeno horren existentzia zabal baieztatu eta egiaztatuta geratu da Estatuan nahiz Europar horri buruz egin diren azterlanetan.

Izan ere, eta adibide gisa, Espainian desberdintasun hori % 37,92koa izan zen, batez beste, 2015ean (UGT, 2018)¹; bestalde, Europako batez bestekoa % 35,7koa izan zen 2017an, ares-tian esan dugun moduan, emakumeen kaltetan².

Genero-arrakala ez da kontzeptu hertsiki juridiko bat; aitzitik, eraikuntza analitiko eta enpiriko bat da, aldagai batek tasa maskulino eta femeninoei dagokienez dituen kategorien diferentziatik sortua. Horrenbestez, desberdintasun horrek ez du esan nahi, kasu guztietan, ordenamenduak debekatutako desberdintasun-kasu bat dagoenik, zeina, per se, egoera diskriminatzaile bat izango bailitzateke. Gizonen eta emakumeen arteko tratu bereizia sexu jakin batekoa izate hutsagatik gertatzen denean sortzen da diskriminazioa. Diskriminazio hori zuzena izan daiteke, debekatutako desberdintasuna zuzenean faktore horretan oinarritzen denean, baina zeharkakoa ere izan daiteke (hautemateko zailagoa), zeren eta praktika edo jokabide batzuk formalki neutroak izanda ere (gizonak eta emakumeak berdin tratatzen dituzte), horien aplikazioan eragin kaltegarria sortzen baita emakumeentzat, historikoki diskriminatuta egon den kolektiboa den aldetik.

Premisa orokor horiek ezarrita, hau da, desberdintasun- eta diskriminazio-kontzeptuen arteko bereizketa egin ondoren, esan behar da guztiz beharrezkoa dela pentsioetan edo gizarte-segurantzako sisteman generoarekin lotutako arrakala edo desberdintasuna hautematea eta egiaztatzea. Izan ere, ez da soilik adierazle bat aditzera ematen duena emakumeek bizitzan zehar nahiz beren karrera profesionalean desberdintasun ugari jasaten dutela eta desberdintasun horiek eragina dutela emakumeek eta gizonen jasotzen dituzten pentsioetan (Europako Parlamentua, 2017); horretaz gainera, gizarte-segurantzako gure araudiak emakumei ematen dien tratu diskriminatzailearen isla izan daitezke —erauzi beharreko tratua,

1 Espainian ere berretsi egiten da arrakala hori, Comisiones Obreras sindikatuak duela gutxi egindako txostenean (CCOO, 2018). Hala ere, Gizarte Segurantzako estatu-idazkariak 2019ko martxoan eskainitako informazioarekin bat etorri, pentsioetako genero-arrakala % 35era jaitsi omen da, eta beraz, diskriminazioa ia 3 puntukoa izango litzateke 2015. urtearekin alderatuta. Horrela, Estatuko arrakala Europako batezbestekoaren barruan kokatuko litzateke: [<https://www.europapress.es/economia/laboral-00346/noticia-trabajo-cifra-35-brecha-genero-pensiones-crece-desaparecera-2035-20190304121141.html>].

2 Europari dagokionez, ikus, adibidez, Dessimirova eta Bustamante, 2019.

zalantzarik gabe—, lanaldi partzalean lan egiten duten pertsonen pentsioen kalkularekin gertatu den moduan (esate baterako).

Pentsioen esparruan eta gizarte-segurantzako sisteman hautematen diren desberdintasunen arrazoi nagusia da gure gizarte-segurantzako sistema publikoa kotizaziopekoa dela nagusiki, eta sistema hori banaketa bidezko finantzaketa-sistema batean dagoela oinarrituta eta gizarte-eredu patriarkal baten arabera diseinatuta. Horrenbestez, kotizazio-karrerek eta lan-bizitzan zehar jasotako soldatek nabarmen eragiten dute prestazioak eskuratzeko baldintzetan, baita jaso beharreko prestazioen zenbatekoetan ere. Hori dela-eta, ez da harritzekoa emakumeak izatea kotizazio gabeko pentsioen onuradun nagusiak edo ZBDAREN onuradun nagusi eta ia bakarrak (zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguru iraungia³), bai eta ezkontideak edo bikotekideak eskuratutako eskubideetatik eratorritako pentsioen onuradun nagusiak ere (alarguntza-pentsioa, adibidez), eta horien zenbatekoak oso baxuak izaten dira. Beste modu batera esanda, horrelako sistema batek, generoaren araberrako soldata-arrakala bat dagoela baieztatzeaz gainera (De la Rica, Gorjón eta Vega, 2019), modu zuzenean eragiten du emakumeek jasotzen dituzten prestazioetan —epe laburrean edo ertainean—, eta, bereziki, erretiro-pentsioari dagokionez; horren ondorioz, emakumeek gizonek baino arrisku handiagoa dute pobrezia-egoeran egoteko.

Desberdintasun horren arrazoiak askotarikoak dira gizarte-segurantzaren testuinguruan, eta, arestian esan dugun bezala, emakumeek beren lan-bizitzan eta bizitza profesionalean zehar jasaten dituzten desberdintasun kuantitatiboekin eta kualitatiboekin dute zerikusia; hau da, zuzenean lotuta daude emakumeek lan-merkatuan duten egoerarekin. Horrela, bada, emakumeek lanaldi partzialeko lanetan dugun nagusitasuna, ekonomia informalean edo ezkutuko ekonomian dugun presentzia, gizartean gaizki edo gutxi baloratuta dauden kualifikazio baxuko eta/edo ordainsari eskaseko lanpostuetarako sarbidea (etxez etxeko lana, asistentzia-lana, etxeko lana eta abar); karrera profesionaletako etenaldi luzeak eta/edo errepikatua (adingabeak eta/edo adinekoak zaintzeko lan-merkatu sarta eta irteteagatik); sektore jakin batzuetan dugun ikusezintasuna, lan-merkatuko bereizketa bertikala eta horizontala, bizi-itzaropen handiagoa, inguruabarrak (sozialak, ezkontzakoak edo familiarak), eta emakume langabeen ehuneko handiagoa, besteak beste, haztegi moduko bat dira pentsioetan genero-arrakala egon dadin. Egoera horri modu holistikoa aurre egin behar zaio, bai bizitza aktiboan zehar desberdintasuna sortzen duten faktoreetan eraginez (desberdintasunak lan-merkatuan eta soldata-arrakala), bai desberdintasuna gerora sortzen duten faktoreetan eraginez, hau da, Gizarte Segurantzaren sisteman ekinez, hura baita aktibo mantentzen garen bitartean gertatzen den guztiaren zorduna.

Premisa orokor horiek ezarrita, txosten hau hainbat bloke edo apartatutan egituratzen da. Lehenengo blokearen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuko partaidetzaren oinarritzko adierazleak erakustea, hau da, gizonek eta emakumeek lan-merkatuan duten partaidetza desberdinari eustea ahalbidetzen duten datuak erakustea, bai jarduera- eta okupazio-tasei dagokienez, bai lanaren banaketa bertikalari eta horizontalari, lanaldi eta kontratu motari, lan-bizitzaren etenaldiei eta langabezia-tasei dagokienez. Euskal Autonomia Erkidegorako eskuragarri dauden lan-estatistika nagusien azterketa deskribatzailearen bidez (Biztanleria Aktiboaren Inkesta, Gizarte Segurantzako afiliazio-zifrak, lan-bizitzari buruzko etengabeko lagina, pentsio-estatistikak, soldata-egiturari buruzko inkesta eta abar), Euskal Autonomia Erkidegoko pentsio-sisteman genero-arrakalak dituen ezaugarri nagusietako batzuk zedarritzen dira.

3 ZBDA hondar-arabide bat da eta langileak eta haien eskubidedunak dira haren onuradunak, dagoeneko iraungita dagoen aurreko araubideko legeriak eskatzen zituen baldintzak bete zituztenak eta Gizarte Segurantzaren gaur egungo sisteman pentsio-eskubiderik ez dutenak; hala ere, salbuespen bat dago alarguntza-pentsioen kasuan, horiek bateragarriak baitira ZBDA pentsioekin.

Bigarren multzoaren helburua da Gizarte Segurantzako afiliazio-zifrak eta -ezaugarriak aztertzea, baita batzuen eta besteen arteko batez besteko kotizazio-oinarriak ere; datu horiek arestian aipatutako iturri berberen bidez lortzen dira. Gizarte Segurantzako araubide eta sistemetako afiliazio-datuak zifretan zehaztuz gero, ikuspegi horretatik ere genero-arrakala dagoela ikus dezakegu, batez ere gizarte-segurantzako sistemetara afiliatutako emakume gehiago daudela ikus baitezakegu, hala nola etxeko zerbitzuaren kasuan, gure presentzia nagusia baita esparru horretan. Bestalde, gizonen eta emakumeen kotizazio-oinarrietan dauden desberdintasunak ere jorratzen dira bloke honetan, eta argi eta garbi ikusten da emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea; horren eraginez, beste faktore batzuekin batera, pentsioen zenbatekoak txikiagoak dira, oro har, emakumeentzat.

Hirugarren blokean, oinarritzko datuak eskaintzen dira Euskal Autonomia Erkidegoan gizonen eta emakumeek pentsioen sistema publikora sartzeko dituzten aukera desberdinei buruz, bai eta batzuek eta besteek pentsio gisa jasotzen dituzten zenbatekoetan dagoen desberdintasunari buruz ere. Ondorio horietarako, kotizaziopeko pentsioak eta kotizazio gabeko pentsioak bereizten dira, eta horrek bereziki eragiten die kotizaziopeko erretiro- edo alarguntza-pentsioei; izan ere, pentsio horietan hautematen dira gizon eta emakumeen arteko diferentzia nabarmenenak. Hirugarren multzo honetan, desberdintasun kuantitatibo hori islatzen duten datuekin batera, desberdintasun horretan eragiten duten arrazoiak azaltzen dira. Arrazoi horiek ez dira oinarritzen lehenengo blokean lortutako datuetan bakarrik, hau da, gizonen eta emakumeen arteko lan-merkatuko desberdintasunetan bakarrik, eragin handia izan baitute, halaber, azken urteetan gizarte-segurantzako gure sisteman egindako ondoz ondoko lege-erreformek.

1

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO LAN- MERKATUAN PARTE HARTZEKO OINARRIZKO ADIERAZLEAK

Txostenaren lehen zatiaren helburua datu hauek ematea da: jarduera eta lanbidea, jarduera eta enplegua, bereizketa bertikala eta horizontala enpleguan, langabezia-tasak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratzen diren kontratuen tipologiari eta lanaldi motari buruzko datuak, sexuaren arabera bereizita. Datu horiek alde aurretik txertatu dira, guztiak batera hartuta, datu horiek ikuspegi orokor bat ematen baitute gizonen eta emakumeen artean lan-merkatuan gertatzen den desberdintasun-egoerari dagokionez eta, arestian esan dugun moduan, horiek nabarmen eragiten dute gizarte-segurantzako sisteman, eta zehazki, pentsioetan gertatzen den genero-arrakalan. Ikus daitekeen moduan, txostenaren zati honetan EAEko soldata-arrakala aipatzen da zeharka. Izan ere, eta azterlan honen xedeari dagokionez oso gai garrantzitsua izan arren —gero pentsioak kalkulatzeko oinarritzat hartzen diren soldadari eta kotizazio-oinarriei buruzkoa denez gero—, badago horri buruzko azterketa espezifiko bat, De la Rica, Gorjón eta Vega ikertzaileek (2019) duela gutxi egina. Hura aipatuko dugu, ustea egiaztatze eta beharrezkoak ez diren errepikapenak ez egiteko.


JARDUERA ETA LANBIDEA

1.1.

Gizonek eta emakumeek Euskal Autonomia Erkidegoko lan-merkatuan duten mobilizazioari eta parte-hartzeari dagokienez, argi eta garbi ikus dezakegu alde nabarmena dagoela batzuek eta besteek erregistratutako jarduera- eta enplegu-tasetan, krisiaren aurretik nahiz ondoren (1. grafikoa).

2008ko krisia baino pixka bat lehenago, 2006an, ia ehuneko 19 puntuko aldea zegoen gizonen (68,1) eta emakumeen (49,3) jarduera-tasen artean. Alde hori ia erdira jaitsi da (ehuneko 10 puntu 2018an) hamarkada batean baino pixka bat gehixeagoan, baina gizonen jarduera-tasak behera egin duelako batik bat (7 puntu murriztu da, eta 2018an 61,3 puntutan zegoen), eta ez emakumeen jarduera-tasak nabarmen gora egin duelako (2 puntu baino pixka bat gehiago igo da, eta 51,6 puntukoa zen 2018an). Enplegu-tasaren joera ia berdina izan da. Beraz, zuzenketa hori eginda ere, EAEko emakumeek gizonen baino adierazle okerragoak dituzte jarduerari eta enpleguaren partaidetzari dagokionez. Gainera, gizonen adierazleek okerrera egin dutelako egin da zuzenketa hori, eta ez emakumeen adierazleek nabarmen hobera egin dutelako, eta horrek ez du baikortasunik eragiten.

1. GRAFIKOA. Jarduera- eta enplegu-tasak sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitateak: %




Iturria: Geuk eginikoa, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

Jarduera- eta enplegu-tasei buruzko datuek erakusten digutenez, oso intentsitate desberdinak daude gizonen eta emakumeen enpleguarekiko mobilizazioan; historikoki txikiagoak izan dira emakumeen artean (Euskal Autonomia Erkidegoan % 50 ingurukoa izan zen jarduera-tasa 2018an), baina ez hala aukeratu edo nahi izan dutelako (Maruani, 2002; Carrasco *et al.* 2003)⁴. Termino orokorretan, portaera desberdin horretan emakumeek parte-hartze txikiagoa dute lan-merkatuan, eta horrek modu negatiboan eragingo du emakumeek etorkizunean gizarte-babesekeko sistemetara jotzen dutenean, batez ere kontribuziopekoak diren sistemetan, Espainian kotizazio gabekoak baino onuragarriagoak eta bermatzaileagoak baitira⁵.

4 Horren erakusgarri bikaina da hamarkada gutxitan Espainiako lan-merkatuan erregistratu den emakumeen parte-hartzeak izan duen gorakada ikusgarria. Gogoratu, 1987an, emakumeen jarduera-tasa % 39koa zela Espainian, EPAren arabera. Ildo beretik jarraituz, eta iturri beraren arabera, gogora dezagun, 1976an, 30-34 urte bitarteko emakume espainiarren jarduera-tasa % 21ekoa zela, eta 2010ean, berriz, adin-tarte horretako jarduera-tasa % 80ra iritsi zela (Prieto eta Pérez de Guzmán, 2013: 116-117). Oro har, emakumeek parte-hartze txikia dute (oraindik) EAEko eta Espainiako lan-merkatuan, eta hori partzialki zehaztu beharko da.

5 Gai horri buruz berriz hitz egingo dugu 3. apartatuan.

2. GRAFIKOA. Gizonen eta emakumeen jarduera- eta enplegu-tasak adin-taldean arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %



Iturria: Geuk eginikoa, Estadistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

Hala ere, emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartze txikia hainbat alderditan zehaztu beharko litzateke. Lehenik eta behin, jarduera-tasa horiek asko aldatzen direlako aztertutako adin-taldean arabera (2. grafikoa). Euskal Autonomia Erkidegoan oso handiak dira 25 urtetik 54 urtera bitarteko emakumeen jarduera-tasa (86) eta okupazio-tasa (78). Zifra horiek islatzen dute, duela hamarkada gutxi ez bezala (Prieto eta Pérez de Guzmán, 2013), emakumeek ez dutela beren lan-jarduera modu masiboan uzten familia bat osatzeko edo beren ardurapean adingabeak izateko. Horrek indartu egiten du emakumeak Espainiako lan-merkatuan txertatzeko prozesuaren atzeraezintasun-hipotesia (Ibid.), baita txertaketa horrek eragin duen aldaketa sozialarena ere (lan-merkatuan, baina baita familien osieran, genero-harremanetan, kontsumo-jarraibideetan, eskola-ibilbideetan eta abarretan ere).

Dena dela, 2. grafikoan jasotako datuak deigarriak dira beste alderdi batzuetan ere. Batetik, egiaztatu da gizonen lan-merkatuko parte-hartze handiagoak adin-tarte guztiei eragiten diela (16 urtetik 19 urtera bitarteko adin-tartea alde batera utzita; izan ere, adin-tarte horretan lan-jarduera oso txikia da gizonen nahiz emakumeen artean, eta aldea ez da oso esanguratsua): ehuneko 9 puntu 20-24 urte artekoen taldean, 7 puntu 25-54 urte artekoen taldean, eta 8 puntu 55 urtekoen eta gorakoen taldean. Datu horiekin, aztertzen ari garen arazoa ezin da belaunaldien arteko gai huts batera murriztu: egoera horretan, adin handiagoko emakumeen artean kontzentratuko litzateke enpleguko partaidetza desberdina, a priori, horiek lotura handiagoa baitute familia- eta genero-harremanetako eredu tradizionalekin, eta jaiotza-tasa handiagoak eta prestakuntza-maila txikiagoak dituzte, esaterako. Aitzitik, 2. grafikoan emakume guztiei eragiten dien fenomeno iraunkor bat agertzen da, edozein dela ere haien adina. Tarteko adina (25-54 urte) duten emakumeen artean izugarri handitu da laneko parte-hartzea, baina adin-tarte horretako gizonen baino askoz ere zifra txikiagoak dituzte oraindik ere. Egoera horren arrazoen artean, honako hau egon liteke: seme-alabak ardurapean izateak ondorio gehiago izan ditzake okupazio- eta jarduera-tasetan (1. eta 2. taulak).

Eustatek emandako datuen arabera (1. eta 2. taulak), EAEko emakumeen okupazio- eta jarduera-tasak handitu egiten dira etxean dauden seme-alaben kopuruak gora egin ahala. Taula horietako datuak adinaren arabera berezita ez egon arren, suposa daiteke (arrazoi

biologikoengatik, zifra horiek seme-alaba biologikoak eta ez-biologikoak bereizi ez arren) ardurapean dauden seme-alabek bi adierazleekiko duten inpaktuak eragin handiagoa duela tarteko adin-tarte horretako emakumeengan (25-54 urte), adin-tarte horretan erregistratzen baitira, ikusi dugun bezala, emakumeen jarduera- eta okupazio-tasa handienak (2. grafikoa).

Etxeko seme-alaben kopuruak gora egin ahala (eta, printzipioz, baita adina ere) jarduera- eta okupazio-tasak igotzearen fenomenoak gizonen artean eta emakumeen gertatzen da, intentsitate-maila bereziak dauden arren. Hala, jarduera-tasei dagokienez, gizonen kasuan, seme-alabarik ez dutenen eta seme-alaba bat dutenen arteko aldea 7,2 puntukoa da (eta 31 puntukoa bi seme-alaba edo gehiago dituztenekin alderatuta); emakumeen kasuan, diferentziak nabarmenagoak dira, eta jarduera-tasan 12,1 puntuko aldea dago seme-alaba bat dutenekin alderatuta, eta 34,4 puntukoa bi seme-alaba edo gehiago dituztenekin alderatuta (2. taula).

1. TAULA. 16 urte eta gehiago dituzten EAEko biztanleen enplegu-tasa, hiru hilekoka, beren kargura duten seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera. Datuak: %, 2019ko II. hiru hilekoko

	GUZTIRA			SEME-ALABARIK EZ			1 SEME-ALABA			2 SEME-ALABA EDO GEHIAGO		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2018												
II	51,2	55,9	46,8	41,1	44,8	37,4	52,5	59,2	47,3	78,5	85,7	72
III	51,1	56,2	46,3	41,1	45,2	37,1	51,9	58,4	46,7	78,9	86,9	71,5
IV	50,8	55,4	46,5	40,4	43,9	37	52,4	58,2	47,7	78,4	86,3	71,2
2019												
I	50,8	56	45,9	41,1	45,4	36,9	50,5	56,4	45,9	78,4	87,6	70,2
II	51,3	56,3	46,7	41,6	45,6	37,6	52	57,3	47,8	78,4	87,4	70,4
2014	48,1	52,7	43,7	38,7	42,1	35,3	51,7	58,3	46,4	70,7	78,8	63,3
2015	48,8	53,5	44,3	39,5	43,2	35,8	51,1	56,2	47	71,9	80,5	64
2016	49,3	53,9	45	39,4	43,6	35,1	51,3	56,4	47,2	74,4	81,1	68,3
2017	50	54,6	45,7	40,3	44,4	36,2	51,2	57,4	46,4	75,9	82,1	70,3
2018	50,7	55,6	46,2	40,7	44,5	37	52	58,7	46,7	77,9	85,6	70,9

Iturria: EUSTAT: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Urte honetako datuak behin-behinekoak dira, eta aurreko urtekoak biztanleria eguneratuta berrikusi dira, urte horretako urtarrilaren 1a oinarritzat hartuta.

2. TAULA. 16 urte eta gehiago dituzten EAeko biztanleen jarduera-tasa, hiru hilekoka, beren kargura duten seme-alaba kopuruaren eta sexuaren arabera. Datuak: %, 2019ko II. hiru hilekoa

	GUZTIRA			SEME-ALABARIK EZ			1 SEME-ALABA			2 SEME-ALABA EDO GEHIAGO		
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak
2018												
II	57	61,8	52,5	47	51,8	42,2	57,2	62,4	53,1	85	90,8	79,8
III	56,4	61,6	51,7	46,7	51,7	41,8	56,6	62,5	51,9	84,2	90	78,9
IV	56,6	61,6	52	46,3	51,4	41,2	56,9	61,6	53,2	85,5	91,5	80
2019												
I	56,6	61,6	51,9	47,4	52,6	42,3	55	58,8	52,1	84,2	91,4	77,8
II	56,7	61,7	52,2	47,4	52,5	42,3	56,7	59,7	54,4	83,5	91,1	76,7
2014	57,3	63	52	48,3	54	42,7	59,1	64,8	54,5	80,6	87,8	74,2
2015	57,6	63,4	52,2	49	55,1	42,9	57,2	61,1	53,9	81,8	89,2	75
2016	56,9	62,2	52,2	47,5	53,5	41,6	57,4	61,3	54,2	82,3	88,1	77,1
2017	56,3	61,1	51,9	46,6	51,9	41,3	57,2	61,4	54	82,9	88,4	78,1
2018	56,6	61,5	52	46,6	51,5	41,8	56,8	62,1	52,6	84,6	90,6	79,2

Iturria: EUSTAT: Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Urte honetako datuak behin-behinekoak dira, eta aurreko urtekoak biztanleria eguneratuta berrikusi dira, urte horretako urtarrilaren 1a oinarritzat hartuta.

Eskura ditugun datuen (2. taula) arabera, gizonen eta emakumeen jarduera-tasan dauden diferentziak ez dira ia ezertxo ere aldatzen seme-alabarik ez dutenen (2018an, aldea 9,7 puntukoa izan zen gizonen eta emakumeen artean) eta seme-alaba bat dutenen (9,5 puntuko aldea) artean. Hala ere, alde horiek zertxobait handitzen dira seme-alaben kopuruak gora egiten duenean (11,4 puntuko aldea bigarren seme-alabatik aurrera), ustez, lan-jarduera uzten duten emakumeen kopurua handiagoa delako etxean mendeko adingabeak daudenean.


Bestalde, gizonen eta emakumeen adinaren arabera dituzten jarduera- eta okupazio-tasa desberdinei dagokienez, bada deigarria iruditu zaigun beste elementu bat, pentsio-sistemen eskuragarritasunean izan dezakeen inpaktuagatik: 55 urtetik gorako emakumeen artean nabarmena da laneko parte-hartzearen murrizketa; jarduera-tasa % 20koa da (% 28 gizonen artean) eta enplegu-tasa, berriz, % 19koa (% 26 gizonen artean) (2. grafikoa). Zifra horiek lan-merkatutik behar baino lehenago atera diren kasuak islatzen dituzte, gehienetan, nahi gabe gainera (gizarte-eragileekin hitzartutako prozesu kolektiboen kasuan salbu, «aurretik erretiratu diren» pertsonentzako baldintza onuragarriak mantentzen direnean). Horrek modu negatiboan eragin dezake kotizaziopeko pentsioen sistemara sartzeko orduan: kotizatutako urte kopurua murrizteagatik, (laneko antzintasunagatik, besteak beste) soldatak handiagoak diren lan-ibilbideko une horretan kotizatzeari uzteagatik, lan-merkatutik erretiratzeko legezko adinera iritsi aurretik ateratzeagatik (horrek eragiten duen zigorrarekin) eta abarregatik. Arriskua presente dago, halaber, adin horietako gizonen artean, baina gehiago (ehuneko 8 puntu) emakumeen artean.

Orain arte ikusi dugun horretatik ondoriozta dezakegu gizonen eta emakumeen jarduera-tasan eragin nabarmena dutela adinak eta etxean seme-alabak izateak. Esanguratsuena da,

gizonen eta emakumeen artean joerak antzekoak izan arren (jarduera eta okupazio handiagoa tarteko adin-tarteetan, jarduera eta okupazio handiagoa seme-alaba gehiago dituzten etxeetan, jardueraren eta okupazioaren murrizketa nabarmena 24 urtera arte eta 55 urtetik aurrera), gizonen jarduera- eta okupazio-tasak emakumeenak baino handiagoak direla, kasu guztietan. Horrenbestez, izaera estruktural nabarmena duen lan-merkatuko parte-hartzea desberdina dela esan genezake, eta horrek ondorio garrantzitsuak ditu soldata-errentak eta horien inguruko gizarte-babeseko sistemak eskuratzeko orduan.

Apartatu honekin amaitzeko, esan dezakegu deskribatu berri dugun lan-portaeraren eredua bereziki identifikagarria dela Espainiako nazionalitatea duten EAEko emakumeen eta gizonen artean, autonomia-erkidego horretan bizi diren atzerritarrek beste jokabide-jarraibide batzuk baitituzte, gizonen nahiz emakumeen kasuan (3. grafikoa). Batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren atzerritarren artean (EBko herrialdeetakoak izan ala ez) jarduera-tasak Espainiako nazionalitatea dutenenak baino askoz ere handiagoak dira gizonen kasuan (espainiarrak, 60,5; EBko atzerritarrek, 72,9; EBkoak ez diren atzerritarrek, 78,8) eta emakumeen kasuan (espainiarrak, 50,4; EBko atzerritarrek, 76,2; EBkoak ez diren atzerritarrek, 70,7).

3. GRAFIKOA. Gizonen eta emakumeen jarduera- eta enplegu-tasak nazionalitatearen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2018). Unitatea: %



Iturria: Geuk eginikoa, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

Bestalde, emakume atzerritarren artean gizonenak baino zertxobait handiagoak dira enplegu-tasak (EBtik datozen atzerritarren kasuan, jarduera-tasak ere handiagoak); edonola ere, jarduera-tasak oso handiak dira (% 70etik gorakoak), eta beharbada, gure herrialdean bizi diren biztanle atzerritarren zahartze-maila txikiagoarekin lotu beharko litzateke datu hori. Emakume atzerritarren kasuan (EBkoen eta, batez ere, Europar Batasunetik kanpokoan artean), deigarria da zer alde dagoen erregistratutako jarduera-tasa altuen eta askoz ere enplegu-tasa apalagoen (Espainiako emakumeenak baino altuagoak hala ere) artean. Datu hori enplegua lortzeko zailtasun handiagoarekin eta lan-merkatuan egon daitezkeen diskrimina-

zio etnikoko prozesuekin lotuta egongo litzateke (gizon atzerritarren artean ere gertatuko litzateke fenomeno hori, Batasunetik kanpokoen artean batez ere).


Horrela, bada, atzerriko biztanleriak Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria osoarengan duen pisua Espainiarekin alderatuta nahiko txikia izan arren —% 6 eta % 10, Estatistika Institutu Nazionalaren 2019ko urtarrilaren 1eko biztanleria-datuen arabera—, garrantzitsua iruditzen zaigu fenomeno hori aipatzea, atzerriko biztanleriak (bereziki «immigrante izaera» dutenak) pentsio-sistemetara jotzeko orduan dituen berezitasunak direla-eta: laneko informaltasun- eta prekarietate-indize altuagoak, babes-araubide bereziak dituzten sektoreetan eta jardueretan pilatzea (etxeko zerbitzua, esaterako, emakumeen kasuan) berme txikiagoe-kin, kasu askotan jatorrizko herrialdeetara itzultzea, eta abar.

LANAREN ETA ENPLEGUAREN BANAKETA HORIZONTALA ETA BERTIKALA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

1.2.

Landunen jarduera-arloei dagokienez (4. grafikoa), ikus dezakegu gizonak eta emakumeak sektore mota berdinetan pilatzen direla (industria, merkataritza eta ostalaritza, administrazio publikoa eta abar). Beraz, Euskal Autonomia Erkidegoan ekoizpen- eta enplegu-egitura zehatz bat dagoela esan dezakegu; gauza bera gertatzen da Espainian ere, gorabehera batzuk egon arren. Hala eta guztiz ere, eta datuek erakusten dutenez, oso aldaketa esanguratsuak daude gizonak eta emakumeek jarduera-arlo jakin batzuetan duten presentziari dagokionez. Horrela, bada, agerian dago lan-merkatua (horizontalki eta bertikalki) segmentatuta dagoela generoari dagokionez, eta kasu honetan, horrek jarduera eta lanbide «maskulinizatuak» edo «feminizatuak» sortzen ditu (5. grafikoa) (Maruani eta Nicole, 1989; Rogerat et al., 2000; Maruani, 2002; Cáceres et al., 2004; Bygren eta Kumlin, 2005; Ibañez, 2017; Maira Vidal, 2017).

4. GRAFIKOA. Biztanleria landuna, jarduera-arloaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: Euskal Autonomia Erkidegoko landun guztien %




Iturria: Guk eginikoa, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (hiruhilekoko batez bestekoak) oinarritzat hartuta.

A Nekazaritza; B + C + D + E Guztira, Industria; F Eraikuntza; G + H + I Handizkako eta txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza; J Informazioa eta komunikazioak; K Finantza- eta aseguru-jarduerak; L Higiezin jarduerak; M + N Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak; O + P + Q administrazio publikoa eta defentsa, derrigorrezko gizarte-segurantza; hezkuntza; osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak; R + S + T + U Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak; etxez etxeko enplegatzaile gisa eta norberaren erabilerarako ondasun eta zerbitzuen ekoizle gisa; lurraldez kanpoko elkarte eta erakundeen jarduera; beste batzuk.

Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, jarduera-arlo nagusiei dagokienez, ikus dezakegu Eraikuntza (F), Nekazaritza (A) eta Industria (B+C+D+E) batez ere maskulinoak direla (enplegu horietan, gizonak % 90eko, % 79ko eta % 76ko pisua dute hurrenez hurren), eta zaintza-, jolas- eta arte-jarduerak (R+S+T+U) eta Administrazio Publikoaren, Osasunaren, Hezkuntzaren eta Gizarte Zerbitzuen sektorea (O+P+Q) batik bat femeninoak direla (emakumeek % 75eko eta % 66ko pisua dute hurrenez hurren) (5. grafikoa). «Especializazio» horrek aurkako joerak sortzen ditu; izan ere, emakumeen eskulanaren presentzia handia da soldata txikiak ohikoak diren eta enpleguaren prekarizazioa handia den sektoreetan (etxeko zerbitzuan, merkataritzan eta ostalaritzan, adibidez), baina emakumeen enpleguak pisu esanguratsua du, halaber, a priori enplegu-baldintza hobek erregistratu ohi diren sektoreetan, hala nola Administrazio Publikoan eta herritarrentzako zerbitzuetan (Hezkuntza, Osasuna...).

5. GRAFIKOA. Biztanleria landuna, jarduera-arloaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: Jarduera-arloko landun guztien %.



Iturria: Guk eginikoa, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (hiruhileko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

A Nekazaritza; B + C + D + E Guztira, Industria; F Eraikuntza; G + H + I Handizkako eta txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza; J Informazioa eta komunikazioak; K Finantza- eta aseguru-jarduerak; L Higiezinaren jarduerak; M + N Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak; O + P + Q administrazio publikoa eta defentsa, derrigorrezko gizarte-segurantza; hezkuntza; osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak; R + S + T + U Arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak; etxez etxeko enplegatzaile gisa eta norberaren erabilerarako ondasun eta zerbitzuen ekoizle gisa; lurraldez kanpoko elkarte eta erakundeen jarduera; beste batzuk.

Dena dela, jarduera-arlo jakin batean parte hartze hutsarekin ezin dugu zehatz-mehatz esan gizonen eta emakumeen zer lan- eta enplegu-baldintza dituzten Euskal Autonomia Erkidegoan; halere, adierazle partzial baten gisa balio dezake, enpleguarekiko loturaren prekarizazioa handiagoa edo txikiagoa dela adierazteko. Azterketa zehatzago bat egiteko, zehatz-mehatz aztertu beharko litzateke gizon-emakumeen banaketa nolakoa den jarduera-sektoreen artean, baita sektore horietako bakoitzean gizonen eta emakumeen artean gertatzen den banaketa bertikala ere. Izan ere, maskulinizatuta edo feminizatuta egonda ere, gizonen eta emakumeen bete beharreko jardueren eta funtzioen banaketa desberdina da jarduera-arlo horietan guztietan. Funtzioen banaketa bereiziaz desberdintasunak sortzen ditu, halaber, gizonen eta emakumeen arteko ordainsarrietan, prestigioan eta enplegu-estatuetan. Prozesu horretan, emakumeek nolabaiteko diskriminazioa jasan dute termino orokorretan (soldatei, enpleguaren egonkortasunari, lanbide-sustapenari eta abarrei dagokienez) (Maruani eta Nicole, 1989; Ibañez, 2017; Maira Vidal, 2017).

Azterlan honetan ezin dugu egin ezaugarri horien azterketa xehaturik, baina iruzkin labur bat egin dezakegu, gutxienez, Euskal Autonomia Erkidegoan hauteman daitekeen generoaren arabeko lanaren banaketa bertikalari dagokionez. Euskal Estatistika Bulegoak (Eustat) emandako datuak oinarritzat hartuta —lan-merkatuko parte-hartzeari buruzkoak, lanbide-kategoriaren arabera banatuta—, ikus dezakegu emakumeen presentzia EAEko lan-merkatuan duten pisu globalari dagokiona (% 45) baino askoz txikiagoa dela zuzendaritza-postuetan (% 30, 2016an), erdi-mailako karguetan (% 31) eta langile kualifikatu gisa (% 38). Bestalde, emakumeak argi eta garbi gainordezkaturik daude (% 71) administrazio-eginkizunetan (3. taula).

3. TAULA. Emakumeen enpleguaren pisu erlatiboa Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide-kategoriaren arabera (enplegu osoaren %). 2010-2016.

	2016	2012	2008	2004	2000
Guztira	45,0	42,4	40,7	37,8	35,7
Zuzendaritzako kideak	30,3	32,6	28,8	30,2	30,6
Teknikariak	51,5	50,0	49,4	47,8	47,4
Erdi-mailako arduradunak	30,9	30,4	25,2	21,8	15,6
Administrariak	71,5	72,4	76,5	71,5	68,1
Langile kualifikatuak	38,1	33,4	33,2	30,8	26,4
Kualifikatu gabeko langileak	47,9	48,1	42,1	34,8	34,9

Iturria: EUSTAT, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren datuak oinarritzat hartuta. Lan Merkatuaren Errolda.

4. TAULA. Biztanle landunak, lanbidearen (taldekatuta) eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).

	Guztira	Kualifikazio Altua (*)	Kualifikazio Ertaina (**)	Kualifikazio Baxua (***)
Bi sexuak	Ertaina (**)	Kualifikazio	45,4	18,4
Gizonak	Baxua (***)	34,9	45,0	20,0
Emakumeak	100,0	37,8	45,6	16,6

Iturria: Geuk eginikoa, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

(*) Kategoria hauek hartzen ditu barne: 1. Zuzendari eta kudeatzaileak; 2. Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak; eta 3. Teknikariak; laguntzako profesionalak. (**) Kategoria hauek hartzen ditu barne: 4. Kontabilitateko, administrazioko eta bulegoko beste enplegatu batzuk; 5. Jatetxeetako zerbitzuetako, zerbitzu pertsonaletako, babes-zerbitzuetako langileak eta saltzaileak; 6. Nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-sektoreetako langile kualifikatuak; 7. Artisauak eta manufaktura-industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (instalazioetako eta makinetako operadoreak izan ezik); eta 0. Lanbide militarrik. (***) Kategoria hauek hartzen ditu barne: 8. Instalazio eta makina finkoetako operadoreak eta muntatzaileak; eta 9. Oinarrizko lanbideak.

Hala ere, a priori kualifikatuagotzat (1., 2., eta 3. okupazio-taldeak) eta kualifikazio txikiagotzat (8. eta 9. okupazio-taldeak) joko genituzkeen okupazioen banaketa globala kontuan hartuz gero, ikus dezakegu emakumeen egoera positiboagoa dela horri dagokionez; izan ere, enpleguan pisu handiagoa dute okupazio kualifikatuenean (emakumeen enplegu osoaren % 38 eta gizonen % 35) eta txikiagoa okupazio ez horren kualifikatuean (emakumeen enplegu osoaren % 17 eta gizonen % 20) (4. taula).

5. TAULA. Urteko eta orduko batezbesteko irabaziak Euskal Autonomia Erkidegoan, lanbide motaren (kualifikazio-mailaren arabera taldekatuta) eta sexuaren arabera. 2017. Unitatea: €

	Bi sexuak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeen eta gizonen irabazien arteko aldea (eurotan)	
	Urteko irabaziak	Orduko irabaziak	Urteko irabaziak	Orduko irabaziak	Urteko irabaziak	Orduko irabaziak	Urteko irabaziak	Orduko irabaziak
Lanbide guztiak	28.204,49	18,48	24.165,97	17,04	31.618,97	19,55	-7.453	-2,51
Altua (*)	37.014,11	23,69	33.814,32	22,46	40.042,88	24,78	-6.229	-2,32
Ertaina (**)	23.308,40	15,36	18.762,49	13,32	27.714,23	17,08	-8.952	-3,76
Baxua (***)	22.233,22	15,03	15.194,42	12,37	25.912,81	16,08	-10.718	-3,71

Iturria: Estatistika Institutu Nazionalaren Soldata Egiturari buruzko inkesta

(*) Kategoria hauek hartzen ditu barne: 1. Zuzendari eta kudeatzaileak; 2. Teknikari eta profesional zientifiko eta intelektualak; eta 3. Teknikariak; laguntzako profesionalak. (**) Kategoria hauek hartzen ditu barne: 4. Kontabilitateko, administrazioko eta bulegoko beste enplegatu batzuk; 5. Jatetxeetako zerbitzuetako, zerbitzu pertsonaletako, babes-zerbitzuetako langileak eta saltzaileak; 6. Nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-sektoreetako langile kualifikatuak; 7. Artisauak eta manufaktura-industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (instalazioetako eta makinatako operadoreak izan ezik); eta 0. Lanbide militarrik. (***) Kategoria hauek hartzen ditu barne: 8. Instalazio eta makina finkoetako operadoreak eta muntatzaileak; eta 9. Oinarrizko lanbideak.


Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi gizonen baino diru-sarrera gehiago lortzen dituztenik (5. taula). EIN-ren Soldata Egiturari buruzko Inkestaren 2017ko datuak erreferentzia gisa hartuta, esaterako, ikus dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeen urteko batez besteko irabaziak gizonenak baino txikiagoak direla beti, a priori, lanpostuek kualifikazio handiagoa duten edo ez kontuan hartu gabe. Gizonen eta emakumeen arteko soldata-diferentziak murriztu egiten dira okupazioaren kualifikazio-maila zenbat eta handiagoa izan, baina, hala eta guztiz ere, soldata-arrakalak bere horretan jarraitzen du okupazio-maila guztietan, eta zifrak esanguratsuak dira gainera: gizonekin alderatuta, emakumeek 6.200 € gutxiago irabazten dituzte urtean kualifikazio-maila handienetan (zuzendariak, kudeatzaileak, teknikari eta profesional zientifikoak, eta abar), eta 10.718 € gutxiago maila baxuenetan (makinetako langileak, oinarrizko lanbideak eta abar) (5. taula).

Euskal Autonomia Erkidegoan gizonen eta emakumeen batez besteko urteko irabazietan erregistratzen diren alde nabarmen horiek partzialki azaltzeko, esan liteke, beharbada, enplegu-modu «atipiko» jakin batzuek (adibidez, lanaldi partzialeko lanek) inpaktu handiagoa dutela emakumeen artean, murriztu egiten baitute lan-merkatuan duten benetako partaidetza (benetan lan egindako ordu kopuruan neurtuta, esaterako). Hala ere, arrazoibide horrek ez dizkigu guztiz azaltzen gizonen eta emakumeen artean erregistratutako soldata-diferentziak; izan ere, desberdintasun horrek bere horretan dirau Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen eta emakumeek lanbide batean edo bestean ordu bakoitzeko jasotzen duten batez besteko irabazia aztertzen dugunean (5. taula). Kasu horretan ere, emakumeen batez besteko irabaziak gizonenak baino txikiagoak dira orduko (2,51 €, batez beste, lan egindako ordu bakoitzeko). Alde horiek areagotu egiten dira kualifikazio-maila txikiagoko lanbideetan (5. taula).

Lan-merkatuan parte hartzeko lanaldi eta kontratu mota ere oso alderdi garrantzitsuak dira enpleguarekiko loturari dagokionez, eta eragin nabarmena dute langileek etorkizunean izango duten gizarte-babeseko sistemetarako sarbidean, Gizarte Segurantzari egindako ekarpenen hedadura (denbora) eta zenbatekoa baldintzatzen baitute.


Eskura dauden datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan, lanaldi partzialeko lanak eta aldi baterako kontratazioak eragin handiagoa dute emakumeengan (6. eta 7. grafikoak). Euskal Autonomia Erkidegoan, esaterako, lanean ari diren 4 emakumetik 1ek (% 26) lanaldi partzialean lan egiten dute, eta enplegu mota horrek Autonomia Erkidegoko gizonen % 7ri bakarrik eragiten die (ehunekoak are txikiagoak ziren, % 4 ingurukoak, 2008ko krisia baino lehen, baina emakumeen artean % 25etik gorako zifrak mantendu dira beti, eta % 30era ere iritsi dira une batzuetan) (6. grafikoa). Bestalde, enpleguaren behin-behinekotasunak —Espainian, oro har, oso handia da bi sexuen kasuan— (7. grafikoa) eragin handiagoa du emakumeengan (% 28) gizonengan baino (% 23), nahiz eta aldi baterako lanaren pisua murriztu egin zen, 2008an hasitako krisi ekonomikoaren testuinguruan bitzako enplegu-suntsiketaren ondorioz (emakumeek 5 puntuko beherakada erregistratu dute aldi baterako enpleguan, eta gizonek, berriz, 2 puntuko).

6. GRAFIKOA. Biztanleria landuna, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitatea: EAEko guztizkoaren %.



Iturria: Geuk eginikoa, Estatistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

7. GRAFIKOA. Biztanleria landuna, kontratu motaren eta sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018). Unitatea: EAEko guztizkoaren %.



Iturria: Geuk eginikoa, Estadistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

Aldi baterako eta lanaldi partzialeko lanak pisu handiagoa du emakumeen artean, eta beraz, horrek murriztu egiten du haien lan-partaidetza (eta ez haien borondatez). Horrela, murriztu egiten dira (denboran eta zenbatekoan) gizarte-babeseko kontribuzio-sistemetara egiten dituzten ekarpenak, eta, aurrerago ikusiko dugun moduan (3. paragrafoa), gizonak baino pentsio baxuagoak jasotzen dituzte hori dela-eta. Arrisku horiek agerikoak dira, adibidez, enpleguaren behin-behinekotasunak eta partzialtasunak lanean ari diren pertsonen diru-sarreretan nola eragiten duten aztertzean. Estadistika Institutu Nazionalaren Soldata Egiturari buruzko Inkestak, adibidez, honako hau dio 2017ko Euskal Autonomia Erkidegoko datuetan oinarrituz: lanaldi partzialean lan egiten duten emakumeek orduko batez besteko irabazi txikiagoak izaten dituzte lanaldi osoan lan egiten dutenek baino (gizonak nahiz emakumeak) eta, aldi berean, enplegu-formatu bereko gizonak baino batez besteko irabazi txikiagoak jasotzen dituzte (9,68 € emakumeen kasuan eta 11,56 € gizonen kasuan, kontratuak mugagabeak direnean, eta 10,36 € emakumeen kasuan eta 11,15 € gizonen kasuan, kontratuak aldi baterako izaera dutenean) (6. taula).

6. TAULA. Orduko batez besteko irabazia Euskal Autonomia Erkidegoan, kontratu motaren, lanaldi motaren eta sexuaren arabera. 2017. Unitatea: €

	Bi sexuak		Emakumeak		Gizonak		Emakumeen eta gizonen irabazien arteko aldea (eurotan)	
	Iraupen mugagabea	Iraupen jakina	Iraupen mugagabea	Iraupen jakina	Iraupen mugagabea	Iraupen jakina	Iraupen mugagabea	Iraupen jakina
Lanaldi osoa	15,03	12,58	13,86	13,01	15,77	12,23	-1,91	0,78
Lanaldi partziala	10,12	10,62	9,68	10,36	11,56 (*)	11,15 (*)	-1,88	-0,79

Iturria: Estadistika Institutu Nazionalaren Soldata Egiturari buruzko inkesta

(*) 100 eta 500 lagin artean aztertu dira (ez da oso zifra fidagarria eta kontuz aztertu behar da)

Aldi baterako lanarekin antzeko zerbait gertatzen da, baina badira desberdintasun batzuk: aldi baterako kontratuak dituzten emakumeek kontratu mugagabeak dituztenek (gizonak edo emakumeak) baino irabazi txikiagoak jasotzen dituzte orduko, betiere lanaldi osokoak badira. Hala ere, gainerako kasuetan, jarraibideak zertxobait desberdinak dira aurrez ikusitakoarekin alderatuta: lanaldi partzialeko lanaren kasuan, aldi baterako kontratuak dituzten emakumeek gehiago irabazten dute kontratu mugagabeak dituztenek baino, betiere lanaldi partzialetan; eta, bestalde, lanaldi osoko aldi baterako kontratuak dituzten emakumeek egoera berean dauden gizonen baino irabazi handiagoak lortzen dituzte orduko (4. taula).

LAN-BIZITZAKO ETENALDIK, SEME-ALABAK ETA/EDO SENIDEAK ZAINTEKO

1.4.

Emakumeen karrera profesioetan etenaldi luze samarrak eta/edo errepikatuak egiteak —hau da, lan-merkatura sartzek eta hortik irteteak, adin txikikoak eta/edo mendeko adinekoak zaintzeagatik—, izugarri eragiten du emakumeen aseguru-karreretan, eta beraz, baita pentsioen eskuragarritasun eta zenbatekoetan ere.

Amatasun-prestazioak jasotzeari buruzko datuak aztertuz gero (7. taula)⁶, ikus dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoan, 2017an eta 2018an amatasun-prestazioaz baliatu ziren aitak edo bestelako ahaideak hartzaile guztien % 5 bakarrik izan zirela bi kasuetan (Espainia osoan, % 2). Egoera horrek pentsarazten digu amatasun-prestazioa (amatasuna biologikoa izan ala ez, datuek ez baitute desberdintasun hori islatzen) ia amek bakarrik hartzen dutela (% 95) eta oso kasu gutxitan lagatzen dela, Emakumearen Institutuko Berdintasunerako Behatokiak erabilitako estatistiketatik ateratako datuen arabera⁷. Haren arabera, bi gurasoen artean partekatutako kotizaziopeko amatasun-prestazioak 368 izan ziren, guztira, 2017an (12.175 kasutatik), hau da, amatasun-prestazioen % 3 bakarrik; prestazio horiek 75,96 eguneko iraupena izan zuten batez beste, eta amek bakarrik baliatutako amatasun-prestazioen batez besteko iraupena 112,84 egunekoa da.

6 Hemen mantendu egin dugu izena, martxoaren 1eko 6/2019 Errege Lege Dekretua indarrean sartu aurreko datuak baitira (6/2019 Errege Lege Dekretua, Enplegu eta lanaren arloan emakumeen eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna bermatzeko presazko neurriena, zeinak alde zuzeneko estatutu-arauketa aldatzen baitu).

7 <http://www.inmujer.gob.es/observatorios/observigualdad/home.htm>

7. TAULA. Amatasun-prestazioak, jasotzailearen sexuaren arabera, eta zenbatekoa, Autonomia Erkidegoaren eta probintziaren arabera. 2017-2018.

	AMAK JASOTAKOAK		AITAK JASOTAKOAK				ZENBATEKOA (MILA €-TAN)	
	2017	2018	Prestazioak		Gutzizkoaren gaineko %		2017	2018
			2017	2018	2017	2018		
ESPAINIAN, GUZTIRA	263.653	248.180	4.950	4.752	2	2	1.521.003,11	1.477.262,48
EAE	13.258	12.112	669	609	5	5	92.971,96	87.622,38
ARABA	2.103	1.935	103	92	4,9	4,8	14.123,41	13.467,48
GIPUZKOA	4.552	4.243	292	256	6,4	6	32.420,95	30.643,03
BIZKAIA	6.603	5.934	274	261	4,1	4,4	46.427,60	43.511,88

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.

Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da hemen lortutako datuek dauden kontziliazio-neurrien irismena ezagutzeko aukera bakarrik ematen digutela, eta oso modu erlatiboan gainera, ezin baitugu ezagutu amatasunarekin lotutako kotizazio-fikzioen irismen mugatua eta etorkizuneko, hau da, erditzarekin parekatutako kotizazio-aldiei dagozkienak (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 235. art.) eta seme-alaba adingabeak zaintzeko onurak (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren 236. artikulua). Lehenengo kasuan, haur bakar baten erditze bakoitzeko langilearen alde guztira 112 egun zenbatu arren —erditze anizkoitzetan 14 egun gehiago izan daitezke seme-alaba bakoitzeko, bigarrenetik aurrera—, oraindik ez dakigu prestazio horietatik zenbat egon diren lotuta erditze anizkoitzekin, betiere neurri horren irismen mugatuari kalterik egin gabe, erretiro-pentsioei eta ezintasun iraunkoragatiko pensioei bakarrik eragingo bailieke, onuradunak eskatutako gutxieneko kotizazio-aldia betetzen duen zehazteko eta prestazioen oinarri arautzailea eta aplikatu beharreko ehuneko zehazteko helburuarekin (5 urteko muga du gehienez ere).

Seme-alaba adingabeak zaintzeko onurei dagokienez, datu horiek ere ez digute inolako ondorioerik ateratzea ahalbidetzen (ezta eskuragarri dauden gainerakoek ere). Izan ere, ez dakigu kotizazioa uneren batean eten egin den lan-harremana amaitzeagatik edo langabezia-prestazioa amaitzeagatik, egoera horiek haurra jaio aurreko 9 hilabeteen edo adingabe baten adopzio edo harrera iraunkorraren aurreko 3 hilabeteen eta egoera horren ondorengo seigarren urtearen amaiera bitartean gertatu direnean. Kasu horietan, kotizatutako aldi gisa zenbatzen dira 270 egun haur edo adoptatutako edo harreran hartutako adingabe bakoitzeko; inola ere ezingo da izan kotizazioaren benetako etenaldia baino handiagoa (kotizatutako aldi gisa zenbatuko dira, baina ez eskatutako kotizazio-aldi minimoa betetzearen ondorioetarako, gure ondorioetarako interes handikoa den salbuespena, gutxieneko gabealdirik ezak emakumeen kolektiboari eragiten diolako batik bat eta babesgabetasun-egoera larriak planteatzen dituelako).

Amatasun-prestazioari buruzko datuekin batera, azterlan honen ondorioetarako oso garrantzitsuak dira seme-alabak eta/edo senideak zaintzeko lanaldi-murrizketari buruzko datuak, baita seme-alabak edo senideak zaintzeko eszedentziei buruzko estatistikak ere (8. taula). Izan ere, egoera horien iraupena, oro har, luzeagoa eta biziagoa izaten da, eta horrek modu erabakigarrian eragiten du kotizazio-aldietan eta, beraz, jaso beharreko pensioen zenbatekoetan, betiere kalterik egin gabe Gizarte Segurantzaren Lege Organikoaren 237. artikuluan araututako kotizazio birtualeko mekanismoei (mota horretako egoerak aipatzen

ditu artikulua). Ildo horretan, egiaztatu behar da ez dagoela daturik seme-alabak eta/edo senideak zaintzeko lanaldi-murrizketa hartzen duten emakumeen eta gizonen kopuruari dagokionez, ez Estatuan ez EAEn.

8. TAULA. Seme-alabak eta senideak zaintzeko eszedentzia Autonomia Erkidegoaren eta probintziaren arabera. 2018.

	GUZTIRA			SEME-ALABAK ZAINZTEKO ESZEDENTZIAK			SENITARTEKOAK ZAINZTEKO ESZEDENTZIAK		
	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak	Bi sexuak	Emakumeak	Gizonak
ESPAINIAN, GUZTIRA	57.057	51.036	6.021	45.249	41.302	3.947	11.808	9.734	2.074
EAE	5.350	4.805	545	4.815	4.366	449	535	439	96
ARABA	1.016	898	118	931	827	104	85	71	14
GIPUZKOA	1.510	1.360	150	1.358	1.242	116	152	118	34
BIZKAIA	2.824	2.547	277	2.526	2.297	229	298	250	48

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa.


Seme-alabak zaintzeko eszedentziei dagokionez, eskura dauden datuak oso argigarriak dira: 2018an, EAEn seme-alabak zaintzeko 4.815 eszedentzia-eskabidetatik 4.366 emakumeenak izan ziren, eta 449 gizonenak; hau da, kasu guztien % 90,6etan, emakumeak izan ziren eskatzaileak. Era berean, eta senideak zaintzeko eszedentziari dagokionez, 2018an, eskatzaileen % 82 emakumeak izan ziren, eta % 18 gizonak. Hala ere, senitartekoak zaintzeko eszedentzia hartu duten gizonen ehunekoa seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu dutenena baino 8 puntu handiagoa da, 2018. urtean eskatu ziren eszedentzien kopurua oso eskasa izan zelako, 535 guztira; horietatik 439 emakumeek eskatu zituzten, eta 96 gizonak.

Datu horiek pentsioetan dagoen genero-arrakalari buruzko txosten batean sartu behar dira, eszedentziek iraupen luzeagoa edo laburragoa izan dezaketelako, gehienez ere hiru urtekoa seme-alabak zaintzeko eszedentziaren kasuan, eta gehienez 2 urtekoa senideak zaintzeko eszedentziaren kasuan. Horren ondorioz, emakumeen aseguru-karrerak behin edo gehiagotan eteten dira (ez dago arrazoi horien eraginez eszedentzia bat baino gehiago eskatu duten emakumezko langileen daturik), eta gainera, denbora-tarte bat igaro ondoren, egoera horietan dauden emakumeak lan-merkatura ez itzultzea gerta liteke, egoera horietan, lanpostu bera edo antzeko beste bat gorde arren. Hausnarketa horrekin batera, informazio hori oso garrantzitsua da (nahiz eta lortutako eta lor daitezkeen datuek ez duten adierazten aipatutako eszedentzia bakoitzaren iraupen zehatza, seme-alabak zaintzeko nahiz senideak zaintzeko); izan ere, kasu horietan, gure gizarte-segurantzako sistemak benetako kotizazio-aldizat hartzen du eszedentzia-aldia, hau da, erretiro, ezintasun iraunkor eta heriotza eta biziraupenerako pentsioak (baita amatasun-/aitatasun-prestazioetarako ere) jasotzeko gutxieneko kotizazio-aldiak egiaztatzeko balio du, seme-alabak zaintzeko eszedentziaren lehen 3 urteetan eta senideak zaintzeko eszedentziaren lehen urtean.

Enpleguaren behin-behinekotasuna eta partzialtasuna ez dira arrisku-faktore bakarrak langileek gizarte-babesekeo sistemetara sarbide ezegonkorra izateko orduan. Langileari gehiago eragiten dioten beste ondorio negatibo batzuk alde batera utzita, langabeziak eta jarduerarik ezak ere arrisku handia eragiten dute gizarte-babeserako sistemek emandako estalduraren eskuragarritasunari eta kalitateari dagokienez (egindako kotizazioen zenbatekoa eta kotizatutako urte kopurua murriztu egiten direlako, besteak beste).

Langabeziari dagokienez, eta eskura ditugun datuen arabera (8. grafikoa), krisia hasi arte, emakumeen artean zertxobait handiagoa zen langabezia-tasa. Ordudanik zuzendu egin da diferentzia hori, eta 2009tik, Euskal Autonomia Erkidegoan langabeziaren presentzia oso antzekoa da gizonen eta emakumeen artean (Espainiako lurraldean ez da gauza bera gertatzen; han EAEn baino dezente handiagoa da langabezia-tasa, eta emakumeen langabeziak ia 3,5 puntutan gainditzen du gizonena).

8. GRAFIKOA. Langabezia-tasak sexuaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2006-2018).



Iturria: Geuk eginikoa, Estadistika Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (urteko batezbestekoak) oinarritzat hartuta.

Euskal Autonomia Erkidegoan, krisi ekonomikoa baliagarria izan da diferentzia hori zuzentzeko, baina ez emakumeen langabezia murrizteko eta gizonen krisi aurreko langabezia-mailara hurbiltzeko, gizonen langabezia emakumeen langabezia-mailara igotzeko baizik. Azken urteetan, langabeziak nolabaiteko atzerakada izan du Euskal Autonomia Erkidegoan, baina ez dira berreskuratu 2008ko krisiaren aurretik zeuden mailak. Enpleguaren susperraldia mantentzen den ala ez ikusi beharko da, eta kasu horretan, gizonen artean berriz ere langabezia-balio txikiagoak sortzen ote diren, krisialdiaren aurretik gertatzen zen moduan.

Txostenaren lehen zati honetatik hau ondoriozta dezakegu:

- EAEn nolabaiteko aldea dago gizonen eta emakumeen erregistratutako jarduera- eta enplegu-tasetan, eta pixkanaka murriztuz joan bada ere, ehuneko 10 puntukoa izan zen 2018. urtean.
- EAeko emakumeen jarduera- eta okupazio-tasak aldatu egiten dira adin-taldeen arabera, baina, kasu guztietan, gizonen okupazio- eta enplegu-tasak emakumeenak baino handiagoak dira, baita adin-tarte gazteenetan ere (16-19 urte eta 20-24 urte). Tarteko adin-tarteari edo adin-tarte zentralari dagokionez (25-54 urte) —batez ere lan-egonkortasuna handiagoa delako eta kotizazioen ondorioetarako aldirik luzeena delako da interesgarria—, tarte horietan erregistratzen dira emakumeen jarduera- eta okupazio-tasarik handienak. Errealitate hori adierazle positibotzat jo daiteke, intzidentzia txikiagoa ikusten baita emakumeen lan-jarduera uzteari dagokionez —familia bat osatzearen ondorioz edo mendeko adingabeak edo adinekoak ardurapean izatearen ondorioz—, baina horrek ez du esan nahi emakumeek zaintzen ez dituztenik, lanaldi-murrizketei eta/edo seme-alabak eta senideak zaintzeko eszedentziei buruzko datuak kontuan hartuta. Dena dela, eta datua positiboa izan arren, tarteko adin-tarte horretan ere gizonen lan-merkatuan duten partaidetza-tasa emakumeena baino 7 puntu handiagoa da. Tasa horiei buruzko datuek kezka handiagoa sortzen dute adin-tarte aurreratuenei dagokienez (55 urte edo gehiago); izan ere, adin-tarte horietan, emakumeek gizonen baino nabarmen gutxiago parte hartzen dute, kotizazioak handiagoak izan ohi diren aldia izan arren. Egoera horren eraginez, eta kontuan hartuta pentsio jakin batzuk jasotzeko aukerak zaildu egin direla —batez ere prestazioa jaso ahal izateko berariazko gabealdi bat egiaztatu behar duten pentsioen kasuan (bereziki erretiroari edo ezintasun iraunkorrari dagokionez)—, genero-arrakala badagoela aurreratu dezakegu.
- Euskal Autonomia Erkidegoko lanaren eta enpleguaren bereizketa horizontalari eta bertikalari dagokionez, hainbat desberdintasun daudela hauteman dezakegu ateratako datuetatik. Horrela, lanaren bereizketa horizontalari dagokionez, ikus dezakegu emakumeek presentzia handia dutela tradizioz feminizatuta egon diren eta zaintzarekin eta etxeko laguntzarekin lotuta dauden sektoreetan; lan horiek ezegonkorragoak izaten dira, hau da, soldata baxuak eta lan-ezegonkortasun handia izaten dituzte. Horri gehitzen badiogu, eskura ditugun datuen arabera, emakumeek presentzia handiagoa dutela lanaldi partzialeko lanetan —Euskal Autonomia Erkidegoko emakume landunen % 26 eta gizonen % 7—, edo behin-behinekotasuna gizonena baino handiagoa dela emakumeen kasuan —ehuneko 5 puntuko aldea dago batzuen eta besteen artean—, aldeztatik ondorioztatu behar da egoera desabantailatsuagoa dela emakumeentzat, jaso beharreko pentsioen eskuragarritasunari eta zenbatekoei dagokienez; are gehiago horri gehitzen badiogu kontratu mota hauen hartzekodunek, oro har, iraupen mugagabeko kontratuak dituzten eta/edo lanaldi osorako kontratuak dituzten langileek baino diru-sarrera txikiagoak jasotzen dituztela. Lanaren banaketa bertikalari dagokionez, EAEn emakumeen enpleguak pisu handia du Administrazio Publikoaren eta herritarrentzako zerbitzuetan —a priori, enplegu-baldintza hobeak dituzten sektoreak—, baina horietan ere argi eta garbi hautematen da generoaren araberako banaketa; izan ere, emakumeen presentzia gizonena baino txikiagoa da zuzendaritza-postuetan eta/edo erdi-mailako karguetan, beharko lukeena baino txikiagoa, EAeko lan-merkatuan duten pisu globala kontuan hartuta. Horrez gain, eta okupazioen araberako banaketa orokorrean EAEn emakumeek posizio positiboa izan arren (presentzia handiagoa dute okupazio kualifikatuenetan eta pisu txikiagoa kualifikazio txikiagoko okupazioetan), horrek ez du esan nahi gizonen diru-sarrera berdinak dituztenik.
- Emakumeen lan-merkatuarekiko lotura zehazten duten lanaldi motari eta kontratu motari dagokienez, diferentzia nabarmenak hautematen dira gizonen eta emakumeen ar-

tean, eta horrek modu negatiboan eragiten du emakumeen aseguru-karreretan. Hala, lanaldi partzialeko kontratuak dituzten emakumeen presentzia oso handia da. Euskal Autonomia Erkidegoan, 4 emakumetik 1ek (% 26) lanaldi partzialean lan egiten du, eta horrela lan egiten duten gizonen kopurua % 7koa da. Enpleguaren behin-behinekotasunak, bi sexuetan errealitate bat izan arren, emakumeengan eragin handiagoa du gizonen artean baino: ehuneko 5 puntuko aldea dago bataren eta bestearen artean, emakumeen kaltetan.

- Tradizioz, EAeko emakumeen langabezia-tasak gizonen langabezia-tasak baino zertxobait handiagoak izan dira beti, baina desberdintasun hori murriztu egin da azken urte hauetan.

2


GENERO-ARRAKALA GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAN ETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KOTIZAZIO-OINARRIETAN

**EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO
AFILIAZIO-DATU
OROKORRAK**

2.1.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Segurantzako afiliazioaren bilakaerari buruzko datuek erakusten dutenez, etengabe hazi da 2008ra arteko afiliazio-zifra globala: 2001ean, 841.000 afiliatu zeuden batez beste, eta 2008an, ia milioi bat. Une horretatik aurrera, krisi ekonomikoak hasi eta hark lan-merkatuan izan duen eraginarekin, afiliazio-zifrak murriztu egin ziren 2013ra arte (872.000 afiliatu, batez beste), eta aldi horretan zehar (2008-2013), Gizarte Segurantzako afiliazioa % 10,4 murriztu zen. Une horretatik aurrera, afiliazio-zifrak lehengora itzuli dira pixkanaka, eta 2019an krisiaren baino lehenagoko afiliazio-mailetara iritsi ziren. Gizarte Segurantzari atxikitzeke araubideen arabera (9. grafikoa), aipatu dugun afiliazioaren bilakaera orokorra eta 2019an, krisia hasi aurreko antzeko jokabide-eredu bat egiaztatu da, 2008tik 2013ra bitartean beherakada orokorrak izan arren, gero goranzkoa izan baita joera.

9. GRAFIKOA. Gizarte Segurantzako afiliatuak araubideen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2001-2019). Datuak: unitateak (urteko batezbestekoak).



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

(*) 2019 = urteko lehen sei hilabeteetako batezbestekoa.

(**) LAAB (nekazaritzako langileen sistema berezia) = 2007ko abendura arte indarrean egon den Nekazaritzako Araubide Berezia (norberaren konturakoa) barne hartzen du. A. OROKORRA (nekazaritzako langileen sistema berezia) = 2011ko abendura arte indarrean egon den Nekazaritzako Araubide Berezia (besteren konturakoa) barne hartzen du. A. OROKORRA (etxeke langileen sistema berezia) = 2011ko abendura arte indarrean egon den Etxeko Araubide Berezia (finkoak eta etenak) barne hartzen du.

Afiliazioak azken bi hamarkadetan izan duen bilakaerari buruzko joera orokor horietatik harago, nabarmendu behar da EAEko biztanleria landun gehiena Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean sartzen dela. Araubide horrek, berez, Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsona guztien % 78,1 hartzen zituen 2018an (9. taula).

9. TAULA. Gizarte Segurantzako afiliatuak (urteko batezbestekoak) araubideen arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa (2001-2019). Datuak: % horizontalak.

	IKATZ-MEATZA- RITZAKO AB	LANG. AUTO- NOMOEN AB	ITSAS LANG. AB (Besteren kontura)	ITSAS LANG. AB (Norbere kontura)	LAAB (NEKAZA- RITZAKO LANG. SIST. BER.)	A. OROKORRA (ETXEKO SIST. BER.)	A. OROKORRA (NEKAZARITZAKO LANG. SIST. BER.)	A. OROKORRA
2001	0,0	20,0	0,6	0,0	0,9	1,1	0,2	77,2
2002	0,0	19,7	0,6	0,0	0,9	1,1	0,2	77,5
2003	0,0	19,6	0,6	0,0	0,8	1,1	0,3	77,5
2004	0,0	19,6	0,5	0,0	0,8	1,1	0,3	77,6
2005	0,0	19,4	0,5	0,0	0,8	1,4	0,3	77,6
2006	0,0	19,2	0,5	0,0	0,7	1,5	0,3	77,8
2007	0,0	19,0	0,4	0,0	0,7	1,3	0,2	78,3
2008	0,0	18,7	0,4	0,0	0,6	1,4	0,3	78,5
2009	0,0	18,9	0,4	0,0	0,6	1,5	0,3	78,2
2010	0,0	18,7	0,4	0,0	0,6	1,6	0,3	78,3
2011	0,0	18,6	0,4	0,0	0,6	1,7	0,3	78,4
2012	0,0	18,8	0,4	0,0	0,6	2,4	0,3	77,5
2013	0,0	19,2	0,4	0,0	0,6	3,1	0,3	76,5
2014	0,0	19,2	0,4	0,0	0,6	3,2	0,3	76,4
2015	0,0	19,0	0,4	0,0	0,5	3,2	0,3	76,6
2016	0,0	18,6	0,4	0,0	0,5	3,3	0,3	77,0
2017	0,0	18,1	0,4	0,0	0,5	3,2	0,3	77,6
2018	0,0	17,7	0,4	0,0	0,5	3,1	0,3	78,1
2019	0,0	17,9	0,4	0,0	0,0	3,0	0,3	78,4

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

(*) 2019 = urteko lehen sei hilabeteetako batezbestekoa.


(**) LAAB (nekazaritzako langileen sistema berezia) = 2007ko abendura arte indarrean egon den Nekazaritzako Araubide Berezia (norberaren konturakoa) barne hartzen du. A. OROKORRA (nekazaritzako langileen sistema berezia) = 2011ko abendura arte indarrean egon den Nekazaritzako Araubide Berezia (besteren konturakoa) barne hartzen du. A. OROKORRA (etxeke langileen sistema berezia) = 2011ko abendura arte indarrean egon den Etxeko Araubide Berezia (finkoak eta etenak) barne hartzen du.

Araubide Orokorrekin batera, Langile Autonomoen Araubide Berezia da Gizarte Segurantzarekiko loturarik handiena duen bigarren modalitatea (2018an, afiliatuen % 17,7), eta bi araubide horien artean pilatzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Segurantzara afiliatutako pertsona guztien % 96 (9. taula). Gainerako araubideen presentzia askoz ere bakanagoa eta urriagoa da (afiliatutako biztanle guztien % 0,5etik behera), Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren kasuan izan ezik; izan ere, 2018an Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen % 3,1 araubide horretan zeuden afiliatuta (9. taula) eta, ikusiko dugunez, garrantzi handiagoa hartzen du Gizarte Segurantzako afiliazio-datuak sexuaren arabera bereiziz gero.

Euskal Autonomia Erkidegoan Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonen jarduera-arloaren araberrako banaketa globala kontuan hartuz gero, EAEn Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden bi araubide nagusien artean aldaketa batzuk ikus ditzakegu. Alde batetik, 2018an Araubide Orokorrean afiliatutako pertsonen «manufaktura-industrian» lan egiten zuten hein

handi batean (araubide orokorreko afiliatuen % 20,5), eta arlo horrek araubide horretan afiliatutako 5 pertsonatik 1 hartzen du barne. Herritarrei gizarte-zerbitzuak ematearekin lotutako jarduerak (zerbitzu sanitarioak, hezkuntza-zerbitzuak, administrazio publikoa...) sektore publikotik eskaintzen dira askotan, eta Araubide Orokorreko afiliatuen beste zati garrantzitsu bat hartzen du (% 27, O, P eta Q jarduera-arloak batuz gero). Azkenik, merkataritzak eta ostalaritzak (bereziki lehenengoa) osatzen dute Araubide Orokorreko afiliatuen hirugarren jarduera-bloke handia (afiliatuen % 20, G eta I adarrak batuz gero) (10. grafikoa).

10. GRAFIKOA. EAEko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko afiliatuak jarduera-arloaren arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %




Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

(*) «Beste batzuk» kategorian, afiliatutako langileen ehunekoa % 3tik beherakoa duten adarrak sartzen dira: A - Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza; B - Erauzteko industriak; D - Energiaren hornidura; E - Ur-hornidura, hondakinak; J - Informazioa eta komunikazioak; K - Finantza-jarduerak eta aseguru-erakundeak; L - Higiezin jarduerak; R - Arte, aisialdi eta entretenimenduko jarduerak; T - Etxe-erakundeak; U - Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak.

2018an, Langile Autonomoen Araubide Bereziko (LAAB) afiliazioak jardueraren arabera izan zuen banaketak desberdintasun esanguratsuak ditu Araubide Orokorrean ikusi dugunarekin alderatuta. Manufaktura-industriak, adibidez, garrantzitsua izan arren (LAABeko afiliazioen % 14), garrantzia galtzen du Araubide Orokorrearekin alderatuta. Gauza bera gertatzen da herritarrei zerbitzuak ematearekin lotutako jarduerekin ere, autonomoen artean afiliatu guztien % 6,4 bakarrik baitira. Horrela, bada, Araubide Orokorrean salbu —bertan biltzen dira soldatapeko enplegu gehienak—, LAABen, lan autonomoaren pisua tradizioz handia izan den jardueraren arloak dira nagusi: merkataritza eta ostalaritza (LAABeko afiliatuen % 33, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko 3 autonomotatik ia 1, bereziki merkataritzaren kasuan), eraikuntza (LAABeko afiliatuen % 13), jardueraren profesionalak (% 9), garraioa (% 6) edo baita nekazaritza/arrantza (% 3) ere (11. grafikoa).

11. GRAFIKOA. Euskal Autonomia Erkidegoko Langile Autonomoen Araubide Bereziko afiliatuak jarduera-arloaren arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %




Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datuetan oinarrituta.

(*) «Beste batzuk» kategorian, afiliatutako langileen ehunekoa % 3tik beherakoa duten adarrak sartzen dira: B - Erauzteko industriak; D - Energiaren hornidura; E - Ur-hornidura, hondakinak; J - Informazioa eta komunikazioak; K - Finantza-jarduerak eta aseguru-eraketak; L - Higienezin jarduerak; N - Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak; O - Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte-segurantza; P - Hezkuntza; R- Arte, aisialdi eta entretenimenduko jarduerak; T - Etxeetako jarduerak; U - Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak.

Azkenik, afiliazio-datu orokorrak kontratu motaren arabera bereizita (12. grafikoa), berretsi dezakegu modalitate horien ohikoena lanaldi osoko kontratazio mugagabea izan zela 2018an (afiliatuen % 50). Aldi baterako kontratazioak 2018ko afiliatuen % 30 izan ziren, baina lanaldi osoko behin-behinekotasuna ohikoagoa izan zen (% 19) lanaldi partzialeko behin-behinekotasuna baino (% 11). Azken formula horrek bereziki eragiten die emakumeei⁸.

⁸ Lan, Immigrazio eta Gizarte Segurantza Ministerioaren Lan Mugimendu Erregistratuaren datuen arabera, Espainian 2018an sinatutako lanaldi partzialeko 7.978.100 kontratuetatik % 59,1 emakumeek sinatu zituzten (zifra hori % 64,3koa izan zen 2009an, krisi ekonomikoak lan-merkatuan eragin handiagoa izan aurretik).

12. GRAFIKOA. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Segurantzako afiliatuak kontratu moten arabera, 2001-2019 (urteko batezbestekoak). Unitatea: batez besteko afiliatuak.



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datuetan oinarrituta.


(*) Urteko lehen 6 hilabeteak aintzat hartuta kalkulaturako batezbestekoak. (**) Beste batzuk: Hemen sartzen dira kontraturik gabeko afiliatu guztiak (funtzionarioak), zaintzaile ez-profesionalak, prestakuntza-programak eta lanekoak ez diren enpresetako praktikak (1493/2011 eta 1543/2011 Errege Dekretuak) eta akats edo omisio baten ondorioz fitxategian kontratu motarik ez dutenak. Araubide Orokorreko afiliatuak bakarrik daude sartuta, nekazaritzako eta etxeko langileen sistema bereziak izan ezik.

**GIZARTE SEGURANTZAKO
AFILIAZIOA EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN,
SEXUAREN ARABERA
BEREIZITA**

2.2.

Euskal Autonomia Erkidegoan, oro har, gizonek dituzten jarduera-tasa handienekin bat etorrituz (ik. 1. atala), gizonek Gizarte Segurantzako afiliazio osoan duten pisua emakumeena baino zertxobait handiagoa da (% 53; 2018an, berriz, % 47koa izan zen) (13. grafikoa eta 10. taula). Nahiz eta Araubide Orokorra eta, neurri txikiagoan, Langile Autonomoen Araubide Berezia nagusi izan gizonen eta emakumeen artean, aipatu beharreko diferentziak daude.

13. GRAFIKOA. EAEko Gizarte Segurantzako araubide nagusietako afiliatuak sexuaren eta afiliazio-araubidearen arabera, 2017-2019 (hileko batezbestekoak). Unitatea: batez besteko afiliatuak.



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

Lehenik eta behin, ikusi da (10. taula) Araubide Orokorrek pisu zertxobait handiagoa duela emakumeen artean (ia ehuneko bi puntu) (2018an, emakumeen afiliazioaren % 79 eta gizonen afiliazioaren % 77). Hau da, soldatapeko enpleguaren zatirik handiena osatzen duen araubidean presentzia handiagoa dute emakumeek, eta oro har, hark babes-ahalmen handiagoa duela uste da. Horri gehitu behar zaio Langile Autonomoen Araubide Bereziak eragin txikiagoa duela emakumeen artean (2018an, emakumeen afiliazio guztien % 14) gizonen artean baino (gizonen afiliazio guztien % 21); izan ere, eta arestian esan den bezala (Riesco-Sanz, 2016), araubide horrek araubide orokorrak baino babes-maila txikiagoa izaten du (langabeziari, erretiroari eta abarrei dagokienez).

EAEko Gizarte Segurantzako sexuen arabeko afiliazio-zifren lehen hurbilketa horrek nahiko irudi positiboa emango luke, hasiera batean, genero-arrazoiengatik lan-merkatuan dauden desberdintasunei dagokienez. Dena dela, lehen irudi hori gehiago zehaztu beharko da gure azterketa pixka bat gehiago sakontzean. Lehenik eta behin, EAEko emakumeek Gizarte Segurantzako beste araubide berezi batzuetan duten partaidetza (oro har, Araubide Orokorrek eta Langile Autonomoen Araubide Bereziak baino berme gutxiago eskaintzen dituzte), Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren adibidez, gizonena baino dezente handiagoa delako (10. taula eta 14. eta 15. grafikoak). 2018an, Etxeko Langileentzako Sistema Bereziaren batez besteko pisua % 6,4koa izan zen, Euskal Autonomia Erkidegoan, Gizarte Segurantzaren afiliatutako emakumeen artean; gizonen kasuan, aldiz, araubide hori % 0,3koa baino ez zen izan (14. eta 15. grafikoak). 2018an, aipatutako bi araubide handi horietatik (Araubide Oroko-

rretik eta LAAB-etik) kanpo dauden «beste araubideek» batez beste % 2a osatu zuten gizonen artean eta % 7a emakumeen artean (10. taula).

10. TAULA. Gizarte Segurantzako afiliatuak Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren eta afiliazio-araubidearen arabera, 2018-2019 (hileko batezbestekoak).
Unitatea: batez besteko afiliatuak.


	ARAUBIDE OROKORRA (%)		LAAB (%)		BESTE BATZUK (%)*	
	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA	GIZONA	EMAKUMEA
2018ko urtarrila	77,1	78,9	21,1	14,2	1,8	7,0
2018ko otsaila	77,1	78,9	21,1	14,2	1,8	7,0
2018ko martxoa	77,1	78,9	21,0	14,1	1,9	6,9
2018ko apirila	77,1	79,0	21,0	14,1	1,9	6,9
2018ko maiatza	77,1	79,0	20,9	14,0	2,0	6,9
2018ko ekaina	77,1	78,9	20,8	14,1	2,1	7,0
2018ko uztaila	77,4	78,9	20,6	14,2	1,9	7,0
2018ko abuztua	77,3	78,7	20,8	14,2	1,9	7,0
2018ko iraila	77,2	78,8	20,9	14,2	2,0	7,0
2018ko urria	77,1	79,2	20,7	13,9	2,2	6,8
2018ko azaroa	77,4	79,4	20,7	13,9	1,8	6,7
2018ko abendua	77,5	79,5	20,7	13,9	1,8	6,7
2019ko urtarrila	77,5	79,3	21,3	14,3	1,3	6,3
2019ko otsaila	77,5	79,4	21,2	14,3	1,3	6,3
2019ko martxoa	77,5	79,4	21,2	14,3	1,4	6,3
2019ko apirila	77,5	79,5	21,1	14,2	1,4	6,3
2019ko maiatza	77,5	79,6	21,0	14,1	1,5	6,3
2019ko ekaina	77,6	79,7	20,9	14,1	1,5	6,2

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

(*) 2019ko urtariletik aurrera, nekazaritzako araubidea LAAB orokorrean sartu da.


Gainera, emakumeek Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrean duten parte-hartzea «prekarioa» da, eta hori are garrantzitsuagoa da. Hau da, kontua ez da oso bermatzaileak ez diren araubide batzuek —adibidez, etxeko zerbitzuarenak— emakumeengan eragin handiagoa dutela, baizik eta emakumeek onuragarriagoak izan daitezkeen araubideetan (Araubide Orokorrean, adibidez) parte hartzen dutenean, desabantaila-baldintzetan parte hartzen dutela gizonekin alderatuta, eta horrek etorkizunean eragina izan dezake gizarte-babeseko sistemetara jotzeko orduan, eta, zehazki, pentsioen kotizaziopeko sistemetara jotzerakoan. Emakumeek Gizarte Segurantzako araubide bermatzaileenetan (esaterako, Araubide Orokorrean) parte hartzen dutenean bizi duten desabantaila handiago hori argi eta garbi hautematen da, adibidez, sexuaren arabera kotizazio-oinarriari buruzko datuak aztertzen baditugu (10. taula eta 16. grafikoa).

14. GRAFIKOA. Gizarte Segurantzako Euskal Autonomia Erkidegoko afiliatuak (gizonak) alta-araubideen arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

15. GRAFIKOA. Gizarte Segurantzako Euskal Autonomia Erkidegoko afiliatuak (emakumeak) alta-araubideen arabera, 2018 (urteko batezbestekoa). Unitatea: %



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren afiliazio-datueta oinarrituta.

2017ko Lan Bizitzen Lagin Jarraituko datu fiskalak (LBLJ-DF)⁹ abiapuntutzat hartuta, 2017ko batez besteko kotizazio-oinarriak zenbatetsi ditzakegu bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan duten pertsonen besteren konturako araubideetan (batez ere Araubide Orokorraren kasuan) eta norberaren konturako araubideetan (funtsean, Langile Autonomoen Araubide Berezia). Euskal Autonomia Erkidegorako egin ditugun kalkuluen arabera —2017an, Gizarte Segurantzaren 34.251 lagunek kotizatu zuten besteren kontura eta 9.597 lagunek beren kontura (11. taula)—, emakumeen artean gizonen artean baino askoz txikiagoak dira kotizazio-oinarriak, araubide batean nahiz bestean (11. taula eta 16. grafikoa). Esaterako, besteren konturako kotizazioan (bertan Araubide Orokorrari buruzko informazioa jasotzen da funtsean), gizonak 2.052 €-ko batez besteko kotizazioa dute hilean, eta emakumeek, berriz, 1.667 €-koa. Alde hori errepikatu egiten da norbere konturako araubideetan eta beste batzuetan ere (LAABen batez ere, baina baita Etxeko Langileentzako Sistema Berezian ere); horietan, gizonen batez besteko kotizazio-oinarria 1.258 €-koa izan zen eta emakumeena, berriz, 916 €-koa (16. grafikoa).

11. TAULA. Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen Gizarte Segurantzako kotizazio-oinarriak (gertakari arruntak), kotizazio motaren eta sexuaren arabera, 2017.

	Besteren kontura (*)			Norbere kontura eta beste batzuk (**)		
	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak	Bi sexuak	Gizonak	Emakumeak
Batez besteko kotizazioa (urtean)	22.445,5 €	24.629,3 €	20.000,8 €	13.185,8 €	15.100,9 €	10.987,3 €
Batez besteko kotizazioa (hilean)	1.870,5 €	2.052,4 €	1.666,7 €	1.098,8 €	1.258,4 €	915,6 €
Batez bestekoa (urteko kotizazioa)	21.182,0 €	24.399,4 €	18.159,2 €	1.0877,4 €	10.877,4 €	1.0877,4 €
25 pertzentila (urteko kotizazioa)	10.793,7 €	13.446,4 €	9.590,2 €	9.435,3 €	10.877,4 €	6.243,3 €
75 pertzentila (urteko kotizazioa)	33.820,2 €	37.173,7 €	29.531,5 €	14.003,2 €	18.341,8 €	1.2657,7 €
Zk. baliagarria	3.4251	18.091	16.160	9.597	5.129	4.468
% horizontala	100%	52,8%	47,2%	100%	53,4%	46,6%

Iturria: guk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Lan Bizitzen Lagin Jarraituko datuak (datu fiskalak barne) oinarritzat hartuta, 2017. urtea.


(*) 2017ko LBLJ-DFn jasotako «besteren konturako» kotizazio-oinarriek Araubide Orokorra hartzen dute barne, bai eta Itsasoko Langileen (besteren konturakoa) eta Ikatz Meatzaritzako araubide bereziak ere.

(**) 2017ko LBLJ-DFn jasotako «norbere konturako kotizazio-oinarriek eta bestelakoek» barnean hartzen dute Langile Autonomoen Araubide Berezia, bai eta Etxeko, Nekazaritzako eta Itsasoko Langileen Sistemaren (norbere konturakoa) araubide bereziak eta iraungitzen ari diren beste araubide batzuk ere.

9 Gizarte Segurantzako Lan Bizitzen Lagin Jarraitua (LBLJ) nahiko datu-base berria da (2004an sortu zen). Urtero egiten da, eta Gizarte Segurantzaren administrazio-erregistroak oinarritzat hartuta eraikitzen da (Estatistika Institutu Nazionalaren —INE— Errolda Jarraituko datuak eta Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu fiskalak kontuan hartuta). LBLJK Gizarte Segurantzari atxikitako milioi bat pertsonaren baino gehiagoren datuak —anonimoak— eskaintzen ditu (besteren kontura eta norbere kontura lan egiten dutenenak, baina baita Gizarte Segurantzaren aldetik prestazioren bat jasotzen duten langabe eta ez-aktiboak ere). LBLJK informazioa ematen du pertsona batek bere bizitza profesionalean zehar izan dituen lan-harreman guztien inguruan (kontratu mota, sektorea, iraupena, kotizazio-oinarriak eta abar), bai eta lanik gabe edo jarduerarik gabe egondako aldi posibleen inguruan ere (Gizarte Segurantzaren prestazioak jasotzen direnean).

Aztertutako araubide guztietan ikus daitezkeen emakumeen kotizazio txikiagoak ere agerian geratzen dira beste balioespen batzuk egitean. 2017an, esaterako, Gizarte Segurantzaren afiliatuta zeuden eta Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ziren gizonen erdian urteko besteren konturako kotizazio-oinarria ez zen izan 24.399 €-tik gorakoa (hilean 2.033 € batez beste), eta emakumeen erdian urteko kotizazio-oinarria, berriz, ez zen 18.159 €-tik gorakoa izan (hilean 1.513 € batez beste). Horren haritik, esan dezakegu lau gizonetik batek urtean besteren kontura egindako kotizazioaren oinarria 13.446 €-tik beherakoa izan zela (1.120 € hilean, batez beste), eta emakumeen kasuan, aldiz, lau emakumetik batek egindako kotizazioaren oinarria 9.590 €-tik beherakoa izan zela (799 € hilean, batez beste). Era berean, gizonen % 75en urteko besteren konturako kotizazio-oinarriek ez zuten 37.174 €-ko zifra gainditu (hilean 3.098 €, batez beste), eta emakumeen kasuan, berriz, % 75ek ez zuten urtean 29.531 €-ko zifra gainditu (hilean 2.461 €, batez beste) (11. taula).

16. GRAFIKOA. Egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen hileko batez besteko kotizazio-oinarria (gertakari arruntak), kotizazio motaren eta sexuaren arabera, 2017. Unitatea: euroak (hileko batezbestekoa).



Iturria: guk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Lan Bizitzen Lagin Jarraituko datuak (datu fiskalak barne) oinarritzat hartuta, 2017. urtea.

(*) 2017ko LBLJ-DFn jasotako «besteren konturako» kotizazio-oinarriek Araubide Orokorra hartzen dute barne, bai eta Itsasoko Langileen (besteren konturakoa) eta Ikatz Meataritzako araubide bereziak ere.

(**) 2017ko LBLJ-DFn jasotako «norbere konturako kotizazio-oinarriek eta bestelakoek» barnean hartzen dute Langile Autonomoen Araubide Berezia, bai eta Etxeko, Nekazaritzako eta Itsasoko Langileen Sistemaren (norbere konturakoa) araubide bereziak eta iraungitzen ari diren beste araubide batzuk ere.

Egoera nahiko antzekoa da norbere konturako kotizazio-oinarrietan eta bestelakoetan. Kasu horretan, emakumeen eta gizonen erdian 10.877 €-tik beherako urteko oinarriak kotizatzen zituzten (hilean 906 €, batez beste). Hala ere, kotizazio-oinarri txikiagoak zituzten gizonen % 25en kotizazio-atalasea 10.877 €-koa zen, eta emakumeen kasuan, emakumeen % 25en kotizazio-atalasea askoz ere baxuagoa zen: 6.243 € urtean (hilean 520 €, batez beste). Era berean, gizonen % 75en urteko kotizazio-oinarriek ez zuten 18.342 €-ko zifra gainditzen (hi-

lean 1.528 €, batez beste); emakumeen kasuan, % 75ek ez zuten urtean 12.658 €-ko zifra gainditzen (1.055 € hilean, batez beste) (11. taula).

Txostenaren zati honetan ateratako datuetatik ondorio hauek atera daitezke:

- Gizonek emakumeek baino jarduera-tasa handiagoak dituzte, eta beraz, EAEn gizarte-segurantzako afiliazio-ehunekoak ere pixka bat handiagoak dira gizonen artean (% 53) emakumeen artean baino (% 47).
- EAeko gizon eta emakume gehienak araubide orokorrean daude afiliatuta, eta bertan ikus daitekeen moduan, emakumeen afiliazioa gizonena baino bi puntu handiagoa da; langile autonomoen araubide berezian, aldiz, emakume afiliatuen presentzia gizonena baino ehuneko zazpi puntu txikiagoa da. Oro har, bi araubideetako afiliazioek EAeko gizon eta emakumeen afiliazio osoaren % 96 hartzen zuten 2018. urtean.
- Beste araubide edo gizarte-segurantzako sistema batzuetan afiliatutako gizon eta emakumeei dagokienez, afiliazio-tasak txikiak dira. Hala eta guztiz ere, pentsioetan dagoen genero-arrakalari dagokionez oso garrantzitsuak dira EAeko etxeko langileen sistema berezira afiliatutako ehunekoetan hautemandako diferentziak: 2018an, emakumeen ehunekoa % 6,4koa izan zen batez beste, eta gizonek sistema horretako afiliazioen % 0,3 baino ez zuten hartzen. Alde horretatik, kontuan izan behar da sistema honetako langileek kotizazio-oinarri baxuak dituztela eta, 2011. urtetik aurrera Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean sartu arren, oraindik ere zenbait bazterketa mantentzen direla —besteak beste, eta modu ulertezinean—, hala nola erretiro-pentsioen ondorioetarako bereziki garrantzitsua den hutsuneak integratzeko figuraren aplikaziorik eza eta kontingentzia arruntek eragindako ezintasun iraunkorrari dagokiona. Horrek esan nahi du, bi pentsio horiek kalkulatzeko, benetan kotizatu diren aldiak bakarrik hartuko direla kontuan.
- A priori, EAeko emakumeen afiliazio-tasei buruzko egoera orokorra positiboa izan daiteke, Araubide Orokorrean afiliatutako emakumeen kopurua handiagoa baita gizarte-segurantzako beste araubide batzuetan afiliatutakoena baino. Hala ere, lehenengo inpresio hori zehaztu egin behar da emakumeen hileko nahiz urteko batez besteko kotizazio-oinarriak aztertzean. Izan ere, EAEn generoaren araberako soldata-arrakala argi eta garbi ikus daiteke emakumeek gizonek baino kotizazio txikiagoa dutela aztertutako araubide guztietan, baita LAABen ere.

3

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PENTSIO-SISTEMAKO PARTE-HARTZEA

Ondo dakigun moduan, Espainian indarrean dagoen pentsio-sistema publikoa kotizaziopeko eta kotizazio gabeko pentsioen arteko bereizketan oinarrituz egituratzen da. Laneko Estadistiken Buletinaren azalpen-oharretan (<http://www.mitramiss.gob.es/estadisticas/bel/index.htm>), Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioak honela definitzen ditu pentsioak: «Biziarteko edo iraupen zehaztugabeko aldizkako prestazioak». Horiei, iraupen mugatua izan arren (salbuespenak salbuespen), «zurztasun-pentsioak» gehitu beharko litzaizkieke (<http://www.mitramiss.gob.es/estadisticas/bel/PEN/penfn.htm>). Kotizazio gabeko pentsioak honako hauek lirateke: «Inoiz kotizatu ez duten edo jarduera profesionalak egiteagatik ordaindutakoaren araberako prestazioak lortzeko behar beste denbora kotizatu ez duten pertsonen aldeko biziarteko edo iraupen mugagabeko aldizkako prestazioak». Kotizazio gabeko pentsioak Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako ekarpenen bitartez finantzatzen dira, eta bateraezinak dira beste laguntza mota batzuekin (laguntza-pentsioak, gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko eta hirugarren pertsoneri laguntzeko subsidioak, edo 18 urtetik gorako seme-alaba desgaituak beren kargu dituztenentzako diru-esleipenak) (<http://www.mitramiss.gob.es/estadisticas/bel/PNC/pncfn.htm>).

Pentsioen kontribuzio-sistemaren helburua da lanbide-jarduera uztean jasotzen ez diren laneko errentak ordezkatzea, betiere onuradunak ezarritako baldintzak betetzen baditu eta sistemari beharrezkoak diren ekarpenak egin badizkio (Fotinopoulou Basurko, 2016: 248). Bestalde, kotizazio gabeko pentsioen bidez, premia-egoera arindu nahi zaie baliabide nahikorik ez duten 65 urtekoei edo gehiagokoei, baldin eta kotizaziopeko pentsioa jaso ezin badute, sistemara inoiz kotizatu ez dutelako nahiz behar beste denboran kotizatu ez dutelako. Pentsioen maila osagarri bat ere badago (pentsio-planak eta -funtsak, hitzarmen kolektiboaren hobekuntzak, eta abar), baina apartatu honen helburuei dagokienez, pentsio-sistema publikoaren oinarriko mailara mugatuko gara, eta honela laburbilduko litzateke:

KOTIZAZIOPEKO PENTSIOAK

Ezintasun iraunkorra: agindutako tratamendua jaso eta medikuaren alta jaso ondoren, lanerako gaitasuna murrizten edo deuseztatzen dioten murrizketa anatomiko edo funtzional larriak dituen langileak jasotzen duen pentsioa, horiek objektiboki neurtu daitezkeenean eta behin betikoak direnean (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, Laneko Estadistiken Buletina).

KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOAK

Baliaezintasuna: prestazio hau hemezortzi urtetik gorako eta hirurogeita bost urtetik beherako pertsoneri dago bideratuta, horiek legez Espainian bizi direnean, % 75eko edo hortik gorako desgaitasuna edo gaixotasun kronikoa dutenean, eta errenta edo diru-sarrera nahikorik ez dutenean (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, Laneko Estadistiken Buletina).

Erretiroa: langileei emandako biziarteko pentsioa, erregelamenduz ezarritako baldintzetan, zenbatekoan eta moduan, ezarritako adinera iristean, lana uzten dutenean edo dagoeneko utzi dutenean (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, [Laneko Estatistiken Buletina](#)).

Erretiroa: 65 urte betetzen dituzten, legez Espainian bizi diren eta errenta edo diru-sarrerera nahikorik ez duten pertsonentzako prestazioa (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, [Laneko Estatistiken Buletina](#)).

Heriotza eta biziraupena: langilea hiltzen denean ematen diren pentsioak dira, arrazoa dena dela, eta honako hauek dira: alarguntza-pentsioa, zurtasun-pentsioa eta biziarteko pentsioa edo aldi baterako sorospena, senideen alde (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, [Laneko Estatistiken Buletina](#)).

OHARRA: Errenta edo diru-sarrerak nahikoak direla ulertuko da, baldin eta haien batura, urteko konputuan, pentsioaren urteko zenbatekoa baino txikiagoa bada. Onuraduna bakarrik bizi bada, urteko zenbateko hori izango da baliabide-metaketa-aren muga. Bigarren mailaraino arteko odolkidetasunez edo adopzioz elkartutako senideekin —onuradunak izan ala ez— bizi badira, gurasoak eta seme-alabak izan ezik, baliabide-metaketa-aren muga prestazioaren urteko zenbatekoa gehi zenbateko horren ehuneko hirurogeita hamarra izango da, bizikide kopurua ken batekin biderkatuta. Guraso eta seme-alabekin bizi badira, muga hori bi aldiz eta erdi biderkatuko da (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, [Laneko Estatistiken Buletina](#)).

Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Derri-gorrezko Asegurua (ZBDA): 1967ko urtarrilaren 1a baino lehen (haren iraungitze-data) araubide honetan eskatutako kotizazio-aldia beteta zuten pertsonak jasotako pentsioak, edo, halakorik ezean, Nahitaezko Langile Erretiratuen araubide iraungira 1940a baino lehen afiliatuta egon zirenak, betiere interresdunek ez badute inolako pentsiorako eskubiderik Gizarte Segurantzako Sistema osatzen duten araubideen kontura. Motaren arabera, ZBDAko pentsioak ezintasun iraunkor, erretiro eta alarguntza gisa sailkatzen dira, dagokionaren arabera (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, [Laneko Estatistiken Buletina](#)).

Iturria: Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, [Laneko Estatistiken Buletina](#).

GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOPEKO PENSIOAK

3.1.

Espainiako lurralde osoan gertatzen den bezala (2018an, % 61,6), Euskal Autonomia Erkidegoan, kotizaziopeko pentsio gehienak (2018an, % 64,4, Espainia osoan baino ia 3 puntu gehiago) erretiro-pentsioen modalitatean sartzten dira. Zalantzarik gabe, erretiro-prestazioak dira Gizarte Segurantzaren kontribuzio-sistemaren ardatz nagusia; horren atzetik, oso urrun,

alarguntza-pentsioak daude, 2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan kotizaziopeko pentsio guztien % 24,6 izan baitziren (% 24,5 Espainian) (12. taula). Bi partida horiek Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen % 89 barne hartzen zuten, Espainian erregistratutako zifra (% 86,1) baino pixka bat gehiago. Ezintasun iraunkorragatiko eta zurtasun eta senideen aldeko pentsioek, aldiz, Espainiako lurralde osoan baino pisu zertxobait bat txikiagoa izango lukete: % 7,8, eta ez % 9,9, ezintasun iraunkorraren kasuan; % 3,2, eta ez % 4,0, zurtasun eta familiaren aldeko pentsioaren kasuan (12. taula).

Kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoen ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoa Espainia osoan jasotako batez besteko prestazioen gainetik dago beti, bai pentsioen zenbaketa orokorrean (2018an, Euskal Autonomia Erkidegoan 1.173 € izan ziren batez beste, eta Espainia osoan, berriz, 944,7 €), bai kotizaziopeko pentsioen modalitate guztietan (EAEn, 1.347,3 € izan ziren erretiro-pentsioetan eta 796,2 € alarguntza-pentsioetan, eta Espainian, berriz, 1.090,7 € eta 664,4 €, bi partida garrantzitsuenak aipatzearen) (12. taula). Euskal Autonomia Erkidegoa da, beraz, Espainia osoan kotizaziopeko pentsiorik handienak jasotzen diren autonomia-erkidegoa, bai termino orokorretan, bai dauden kontrataziopeko pentsioen modalitate desberdinetan (zurtasun eta familiaren aldeko pentsioak dira salbuespen bakarra, Asturiasen atzetik, EAE baita bere prestazioetan batez besteko zenbatekorik handiena ematen duen bigarren autonomia-erkidegoa) (12. taula).

12. TAULA. Kotizaziopeko pentsioen kopurua eta batez besteko zenbatekoa autonomia-erkidegoen arabera, 2018an (urteko batezbestekoa); sistemaren guztizkoa. Unitateak: milaka pentsio eta €.

AUTONOMIA- ERKIDEGOA	EZINTASUN IRAUNKORRA		ERRETIROA		ALARGUNTZA		ZURZTASUNA eta FAMILIAREN ALDEKOA		PENTSIOAK GUZTIRA	
	Zenbakia	Batez besteko p.	Zenbakia	Batez besteko p.	Zenbakia	Batez besteko p.	Zenbakia	Batez besteko p.	Zenbakia	Batez besteko p.
ANDALUZIA	206,7	872,9	869,5	983,0	390,0	622,5	79,8	386,2	1.546,0	846,5
ARAGOI	23,5	1020,6	192,5	1141,3	75,4	692,3	10,4	417,1	301,7	994,7
ASTURIAS	30,1	1096,1	178,5	1323,3	82,5	743,2	10,6	506,9	301,6	1.113,3
BALEAR U.	17,2	864,9	121,0	1003,7	44,3	602,6	6,3	343,8	188,8	874,9
KANARIAR UHARTEAK	40,7	875,0	176,8	1022,2	79,8	637,4	18,9	380,4	316,3	867,6
KANTABRIA	13,3	991,7	85,1	1159,7	35,6	685,4	5,8	457,8	139,8	993,8
GAZTELA ETA LEON	46,4	945,0	385,6	1070,3	155,9	654,6	23,4	440,6	611,2	930,6
GAZTELA-MANTXA	43,3	867,3	213,0	1005,8	96,5	659,3	17,5	400,3	370,4	870,7
KATALUNIA	165,4	1034,4	1107,5	1109,3	394,2	673,2	49,9	390,8	1.717,1	981,0
VALENTZIAKO E.	95,6	896,2	602,1	995,2	242,0	628,8	39,6	376,3	979,2	870,0
EXTREMADURA	26,4	789,0	126,2	899,6	61,2	621,0	11,9	394,8	225,7	784,6
GALIZIA	70,0	849,1	474,8	910,6	187,0	563,2	30,2	404,0	762,0	799,6
MADRIL	80,3	1030,4	758,6	1284,6	267,7	755,6	38,4	432,5	1.145,6	1.114,5
MURTZIA	31,8	844,6	139,7	963,7	61,5	610,9	12,5	373,2	245,4	829,8
NAFARROA	11,0	1121,4	89,7	1236,5	29,7	723,0	4,6	423,7	135,0	1.086,3
EAE	42,9	1212,9	355,2	1347,3	135,4	796,2	17,8	488,8	551,3	1.173,8
ERRIOXA	4,8	956,9	45,9	1035,8	16,1	653,6	2,1	396,3	69,0	921,1
Ceuta eta Melilla	2,2	1038,5	7,6	1160,3	5,0	698,4	1,6	323,1	16,4	920,6
GUZTIRA	951,8	946,2	5.929,5	1.090,7	2.359,9	664,4	381,3	405,0	9.622,5	944,7

Iturria: Lan, Immigrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Laneko Estatistiken Buletina.

Euskal Autonomia Erkidegoaren erretratu positiboa egin dugu (gutxienez gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta), baina horrek ez du esan nahi Autonomia Erkidego horretako gizarte-babeseko kontribuzio-sisteman tentsiorik ez dagoenik: ez babes-ahalmen orokorrari dagokionez bakarrik (gainerako autonomia-erkidegoetan baino batez besteko pentsio handiagoak egoteak ez du esan nahi prestazio horiek nahikoak direnik onuradunei bitzta duintzat bermatzeko —kostuaren bilakaeraren arabera—), baita barne hartzen dituen desorekei eta desberdintasunei dagokienez ere. Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioei buruzko datuak sexuaren eta Gizarte Segurantzarekiko lotura-araubideen arabera bereizten baditugu, esaterako (13. taula, 17. eta 18. grafikoak), egiazta dezakegu genero-arrakala nabarmena dela Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsio-sistamarako sarbidean. 2018an, adibidez, gizonak 1.491,81 €-ko batez besteko pentsioa jaso zuten hilean, eta emakumeek, berriz, 869,69 € hilean, hau da, 622 € gutxiago, gizonak jasotakoa baino ia % 42 gutxiago (13. taula).

13. TAULA. Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).


ARAUBIDEAK	GIZONAK		EMAKUMEAK		BI SEXUAK	
	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa
A. OROKORRA	208.339	1.619,89	193.933	1.003,61	402.277	1.322,78
LAAB	44.302	950,29	49.863	619,04	94.167	774,88
NEKAZARITZAKO AB (BESTEREN KONTURA) (1)	522	539,73	800	477,61	1.322	502,17
NEKAZARITZAKO AB (NORBERE KONTURA) (2)	457	506,40	976	428,60	1.433	453,43
ITSASOKO LANG. AB	6.866	1.524,33	5.110	731,53	11.976	1.186,06
MEATZARITZAKO AB	58	1.594,67	116	810,39	174	1.071,94
ETXEKO LANG. AB (3)	157	314,66	2.312	515,17	2.468	502,44
LAN-ISTRIPUAK	7.210	1.328,94	4.722	952,34	11.932	1.179,88
LANEKO GAIXOTASUNA	1.040	1.580,73	905	1.106,44	1.945	1.360,07
ZBDA (4)	1.681	396,48	27.174	377,86	28.854	378,94
GS SISTEMA, GUZTIRA	269.495	1.491,81	281.823	869,69	551.326	1.173,79

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

(1) 2010eko datuak. (2) 2009ko datuak. (3) 2013ko datuak. (4) Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurua: gaur egungo Gizarte Segurantzako sistema baino lehenagotik dagoen babes-araubidea.

Alde horiek Gizarte Segurantzako araubide guztietan errepikatzen dira (etxeke langileen araubidean izan ezik, bertan oso txikia baita gizonen presentzia), baita bermatzaileenetan ere: Araubide Orokorrean (1.620 €-ko batez besteko pentsioa gizonen kasuan eta 1.004 €-koa emakumeen kasuan), Meatzaritzako Araubide Berezian (1.595 €-ko batez besteko pentsioa gizonen kasuan eta 810 €-koa emakumeen kasuan) eta Itsasoko Langileen Araubide Berezian (1.524 €-ko batez besteko pentsioa gizonen kasuan eta 731 €-koa emakumeen kasuan) (13. taula, 17. eta 18. grafikoak).


17. GRAFIKOA. Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubideen eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

(1) 2010eko datuak. (2) 2009ko datuak. (3) 2013ko datuak. (4) Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurua: gaur egungo Gizarte Segurantzako sistema baino lehenagotik dagoen babes-araubidea.

18. GRAFIKOA. Kotizaziopeko pentsioak eta horien batez besteko zenbatekoa Gizarte Segurantzako araubide nagusien eta sexuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

(1) 2010eko datuak. (2) 2009ko datuak. (3) 2013ko datuak. (4) Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurua: gaur egungo Gizarte Segurantzako sistema baino lehenagotik dagoen babes-araubidea.

Ez daukagu arazo puntual bat, emakumeen presentzia handia izan daitekeen araubide berezi bati lotutakoa (Etxeko Langileen Sistema Bereziaren kasuan bezala), baizik eta pentsioen kontribuzio-sistema osoari eragiten dion desoreka bat. Desoreka hori aurreko apartatuetan aipatu ditugun emakumeen lan-merkatuko parte-hartzean metatutako desorekei dagokie (jarduerata-tasa txikiagoak, prekarietate-indize handiagoak, kotizazio-zenbateko baxuagoak, eta abar).

14. TAULA. Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen kopurua 2018an (urteko batezbestekoa), sexuaren eta zenbateko-tarteen arabera (sistema osoa): Unitatea: pentsio kopurua eta % (bertikalak)

ZENBATEKO-TARTEAK	PENTSIOAK GUZTIRA					
	Gizonak	Ehuneko bertikalak	Emakumeak	Ehuneko bertikalak	Guztira	Ehuneko bertikalak
Gehienez, 500 euro	19.017	7,1	68.913	24,5	87.930	15,9
500,01etik 1.000 eurora	58.454	21,7	133.860	47,5	192.314	34,9
1.000,01etik 1.500 eurora	66.263	24,6	46.132	16,4	112.395	20,4
1.500,01etik 2.000 eurora	52.104	19,3	16.469	5,8	68.573	12,4
2.000 euro baino gehiago	73.658	27,3	16.451	5,8	90.109	16,3
GUZTIRA	269.496	100,0	281.825	100,0	551.321	100,0

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

15. TAULA. Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen kopurua 2018an (urteko batezbestekoa), sexuaren eta zenbateko-tarteen arabera (sistema osoa): Unitatea: pentsio kopurua eta % (horizontalak).

ZENBATEKO-TARTEAK	PENTSIOAK GUZTIRA		
	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gehienez, 500 euro	19.017	68.913	87.930
% horizontalak	21,6	78,4	100,0
500,01etik 1.000 eurora	58.454	133.860	192.314
% horizontalak	30,4	69,6	100,0
1.000,01etik 1.500 eurora	66.263	46.132	112.395
% horizontalak	59,0	41,0	100,0
1.500,01etik 2.000 eurora	52.104	16.469	68.573
% horizontalak	76,0	24,0	100,0
2.000 euro baino gehiago	73.658	16.451	90.109
% horizontalak	81,7	18,3	100,0
GUZTIRA	269.496	281.825	551.321
% horizontalak	48,9	51,1	100

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Horren guztiaren emaitza gisa, gizonentzat eta emakumeentzat oso bestelakoak dira Euskal Autonomia Erkidegoko pentsioen kontribuzio-sistemak ematen dituen estaldura eta ber-

meak, eta emakumeek gehiegizko ordezkariak dute prestazio baxuenen tartean (14. eta 15. taulak); horrek zalantza jartzen du babes-mekanismo horien izaera berdinak (Espainian dauden garrantzitsuenak dira mekanismo horiek). 2018an, esaterako, 500 €-ra arteko kotizaziopeko prestazioak jasotako pentsio guztien % 16 izan ziren Euskal Autonomia Erkidegoan. Kotizaziopeko prestazio baxu horiek gizon pentsiodunen % 7,1i eragin zieten, eta emakume pentsiodunen % 24,5i; hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko lau emakume pentsiodunetarik batek gehienez ere 500 €-ko kotizaziopeko pentsioak jasotzen zituen hilean.

Zenbateko txikiagoko kotizaziopeko pentsioen artean (pentsio mota horren onuradunen % 78) emakumeen presentzia handia izateak (15. taula) zerikusia izan dezake, zalantzarik gabe, alarguntza-pentsioek emakumeengan duten inpaktu handiagoarekin. 2018an, alarguntza-pentsioak emakumeek 2018an jasotako pentsio guztien % 45 izan ziren (gizonen kasuan, berriz, % 3) eta, zenbateko txikiagoko pentsioen kasuan, alarguntza-pentsioek ere garrantzi handia izan zuten (zenbateko horretako pentsio guztien % 31,4; gizonen kasuan, berriz, % 22,7) (16. taula). Alarguntza-pentsioen inpaktuak eragin nabarmena du emakumeen artean, horiek jasotzen dituzten prestazioen zenbatekoak oro har txikiagoak baitira (prestazioen zenbatekoa handitu ahala, alarguntza-pentsioen pisua murriztu egiten da emakumeen artean) (16. taula), baina horrek ez du azaltzen, bere horretan, emakumeek prestazio-tarterik prekarioenetan duten gehiegizko ordezkariak. Izan ere, emakumeek jasotzen dituzten 500 €-ra arteko prestazio gehienak (% 57) erretiro-pentsioak dira (16. taula). Kotizaziopeko erretiro-prestazioen tartetik handienei dagokienez, esan dezakegu, 2018an, EAEko emakume pentsiodunen % 28k (4tik 1ek) bakarrik jaso zituztela hilean 1.000 €-tik gorako pentsioak, eta gizonen kasuan % 71,2koa izan zen zifra hori. Gainera, gizonen % 27,3k 2.000 €-tik gorako pentsioak jaso zituzten, eta emakumeen kasuan, berriz, % 5,8k (gizonak izan ziren 2.000 €-tik gorako pentsioak jaso zituzten onuradun guztien % 82) (15. eta 16. taulak).

16. TAULA. Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioen kopurua 2018an (urteko batezbestekoa), sexuaren, pentsio motaren eta zenbateko-tarteen arabera (sistema osoa). Unitateak: unitateak eta % (sexu bakoitzaren horizontala).

TRAMOS DE CUANTÍA	EZINTASUN IRAUNKORRA		ERRETIROA		ALARGUNTZA		ZURZTASUNA		FAMILIAKOEN ALDEKOA		PENSIOAK GUZTIRA		
	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gehienez, 500 euro % horizontala	2.395 12,6%	2.552 3,7%	6.628 34,9%	39.205 56,9%	4.319 22,7%	21.637 31,4%	5.408 28,4%	4.672 6,8%	268 1,4%	851 1,2%	19.017 100%	68.913 100%	87.930
500,01etik 1.000 eurora % horizontala	9.578 16,4%	5.856 4,4%	43.541 74,5%	50.796 37,9%	3.012 5,2%	74.545 55,7%	2.163 3,7%	2.125 1,6%	159 0,3%	538 0,4%	58.454 100%	133.860 100%	192.314
1.000,01etik 1.500 eurora % horizontala	7.767 11,7%	2.682 5,8%	56.523 85,3%	16.655 36,1%	1.338 2,0%	26.088 56,6%	518 0,8%	388 0,8%	116 0,2%	318 0,7%	66.263 100%	46.132 100%	112.395
1.500,01etik 2.000 eurora % horizontala	4.709 9,0%	1.440 8,7%	47.156 90,5%	10.715 65,1%	138 0,3%	4.189 25,4%	91 0,2%	75 0,5%	11 0,0%	49 0,3%	52.104 100%	16.469 100%	68.573
2.000 euro baino gehiago % horizontala	4.508 6,1%	1.434 8,7%	69.108 93,8%	14.890 90,5%	1 0,0%	96 0,6%	35 0,0%	24 0,1%	3 0,0%	10 0,1%	73.658 100%	16.451 100%	90.109
GUZTIRA % horizontala	28.957 10,7%	13.964 5,0%	222.956 82,7%	132.261 46,9%	8.808 3,3%	126.555 44,9%	8.215 3,0%	7.284 2,6%	557 0,2%	1.766 0,6%	269.496 100%	281.825 100%	551.321

Iturria: geuk eginkoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

17. TAULA. Gizarte Segurantzako ZBDA araubideko pentsioen kopurua eta batez besteko zenbatekoa, sexuaren eta pentsio motaren arabera. Euskal Autonomia Erkidegoa, 2018 (urteko batezbestekoa).

Pentsio mota	Emakumeak		Gizonak	
	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa (€)	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa (€)
Ezintasun iraunkorra	565	378,29 €	48	385,94 €
Erretiroa	25.278	377,21 €	1.591	398,05 €
Alarguntza	1.330	390,03 €	41	348,35 €
PENTSIOAK GUZTIRA	27.174	377,86 €	1.681	396,48 €

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta. Pentsioen hileko nomina.

Azkenik, eta dagoeneko iraungita dauden ZBDA pentsioei dagokienez (Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurua) (17. taula), agerikoa da EAEn ere horiek emakume-aurpegia dutela: 28.855 ZBDA pentsio guztien % 94,17 emakumeek jasotzen dituzte, eta % 5,82 gizonak. 2018an, ZBDA pentsio guztien % 87 emakumeen aldeko erretirokoak izan ziren (% 5,5 gizonen kasuan), % 4,6 alarguntzakoak (% 0,14 gizonen kasuan) eta % 1,9 emakumeen aldeko ezintasun iraunkorreko ZBDA pentsioak (% 0,16 gizonen artean). Horrez gain, kontuan hartu behar da ZBDA pentsioen zenbatekoa bereziki txikia dela: batez besteko pentsioa 377,86 €-koa da emakumeen kasuan, eta 396,48 €-koa gizonen artean. Horrenbestez, dagoeneko desagertuta dagoen Gizarte Segurantzako araubide horretako emakume pentsiodunak pobrezia-arriskuaren atalasean geratzen dira, argi eta garbi.

**ERRETIRO-PENTSIONA ETA
GENERO-ARRAKALA
EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOAN**

3.1.1.

Ehuneko horizontalei buruzko datuen arabera, eta kotizaziopeko erretiro-pentsioari dagokienez, 2018. urtean EAEn zeuden 355.217 erretiro-pentsiodunetatik % 62,76 gizonak ziren, eta % 37,23 emakumeak. Pentsiodunen artean gizonak gehiago izateaz gain, batzuen eta besteen arteko diferentziak oso agerikoak dira horiek jasotzen dituzten erretiro-pentsioaren zenbatekoari dagokionez. Izan ere, emakumeen % 68k pentsiorik txikienak jasotzen dituzten bitartean (1.000 euroraino), ehuneko hori, esanguratsua izan arren, % 22,49ra murrizten da gizonak jasotzen dituzten pentsioei dagokienez. Bestalde, erretiro-pentsio handienak, hau da, hilean 1.500 eurotik gorakoak, gizonen % 52,14k jasotzen dituzte, eta emakumeen % 19,35ek.

Hain zuzen ere, 2018an kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzen zuten 132.261 emakumeetatik, emakume pentsiodun guztien % 29,64k pentsiorik txikienak jasotzen zituzten, hau da, 500 eurora arteko pentsioak; % 38,4k hilean 500 eta 1.000 euro bitarteko pentsioa jasotzen zuten; eta pentsio horren gainerako onuradunek 1.000,01 eta 1.500 euro arteko zenbatekoak, % 12,59k, alegia; % 12,59k 1.500,01 eta 2.000 euro arteko zenbatekoak jaso zituzten

eta % 11,25ek, berriz, 2.000 eurotik gorakoak. Ehuneko horiek ez datoz bat EAEko gizonen erretiro-pentsioagatik jasotzen dituzten zenbatekoekin eta ehunekoekin: % 2,97k bakarrik jasotzen dituzte 500 eurotik beherako zenbatekoak, % 19,52k 500 eta 1.000 euro bitarteko erretiro-pentsioak, % 25,35ek 1.000,01 eta 1.500 euro bitarteko pentsioak, % 21,15ek 1.500,01 eta 2.000 euro bitartekoak, eta % 31k 2.000 eurotik gorakoak.


18. TAULA. Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera eta erretiro-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak

	Gizonak		Emakumeak		Gizon eta emakumeen arteko diferentziak	
	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Emakumeen pentsio kopurua gizonekin alderatuta	Gizonen batez besteko pentsioa emakumeekin alderatuta
2006	187.377	1.101,0 €	92.481	543,8 €	-94.896	557,3 €
2007	189.948	1.152,8 €	95.135	570,9 €	-94.814	582,0 €
2008	192.699	1.233,8 €	98.068	610,9 €	-94.631	622,9 €
2009	196.064	1.290,2 €	101.416	642,8 €	-94.648	647,4 €
2010	198.990	1.329,0 €	104.560	668,5 €	-94.431	660,5 €
2011	202.188	1.371,0 €	107.368	694,6 €	-94.819	676,4 €
2012	204.958	1.411,6 €	109.820	724,5 €	-95.139	687,1 €
2013	209.291	1.453,7 €	113.005	760,8 €	-96.286	692,9 €
2014	212.680	1.479,3 €	116.100	789,0 €	-96.580	690,3 €
2015	215.345	1.507,2 €	119.274	821,4 €	-96.071	685,8 €
2016	217.949	1.533,8 €	123.091	856,8 €	-94.857	677,0 €
2017	220.343	1.559,2 €	127.377	892,1 €	-92.966	667,1 €
2018	222.957	1.592,3 €	132.260	934,4 €	-90.697	657,8 €

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Azaldutako desberdintasunak errepikatu egiten dira 2006tik 2018ra bitartean Euskal Autonomia Erkidegoko erretiro-pentsioen batez besteko kopuruaren eta urteko batez besteko zenbatekoaren bilakaera-azterketa batetik lortzen diren datuei erreparaturaz gero (18. taula, 19. grafikoa). Izan ere, EAEn aldi horretan erretiro-pentsioen emakume onuradunen kopuruak progresiboki apur bat gora egin duen arren —2006an, % 33,04; 2008an, % 33,7; 2012an, % 34,8; 2014an, % 35,3; 2016an, % 36,09; eta 2018an, % 37,2—, generoen artean alde nabarmena ikusten da gizonek eta emakumeek erretiro gisa jasotzen dituzten zenbatekoetan. Desberdintasun hori arestian aipatutako faktore guztien ondorioa da, 2011tik gaur arte erretiro-pentsioan egindako aldaketekin.

19. GRAFIKOA. Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera (grafikoaren ezkerreko ardatza) eta erretiro-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera (grafikoaren eskuineko ardatza) Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Alde horretatik, adierazi behar da genero-arrakalaren eta kotizaziopeko erretiro-pentsioaren inguruan planteatzen den arazo nagusietako bat prestazio hori eskuratzeko zailtasunekin lotuta dagoela, erretiro-pentsioak 15 urteko gutxieneko kotizazio-aldia eskatzen baitu, eta horrez gain, erretiratu aurreko 15 urte horien barruan 2 urteko gabealdi espezifiko bat bete behar da. Oro har, urte gutxiago kotizatutako emakumeen aseguru-karreraren mota eta kotizazioen ohiko etenaldiak kontuan hartuz gero, esan genezake emakumeek zailtasun gehiago dituztela erretiro-pentsioa eskuratu ahal izateko. Egoera hori nahiko aldaezina da, nahiz eta neurriak hartu diren pentsioen zenbatekoa hobetzeko (baita erretiro-pentsioena ere), hala nola seme-alaben eta senideen eszedentziagatik aldiak kotizatutako aldi gisa aitortzea, edo txosten honen lehen atalean aipatu diren amatasunarekin lotutako kotizazio-fikzioak txertatzea. Dena dela, neurri horiek ez dira aplikatzen kotizaziopeko erretiro-pentsioa eskuratzeko behar diren gabealdiak zenbatzeko.

Era berean, erretiro-pentsioetan dagoen genero-arrakala murrizteko orduan ez dira batere lagungarriak izan azken erreformak; esaterako, erretiro-pentsioa eskuratzeko adina 65 urte-tik 67 urtera igoko da 2027tik aurrera, erretiro-pentsioa kalkulatzeko epea 25 urtera luzatu da, hutsuneak integratzeko sistema aldatu da eta kotizatutako urte kopurua handitu egin da, oinarri arautzailearen % 100era iristeko. Behin eta berriz azpimarratu da emakumeen kotizazio-karrerak eta lan-bizitzak laburragoak direla, eta gainera, eten egiten direla. Horren ondorioz, horien pentsioa gutxienera murrizten da kasu askotan. Aurrekoarekin batera jasangarritasun-faktorea ezartzen badugu, zeinak pentsioaren zenbatekoa bizi-itxaropenarekin lotzen baitu (oraindik ez da jarri abian, Toledoko Itunaren akordioaren jarraipen- eta ebaluazio-batzordean akordio bat hartu arte, gehienez ere 2023ko urtarrilaren 1eko epearekin, 6/2018 Legearen arabera), eta kontuan hartzen badugu batez beste emakumeak gizonak baino gehiago bizi direla, genero-arrakala bere horretan mantenduko da erretiro-pentsioan.

3.1.2.

Espainiako pentsio-sistemaren alderdi aipagarrienetako bat da erretiro-pentsioak izaera maskulino nabarmena duela eta alarguntza-pentsioak, berriz, izaera nabarmen femeninoa. Eredu horren arrazoiak dira, batetik, gizonak eta emakumeek lan-karreretan izan dituzten desberdintasunak, eta, bestetik, pentsio-sistemaren egitura bera eta emakumeen bizi-itxaropen handiagoa (Alaminos, 2018: 125).

Azaldutako datu orokorren arabera, eta alarguntza-pentsioari dagokionez (16. eta 19. taulak, 20. grafikoa), 2018an alarguntza-pentsioa jaso zuten 135.363 pertsonetatik % 93,4 emakumeak izan ziren eta % 6,5 gizonak. Alarguntza-pentsioak gehienbat emakumeek jasotzearen arrazoi bakarra ez da emakumeek bizi-itxaropen handiagoa dutela, badaude beste arrazoi batzuk ere: batetik, emakume askok ez dute pentsiorik sortu beren eskubidez —batez ere emakume adintsuenek—, edo, bestetik, emakume horiek, beren ezkontide edo bikoitek baino lehenago hiltzen direnean, ez dute sortu horientzako alarguntza-pentsiorako eskubiderik, ez dituztelako betetzen pentsioa izateko baldintzak, hain zuzen ere, gaixotasun arruntak eragindako heriotzaren kasuan, heriotzaren aurreko bost urteetan gutxienez 500 egun kotizatu behar izatea.


19. TAULA. Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera eta alarguntza-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak

	Gizonak		Emakumeak		Gizonen eta emakumeen arteko diferentziak	
	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Emakumeen pentsio kopurua gizonekin alderatuta	Gizonen batez besteko pentsioa emakumeekin alderatuta
2006	6.861	492,0 €	118.654	572,4 €	111.792	-80,4 €
2007	6.931	509,3 €	120.073	597,7 €	113.142	-88,5 €
2008	6.979	534,0 €	121.538	633,8 €	114.559	-99,8 €
2009	7.112	550,8 €	122.672	662,1 €	115.560	-111,3 €
2010	7.267	562,0 €	123.655	681,3 €	116.388	-119,3 €
2011	7.477	572,1 €	124.673	699,8 €	117.196	-127,7 €
2012	7.698	580,3 €	125.411	717,9 €	117.713	-137,6 €
2013	7.843	594,5 €	126.151	738,7 €	118.308	-144,2 €
2014	8.057	599,1 €	126.748	748,3 €	118.691	-149,2 €
2015	8.273	602,2 €	126.877	758,3 €	118.604	-156,1 €
2016	8.477	606,5 €	126.789	768,9 €	118.313	-162,5 €
2017	8.673	609,5 €	126.556	781,3 €	117.883	-171,8 €
2018	8.810	616,1 €	126.554	808,7 €	117.745	-192,6 €

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Ikus daitekeenez, alarguntza-pentsioaren onuradunek oso zenbateko txikiak jasotzen dituzte: horietatik % 17k 500 eurora arteko pentsio bat jasotzen dute, % 58,9k 500,01 eta 1.000 euro artekoa, eta % 20,6k 1.000,01 eta 1.500 euro artekoa. Praktikan, anekdotikoa da 1.500 eurotik gorako alarguntza-pentsioak jasotzen dituzten emakumeen kopurua; izan ere, % 3,31k soilik jasotzen dute 1.500,01 eta 2.000 euro arteko pentsio bat, eta % 0,07k bakarrik 2.000tik gorakoa. Errealitatea ez da ia ezer aldatu azken 12 urteetako datu historikoei erreparatuz gero; hala ere, alarguntza-pentsioen onuradunen kopuruak behera egin du zertxobait, eta beraz, gora egin du pentsio hori jasotzen duten gizonen kopuruak¹⁰.

20. GRAFIKOA. Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera (grafikoaren ezkerreko ardatza) eta alarguntza-pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera (grafikoaren eskuineko ardatza) Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Alarguntza-pentsioari dagokionez, azken 12 urteetan izandako bilakaerak eta pentsio horren onuradun diren gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunek erakusten dute, pixkanaka, emakumeen alarguntza-pentsiodunen ehunekoa zertxobait murriztu egin dela eta pentsio horren onuradun diren gizonen ehunekoak gora egin duela (19. taula, 20. grafiko). 2006an, emakume pentsiodunen ehunekoa % 94,4koa zen, eta gizonena, berriz, % 5,4koa (datu horiek ia bere horretan mantendu ziren 2010. urtera arte). Data horretatik aurrera, 2012an, emakumeen ehunekoa % 94,2ra jaitsi zen eta pentsio hori jasotzen zuten gizonen ehunekoa, aldiz, % 5,7ra igo zen. 2014an, emakumeen ehunekoa % 94koa izan zen eta gizonena % 5,9koa, eta arestian esan dugun moduan, gaur egun (2018an), emakume pentsiodunen ehunekoa % 93,4koa da eta gizona % 6,5koa (19. taula, 20. grafiko).

Alarguntza-pentsioa jasotzen duten kohorteen beherakada eta pentsio horren onuradun maskulinoen igoera korrelatiboa arrazoi honi dagokio: pixkanaka, kotizazio-karrera nahikoak dituzten gero eta emakume gehiago daude (gazteagoak), eta beraz, hiltzean, ezkontideari

¹⁰ Alarguntza-pentsioen bilakaerari dagokionez, ikus Blázquez Agudo (2017).

edo izatezko bikotekideari dagokion pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen dute; gainera, gizonen bizi-itxaropenaren igoerak nolabaiteko murrizketa eragin du alarguntza-pentsioetan.

Bestalde, gizonak eta emakumeak jasotzen dituzten urteko batez besteko zenbatekoei dagokienez, gizonak eta emakumeak alarguntza-pentsioari dagokionez jasotzen dituzten zenbatekoen pixkanakako igoera ikus daiteke kasu guztietan. 2018an, EAEko gizonak 616,1 €-ko batez besteko alarguntza-pentsioak izan zituzten, eta emakumeak, berriz, 808,7 €-koak (19. taula). Datua positiboa izan arren, kontuan hartu behar dugu, oro har, alarguntza-pentsioen zenbatekoak ez direla nahikoak. Izan ere, pentsioa kalkulatzeko orduan ehuneko bat aplikatzen da oinarri arautzailearen gainean, eta oinarri arautzaile hori % 52koa izaten da oro har, 65 urte edo gehiago dituzten eta % 70eko ehunekoa aplikatzeko baldintzak betetzen dituzten pertsonen kasuan salbu¹¹; baina oso gutxi dira, funtsean, horretarako eskatzen diren baldintzak edo betekizunak betetzea zaila delako.

Gainera, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, % 60ko ehunekoa aplika dakioke oinarri arautzaileari, onuradunak baldintza hauek betetzen dituenean: 65 urte edo gehiago izatea, Espainiako edo atzerriko pentsio publikorako eskubiderik ez izatea, besteren konturako edo norberaren konturako lanak egiteagatik diru-sarrerarik ez jasotzea, eta 7.569,00 eurotik gorako kapital higigarriaren edo higiezinaren errentarik, ondare-irabazirik edo jarduera ekonomikoen errentarik ez izatea¹².

EZINTASUN IRAUNKORRAGATIKO PENSIOA ETA GENERO-ARRAKALA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

3.1.3.

Euskal Autonomia Erkidegoko ezintasun iraunkorragatiko pentsioei dagokienez (20. taula, 21. grafikoa), 2018. urteko datuen arabera, guztira 42.921 dira indarrean dauden pentsioak. Horietatik % 67,47 (28.957) gizonak jasotzen dituzte, eta % 32,53 (13.964) emakumeak. Hau da, hartzaileen artean, gizonak emakumeen bikoitza baino gehiago dira.

11 Dagokion oinarri arautzailearen % 70, betiere pentsioa jasotzen den aldi osoan **baldintza** hauek betetzen badira:

1. **Pentsiodunak familia-kargak izatea.** Familia-kargak daudela ulertuko da, baldin eta: Pentsioduna 26 urtetik beherako seme-alabekin edo adin nagusiko ezinduekin edo harreraren hartutako adingabeekin bizi bada. Ondorio horietarako, ezintasuna dagoela jotzen da % 33ko ezintasuna edo handiagoa egiaztatzen bada. Familia-unitatearen urte osoko errendimenduak, pentsiodunarenak barne direla, familiako kide kopuruaren artean zatituta, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxiengo soldata baino % 75 baxuagoak badira, bi aparteko ordainsariren zati proportzionala kenduta.
2. Alarguntza-pentsioa diru-sarrera nagusia edo bakarra bada. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da pentsioaren urteko zenbatekoa pentsiodunaren diru-sarrera guztien % 50etik gorakoa bada. 3. **Pentsiodunaren urteko errendimenduen kontzeptu guztiak barne, gaintzen ez badute** ekitaldi ekonomiko bakoitzean kontribuzio-pentsioen gutxieneko osagarriak aitorzeko aurreikusita dagoen mugaren eta ekitaldi bakoitzean familia-kargak dituen gutxieneko alargun-pentsioari dagokion urteko zenbatekoaren batuketara. 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera, diru-sarreraren muga, urtean, 18.539,40 € dira (7.569,00 + 10.970,40). Urte osoko alarguntza-pentsioaren gehi pentsiodunaren urteko errendimenduen batuketak ezin du gaintu aurreko paragrafoko diru-sarreraren muga. Eta gaintzen badu, alarguntza-pentsioaren zenbatekoa gutxituko da, muga hori ez dadin gaintu. Eskatzen diren hiru eskakizun horiek batera bete behar dira. Horietako bat betetzen ez bada, % 52ko portzentajea aplikatuko da. Ondorioak baldintza betetzeari utzi zaion hilabetearren hurrengo hilabeteko 1. egunetik izango ditu. Hemendik eskuratutako informazioa: <http://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10964/10966/28489/28492#28617> (azken sarrera: 2019-11-22).

12 Hemendik eskuratutako informazioa: <http://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/Trabajadores/PrestacionesPensionesTrabajadores/10964/10966/28489/28492#28617> (azken sarrera: 2019-11-22).

2018an ezintasun iraunkorratiko pentsioak jasotzen zituzten emakume guztietatik % 60,21ek 1.000 €-ko edo hortik beherako pentsioak jaso zituzten; gizonen kasuan, berriz, ehuneko hori % 41,35era iristen da. Zenbateko handieneko pentsioen kasuan, hau da, 1.500 €-tik gorako pentsioen kasuan, emakumeen % 20,58k jasotzen ditu horrelako pentsioak. Ezintasun iraunkorratiko pentsioak jasotzen dituzten gizonen kasuan, % 31,83k jasotzen dituzte 1.500 €-tik gorako pentsioak. Hala, 2018an ezintasun iraunkorratiko pentsioak jaso zituzten 13.964 emakumeetatik % 18,28k 500 €-ra arteko pentsioak jaso zituzten, % 41,94k 500,01 eta 1.000 € artekoak, % 19,20k 1.000,01 eta 1.500 € artekoak, % 10,31k 1.500,01 eta 2.000 € artekoak, eta % 10,27k 2.000,01 €-tik gorakoak.

Gizonen kasuan, 2018an, % 8,27k 500 €-ra arteko ezintasun iraunkorratiko pentsioak kobratzen zituzten, % 33,07k 500,01 € eta 1.000 € bitarteko pentsioak, % 26,82k 1.000,01 eta 1.500 € artekoak, % 16,25ek 1.500,01 eta 2.000 € bitartekoak, eta % 15,56k 2.000 €-tik gorakoak. Horrenbestez, eta azaldu diren datuak ikusita, argi eta garbi ikus daiteke emakumeen ehunekoa handiagoa dela kopuru txikieneko tartetean (1.000 €-ra arte); gizonen kasuan, berriz, ehunekoa handiagoa da 1.000,01 €-tik gorako tartetean.

20. TAULA. Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera eta ezintasun iraunkorratiko pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak


	Gizonak		Emakumeak		Gizonen eta emakumeen arteko diferentziak	
	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Pentsio kopurua	Batez besteko pentsioa	Emakumeen pentsio kopurua gizonekin alderatuta	Gizonen batez besteko pentsioa emakumeekin alderatuta
2006	30.718	1.035,4 €	12.216	727,6 €	-18.502	307,8 €
2007	31.166	1.074,1 €	12.778	764,5 €	-18.388	309,6 €
2008	31.264	1.126,7 €	13.142	811,6 €	-18.122	315,1 €
2009	31.239	1.164,6 €	13.362	849,7 €	-17.877	314,9 €
2010	31.104	1.184,5 €	13.476	871,6 €	-17.629	312,9 €
2011	30.861	1.206,4 €	13.526	898,8 €	-17.335	307,6 €
2012	30.624	1.225,7 €	13.575	929,9 €	-17.049	295,8 €
2013	30.025	1.248,0 €	13.461	959,8 €	-16.564	288,2 €
2014	29.466	1.257,3 €	13.336	980,4 €	-16.130	276,9 €
2015	29.168	1.265,2 €	13.336	999,0 €	-15.832	266,2 €
2016	28.989	1.273,0 €	13.496	1.014,7 €	-15.492	258,3 €
2017	29.056	1.278,7 €	13.791	1.029,8 €	-15.265	248,9 €
2018	28.960	1.292,5 €	13.961	1.047,9 €	-14.999	244,6 €

Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Ezintasun iraunkorreko pentsioei dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko diferentziak aztertuz gero, pentsio horiek denboran zehar iraun dutela ikus genezake (20. taula, 21. grafikoa). 2006-2018 aldiari buruzko datuak hartzen baditugu, urte horietan egiaztatutako dife-

rentziak ikus ditzakegu, bai pentsio horiek jasotzen dituzten gizon eta emakumeen kopuruari dagokionez, bai haiek jasotzen dituzten batez besteko zenbatekoei dagokienez. Ezintasun iraunkorreko pentsiodunen kopuruari dagokionez, ikus genezake pentsio horiek jasotzen dituzten emakumeen kopuruak 2006tik 2018ra gora egin duela pixkanaka. 2006an, kopuru osoaren % 28,45 ziren; 2008an, % 29,59; 2010ean, % 30,23; 2012an, % 30,71; 2014an, % 31,16; 2016an, % 31,77; eta 2018an, % 32,53. Pentsio horien batez besteko zenbatekoei so eginez gero, aldi horretan gorakada bat izan bada ere eta gizonen batez besteko zenbatekoekiko aldea murriztu egin bada ere, genero-arrakalak bere horretan dirau gaur egun ere.

21. GRAFIKOA. Pentsiodunen batez besteko kopuruaren bilakaera (grafikoaren ezkerreko ardatza) eta ezintasun iraunkorragatiko pentsio guztien batez besteko zenbatekoaren bilakaera (grafikoaren eskuineko ardatza) Euskal Autonomia Erkidegoan, sexuaren arabera. 2006-2018. Unitatea: urteko batezbestekoak



Iturria: geuk eginikoa, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren datuetan oinarrituta.

Emakumeek ezintasun iraunkorreko kotizaziopeko pentsio gutxiago jasotzen dituzte, honako arrazoi hauengatik: lan-merkatuan duten presentziaren ezaugarriengatik (aipatu ditugu: jarduera-tasa txikiagoak, enplegu-tasa txikiagoak...), jarduera feminizatueta aitortu gabeko lanaren presentzia esanguratsuagatik (UGT, 2017) eta gaixotasun feminizatuak gutxietsi izanagatik¹³. Gainera, gaixotasun arrunten kasuan kotizazio-aldiak eskatzen zaizkie, eta horiek egiaztatzea zailagoa da, emakumeen kotizazio-karrerak direla-eta¹⁴. Emakumeek gizonen baino ezintasun iraunkorreko pentsio txikiagoak jasotzen dituzte, emakumeen diru-sarrera txikiagoak eta, gaixotasun arruntaren kasuan, pentsioa kalkulatzeko formula direla-eta, kon-tuan hartu beharreko elementuetako bat kotizatutako urte kopurua baita, eta hura txikiagoa izaten da emakumeen artean.

13 «Gaixotasun feminizatuak gutxietsi egiten direlako —fibromialgia edo beste zenbait gaitz psikiko— eta zeregin feminizatuak gutxietsi egiten direlako — etxeko lanak eta garbiketakoak, adibidez—» (Lousada Arochena, 2014: 239 puntu).

14 Kotizazio-aldi horiek onuradunak alta-egoeran dagoenean duen adinaren arabera izaten dira. Ezintasun iraunkor absolutua edo baliaezintasun handia altarik gabeko egoera batetik lortzen denean, gutxieneko kotizazio-aldia 15 urtekoa da.

2016. urtetik, lehen ikusitako erretiro-pentsioei, alarguntza-pentsioei eta ezintasun iraunkorreko pentsioei buruzko datuek, aplikatzekoa den kasuetan, amatasun-osagarria jasotzen dute; amatasun-osagarri hori 2016rako aurrekontu orokorren lege-proiektua zuzendu zuen urriaren 26ko 48/2015 Legeak sartu zuen, eta gaur egun Gizarte Segurantzako Lege Orokorren 60. artikulua jasotzen du. Legean txertatutako osagarri horren bidez, ama langileen ekarpen demografikoa aitortu nahi da, beren lan-bizitza bateragarri egin baitute amatasunarekin eta aipatutako pentsioetarako eskubidea sortzeko behar adina kotizazio-karrerekin. Horregatik, kotizaziopeko pentsio bakoitzagatik jaso behar dituzten zenbatekoei osagarri bat gehitzen zaie, % 5, 10 edo 15 artekoa, 2, 3 edo 4 seme-alaba —biologikoak edo adoptatuak— izan dituzten kontuan hartuta, hurrenez hurren.

Dena dela, eta aipatutakoari kalterik egin gabe, adierazi behar da, eskura dauden datu urriekin —Estatu osorako datu orokorrak dira gainera¹⁵—, ezin dela argi eta garbi zehaztu amatasun-osagarriak zenbateko eragina duen pentsioetako genero-arrakalan. Beraz, horrek esan nahi du ez ditugula ezagutzen osagarri horren onuradun kopurua —EAEn jasotako kotizaziopeko pentsio bakoitzerako—, aplikazio-ehunekoak edo zer zenbatekotan aplikatzen ari diren¹⁶. Horrela, badakigun arren 2018ko abuztuan aurkeztutako Gizarte Segurantzaren sistemako kotizaziopeko pentsioetan amatasun-osagarria aplikatzeko eta garatzeko Errege Dekretu proiektu bat dagoela, esan nahi dugu argi ikusten dela neurri hori ez dela nahikoa eta gizonak diskriminatzen dituela¹⁷, baina baita emakume batzuk beste emakume batzuen aldean ere. Horrela, bada:

Neurri hori 2016. urtetik aurrera kotizaziopeko pentsioen sisteman sartu diren eta gutxienez bi seme-alaba izan dituzten emakume langileei bakarrik dago bideratuta. Horrek esan nahi du neurri hori ez zaiela aplikatuko egun hori baino lehen osagarri hori lortzeko baldintzak betetzen zituzten emakumeei, neurriak ez baitu atzeraeraginik. Gainera, neurri horretatik

15 2019rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Proiektuari erantsitako ekonomia- eta finantza-txostenaren arabera (III. Liburukia, 233. or.), osagarria aplikatu zen bigarren urtean, 2017ko abenduan, 316.989 emakumek jaso zuten osagarria; 2018ko irailean, berriz, 452.132 emakumek jaso zuten. Hona hemen aurrekontu-proiektua: <https://www.sepg.pap.hacienda.gob.es/sitios/sep/ES/Presupuestos/PGE/ProyectoPGE2019/Paginas/ProyectoPGE2019.aspx>

16 Aipatutako txostenak jasotzen dituen datu orokorretatik haratago —horien arabera, 2018an amatasun-osagarria jaso duten pentsioen guztizko kopurua 40.788koa da ezintasun iraunkorraren kasuan, 186.792koa erretiro-pentsioaren kasuan edo 224.552koa alarguntza-pentsioaren kasuan, eta kasu bakoitzean osagarri horren bidez jasotzen diren batez besteko zenbatekoen kasuan (48,47 euro; 58,14 euro edo 59,12 euro, hurrenez hurren)—, ez dira ezagutzen oso garrantzitsuak diren beste datu batzuk, hala nola ehunekoak zenbat seme-alaba kontuan hartuta jasotzen diren edo zer zenbatekotan aplikatzen diren. Horregatik, txosten ekonomikoak berak adierazi arren neurri horien ezarpenak erretiro-pentsioetako genero-arrakala murriztu duela (2018an, % 21,1; 2015ean, % 25,2; edo 2010ean, % 33,6), ezin zaio —a priori— neurri horri egotzi hori lortu izana, betiere beste gogoeta batzuk kontuan hartu gabe, hala nola emakumearen lan-merkatuko presentzia handiagoa eta azken urteetan lan-merkatuan izan den egonkortasuna. Gauza bera esan behar da alarguntza-pentsioei dagokienez. Txostenaren arabera, 2018ko urtarriletik iraileira amatasun-osagarria zuten emakumeen alarguntza-pentsio berrien batez besteko zenbatekoak % 16an gaintzen zuen aitortuta ez zuten pentsioen zenbatekoa. Dena dela, a priori portzentaje-datu hori deigarria izan arren, egia da, halaber, alarguntza-pentsioen batez besteko zenbatekoetan edozein igoera eginez gero —oso baxuak izaten dira oro har—, batez besteko zenbatekoak erraz igotzen direla.

17 EBJAk berriki adierazi duen moduan, 2019ko abenduaren 12ko C-460/18 epaian, WA auzian, Luxenburgoko Auzitegiak aitortzen du Espainiako araudia ez datorrela bat Kontseiluaren 1978ko abenduaren 19ko 79/7/EEE Zuzentarauarekin; zuzentzarau hori gizarte-segurantzaren arloan gizonen eta emakumeen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa pixkanaka aplikatzeari buruzkoa da, eta sexuan oinarritutako desberdintasun justifikatu gabea ezartzen du. Espainiak ekarpen demografikoa dela-eta osagarri hori ezartzeko egindako alegazioak ez du justifikatzen tratu-desberdintasun hori, ez eta emakumei guraso gisa babesa ezartzea ere; izan ere, ezaugarri hori modu berean partekatzen dute gizonak eta emakumeek, eta beraz, aiten eta amen egoerak alderagarriak izan daitezke seme-alaben zaintzari dagokionez. Azkenik, EBJAk aitortu du zuzeneko sexu-diskriminazioa dagoela, amatasun-osagarriak ez duelako salbuespenik sortzen Batasuneko Zuzentarauan aurreikusitako zuzeneko sexu-diskriminazio ororen debekuari dagokionez: lehenik eta behin, amatasun-ean oinarritutako arrazoiengatik, hau da, zalantzan jarritako osagarria ematearen eta amatasun-baimena hartu izanaren arteko loturan oinarritutako tratu-desberdintasuna, edo emakume batek bere aseguru-karreraren jasaten dituen desabantailak justifikatzeagatik, erditu ondorengo aldiari jardueraren eten egin delako; eta bigarrenik, seme-alabak hezi dituzten pertsonen zaintzarako-asegurua arloan emandako abantailak Zuzentarauaren aplikazio-eremutik kanpo uzteko aukera izatea, eta seme-alaben hezkuntzak eragindako enplegu-etenaldien ondoren prestazioak jasotzeko eskubidea bereganatzea. Espainiako arauak ez du amatasun-osagarriaren lagapena baldintzatzen aipatutako salbuespenetan, eta beraz, Justizia Auzitegiak —berriz diogu— uste du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren jasotako araudia ez datorrela bat Batasuneko Zuzentarauarekin.

kanpo geratzen dira erretiro edo kotizatu gabeko ezintasunagatiko pentsio bat edo aldi baterako alarguntza-pentsio asistentzial bat jasotzen duten emakumeak, kotizaziopeko pentsiodunen ekarpen demografiko bera egin arren. Neurri hori ez da aplikatzen erretiro aurreratua interesdunaren beraren borondatez hartzen den kasuetan, ezta erretiro partzialetan, borondatezko erretiro aurreratuetan edo erretiro partzialetan ere (baina bai, azken kasu horretan, ohiko erretiro osoa hartzen duenean).

Kotizaziopeko pentsioetan genero-arrakala murrizteko orduan duten erabilgarritasunaren ikuspegitik, neurria guztiz eskasa dela esan genezake¹⁸. Oro har, eta aipatutako datuetan oinarrituz, pentsiorik baxuenek —kopuruari eta zenbatekoari dagokienez— emakume-aurpegiak dute, eta beraz, jaso beharreko zenbatekoen artean bereizketarik egiten ez duten ehunekoak aplikatzean, prestaziorik baxuenak jasotzen dituzten emakumeei oso gutxi handitzen zaizkie beren zenbatekoak; aldiz, zenbatekoak gehiago igotzen zaizkie prestazio handiagoak jasotzen dituzten emakumeei (emakume gutxi izanda ere). Beste modu batera esanda, pentsioak ez zaizkie igotzen premia handiena dutenei, baizik eta pentsio altuagoak dituztenei eta hobekuntzarik behar ez dutenei; are gehiago, kontuan hartzen badugu, pentsioen gehieneko zenbatekoetan ere aplika daitekeela.

KOTIZAZIORIK GABEKO ERRETIRO- ETA BALIAEZINTASUN- PENTSIOK

3.2.

Kotizaziorik gabeko modalitatean, baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren II. Kapitulu VI. Tituluan arautzen dira gaur egun. 1990ean lehen aldiz arautu zirenetik, horiek unibertsalizatzea zen pentsio horien helburua, eta hala da gaur egun ere, hau da, pentsioak herritar guztiei zabaltzea, inoiz ez kotizatu arren edo kotizaziopeko pentsioak lortzeko behar beste denbora ez kotizatu arren, betiere egiaztatzen baldin bada babestutako premia-egoera dagoela (zahartzarua, baliaezintasuna) eta legez eskatzen diren baldintzak betetzen direla, diru-sarrerarik ez egotearena, batez ere (Cavas Martínez, 2007). Ez da harrizkoa, beraz, kotizazio gabeko pentsioak «sistemaren elkartasunaren eta unibertsaltasunaren benetako elementu» bihurtu izana (Moreno-Manzanaro, 2004: 128).

Babes-sistemaren zati kuantitatibo honek aurrez aztertutako kotizaziopeko sistemak baino garrantzi txikiagoa badu ere (2018an, Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko sistemak 550.000 pentsio baino gehiago bereganatu zituen, eta kotizazio gabekoak, berriz, 12.000 baino gutxiago), behar bezala izan behar dugu kontuan. Izan ere, prestazio mota horren onuradunak dira gizartearen zatirik ahulenetako bat, eta horiek jasotzen dituzten pentsioen zenbatekoak oso baxuak dira —behin eta berriz azpimarratuko dugu—; horrenbestez, ez dira gastu arruntei aurre egiteko gai izaten. Kotizatu gabeko pentsio horiek Estatuak Gizarte Segurantzaren aurrekontuari egindako ekarpenean oinarritzen dira, eta urtero eguneratzen dira Estatuak Aurrekontu Orokorren Legearen bitartez. Bestalde, adierazi behar da kotizatu gabeko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak onuradunen aldeko eskubide subjektibo baten gisa araututa daudela, hau da, pertsonak GSLOk ezarritako baldintzak betetzen baditu, hari pentsioa eman behar zaio (Sanz Merino, 2010).

18 Ikus Errandonea Ulazia (2016).

Hala, baliaezintasun-pentsioa jaso ahal izateko, eskatzaileak 18 urte baino gehiago eta 65 urte baino gutxiago izan behar ditu; «legez Espainiako lurraldean bizi behar du eta bost urtez bizi behar izan du bertan, horietatik bi pentsioa eskatu baino lehen»; ezintasunen bat, % 65ekoa edo handiagoa, edo gaixotasun kronikoren bat izan behar du; eta ez du behar besteko errentarik edo diru-sarrerarik izan behar (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 363.1. artikulua). Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzeko eskubidea izateko, eskatzaileak honako baldintza hauek bete behar ditu: 65 urte beteta izatea, errentarik ez izatea, legez Espainiako lurraldean bizi izatea, eta «hamasei urtetik pentsioaren sortzapen-adinera bitartean, hamar urtez bertan bizi izana, horietatik bi prestazioa eskatu aurretik» (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren 369.1. artikulua).

KOTIZAZIO GABEKO BALIAEZINTASUN- ETA ERRETIRO-PENTSIOAK JASOTZEN DITUZTEN PERTSONAK

3.2.1.

Kotizazio gabeko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioak jasotzen dituzten pertsonen kopuruari dagokionez (21. taula), Estatuko onuradun kopuruaren bilakaera ikus daiteke, eta bertan ikus daitekeen moduan, datuak ez daude banatuta onuradunaren sexuaren arabera. Hala, kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak jasotzen dituzten Estatuko pertsonen kopurua aldatzen joan da urteetan zehar. 2006an, guztira 478.639 pertsonak jaso zituzten pentsio horiek eta, urteetan zehar hainbat gorabehera izan ondoren, 2018an 451.229 onuradun izan ziren guztira. Bien arteko konparazio orokor bat eginez gero, esan genezake kontribuzio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen duten pentsiodunen kopurua handiagoa dela kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa jasotzen dutenena baino. 2006an, esaterako, % 57,3k jaso zuten erretiro-pentsioa eta % 42,6k baliaezintasun-pentsioa; 2018an, berriz, % 56,8k jaso zuten erretiro-pentsioa, eta % 43,14k baliaezintasun-pentsioa.

21. TAULA. Indarrean dauden kotizazio gabeko pentsioen kopurua. Espainian, guztira, 2006tik 2018ra (urte bakoitzeko abenduko datuak).

URTEA	BALIAEZINTASUNA	ERRETIROA	GUZTIRA
2006	204.373	274.266	478.639
2007	201.751	267.702	469.453
2008	197.884	262.960	460.844
2009	196.782	258.873	455.655
2010	195.962	254.989	450.951
2011	194.704	253.259	447.963
2012	194.896	250.382	445.278
2013	196.626	250.527	447.153
2014	198.366	253.450	451.816
2015	199.518	254.029	453.547
2016	199.912	255.165	455.077
2017	197.988	256.690	454.678
2018(*)	194.672	256.557	451.229

Iturria: Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritza, *Gizarte Segurantzaren 2019ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuari buruzko txosten ekonomiko-finantzarioa*, 292. or. (*) Urriko nominen datuak.

22. TAULA. Indarrean dauden kotizazio gabeko pentsioen kopurua autonomia-erkidegoaren arabera (2018ko urtarrileko datuak).

AUTONOMIA-ERKIDEGOA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
ANDALUZIA	33.817	66.499	100.316
ARAGOI	2.392	4.932	7.324
ASTURIAS	3.147	5.762	8.909
BALEAR UHARTEAK	2.931	4.955	7.886
KANARIAR UHARTEAK	14.611	28.972	43.583
KANTABRIA	2.452	4.577	7.029
GAZTELA ETA LEON	7.394	14.459	21.853
GAZTELA-MANTXA	6.303	13.511	19.814
KATALUNIA	22.105	36.594	58.699
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	15.135	33.767	48.902
EXTREMADURA	3.765	9.616	13.381
GALIZIA	12.984	26.513	39.497
MADRIL	14.647	26.034	40.681
MURTZIA	5.290	9.859	15.149
NAFARROA	859	1.754	2.613
EAE	4.856	6.817	11.673
ERRIOXA	678	1.220	1.898
CEUTA	774	1.214	1.988
MELILLA	909	1.793	2.702
GUZTIRA	155.049	298.848	453.897

Iturria: Gizarte Segurantzaren Estatu Idazkaritza, *Gizarte Segurantzaren 2019ko ekitaldiko aurrekontu-proiektuari buruzko txosten ekonomiko-finantzarioa*, 294. or.

Autonomia-erkidegoen arabera (22. taula), 2018ko urtarrileko kotizazio gabeko pentsio kopuruari buruzko datuak kontuan hartuta, EAE taulako erdi-beheko postuan dago, pentsio horiek mota horretako pentsioen % 2,57 baitira; bestalde, Andaluzian, % 22,1 dira hartzaileak; Kanarietan, % 9,6; eta Katalunian, % 12,9. Dena dela, Nafarroako edo Errioxako datuen gainetik dago, horietan % 0,57 eta % 0,41 baitira, hurrenez hurren.

Txosten honen aztergaiari dagokionez, hau da, pentsioak genero-ikuspegitik aztertzen baditugu, nabarmendu beharreko lehen datu garrantzitsua da gizon baino emakume gehiagok jasotzen dituztela kotizazio gabeko erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak autonomia-erkidego guztietan (Ceuta eta Melilla hiri autonomoak barne). Are gehiago, autonomia-erkidego batzuetan, kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten emakumeen kopuruak bikoiztu egingen du gizonena. Horixe gertatzen da, esaterako, Aragoian, Gaztela-Mantxan, Valentzian, Extremaduran, Galizian eta Nafarroan. Andaluzian, Kanarietan, Gaztela eta Leonen, Errioxan, Ceutan eta Melillan ere ia bikoitza da emakumeen tasa. Hori dela-eta, esan genezake, zailtzarik gabe, Espainiako Estatuan, kotizazio gabeko pentsioek joera femenino nabarmena dutela; izan ere, gure herrialdean, historikoki, erretiro-adinean dauden emakume gehienek ez dute kotizaziopeko erretiro-eskubiderik, ez baitute berezko eskubiderik sortu, eta beraz, alarguntza-pentsio baten edo kotizazio gabeko zahartzaroko pentsio-eskubide baten titularrak baino ez dira izaten (Pumar Beltrán, 2012).

2018ko urtarrileko datuekin (22. taula), EAEn, emakumeak kotizazio gabeko pentsioen hartzaile nagusiak izan arren, emakume jasotzaileen kopuruaren (6.817) eta gizon jasotzaileen kopuruaren (4.856) arteko aldea gainerako autonomia-erkidegoetakoa baino txikiagoa da. EAEn, kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituztenen % 58,4 emakumeak dira eta % 41,6 gizonak; beraz, bien arteko aldea 16,8 puntukoa da. Gainerako autonomia-erkidegoetan, emakume hartzaileen eta gizon hartzaileen ehunekoen arteko diferentziak 22 puntutik gorakoak dira. Hala, honako hauek daude 22 eta 30 puntu arteko aldea duten autonomia-erkidegoen artean: Ceuta (22,13), Katalunia (24,69), Balear Uharteak (25,76), Madril (27,99), Errioxa (28,57) eta Asturias (29,35). Bestalde, 30 eta 40 puntu arteko aldea duten autonomia-erkidegoen artean honako hauek ditugu: Murtzia (30,17), Kantabria (30,23), Gaztela eta Leon (32,33), Andaluzia (32,5), Melilla (32,71), Kanariar Uharteak (32,95), Galizia eta Nafarroa (34,25), Aragoi (34,69), Gaztela-Mantxa (36,37) eta Valentziako Erkidegoa (38,1). Azkenik, gizonezko hartzaileen eta emakumezko hartzaileen arteko aldea 40 puntutik gorakoa da Extremaduran (43,73 puntuko aldea). Azken batean, eta kotizaziopeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen artean emakumeen joera mantentzen bada ere, bi sexuetako hartzaileen arteko aldea Euskal Autonomia Erkidegoan da txikiena.

23. TAULA. Kotizazio gabeko pentsioak (KGP), autonomia-erkidegoen eta sexuaren arabera. Datuak: unitateak eta ehunekoa. 2018ko abenduko datuak.

AUTONOMIA ERKIDEGOAK	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	Nº	%	Nº	%	Nº	%
ANDALUCÍA	33338	34,15	54292	65,85	97630	100
ARAGÓN	2404	33,18	4841	66,82	7245	100
ASTURIAS	3083	35,81	5526	64,19	8609	100
ILLES BALEARES	2958	37,54	4922	62,46	7880	100
CANARIAS	14657	33,9	28577	66,1	43234	100
CANTABRIA	2491	34,96	4634	65,04	7125	100
CASTILLA Y LEÓN	7474	34,35	14287	65,65	21761	100
CASTILLA-LA MANCHA	6262	32,29	13131	67,71	19393	100
CATALUNYA	22733	38,1	36940	61,9	59673	100
COMUNIDAD VALENCIANA	15382	31,51	33431	68,49	48813	100
EXTREMADURA	3768	28,76	9335	71,24	13103	100
GALICIA	12857	33,15	25927	64,85	38784	100
MADRID	15082	36,15	26636	63,85	41718	100
MURCIA	5457	35,36	98,7	64,4	15327	100
NAVARRA	923	33,55	1828	66,45	2751	100
PAÍS VASCO	4719	42,24	6454	57,76	11173	100
LA RIOJA	698	35,98	1242	64,02	1940	100
CEUTA	784	38,51	1252	61,49	2036	100
MELILLA	884	33,46	1758	66,54	2642	100
TOTAL ESTADO	155954	34,59	294883	65,41	450837	100

Iturria: Kotizatu gabeko pentsiodunen IMSERSOren fitxategi teknikoa.

IMSERSOk emandako datuak aztertuz gero (23. taula), ikus dezakegu, 2018. urtearen amaieran, autonomia-erkidego guztietan murriztu dela ehuneko alde hori, Ceutako eta Melillako bi hiri autonomoetan salbu, horietan gora egin baitu aldeak (0,85 eta 0,37 puntu, hurrenez hurren). Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, ehuneko alde hori 16,8 puntutik 15,52 puntura murriztu da, eta beraz, gizon eta emakume hartzaileen arteko aldea Autonomia Erkidego honetan da txikiena; izan ere, hura da emakume eta gizonen artean ehuneko 20 puntuko aldea baino txikiagoa duen autonomia-erkidego bakarra.

**KOTIZAZIO GABEKO
BALIAEZINTASUN- ETA
ERRETIRO-PENTSIORAK EUSKAL
AUTONOMIA ERKIDEGOAN**

3.2.2.

Euskal Autonomia Erkidegoko kotizazio gabeko pentsioei dagokienez, ikus dezakegu azken urteetan onuradunen kopuruak gora egin duela (24. eta 25. Taulak), bai kotizazio gabeko erretiro-pentsioetan (2012an, 4.520 izan ziren, eta 2018an, 5.602), bai baliaezintasun-pentsioetan (2012an, 5.788 izan ziren, eta 2018an, 6.244). Gainera, igoera horrek aurrekontu-partida horretara bideratutako zenbateko osoaren igoera eragin du, baina horrek ez du ondorio esanguratsurik izan batez besteko pentsioetan, oso gutxi hazi baitira: 344 €-tik (2012an) 364 €-ra (2018an), kotizazio gabeko erretiro-pentsioen kasuan, eta 363 €-tik (2012an) 405 €-ra (2018an), baliaezintasun-pentsioen kasuan (24. eta 25. taulak).

EAEren kasuan, azpimarratu behar da, kotizaziopeko pentsio baxuenekin gertatzen zen bezala, kotizazio gabeko erretiro-pentsioetan ere handiagoa dela emakumeen presentzia; izan ere, emakumeak dira pentsio horren onuradun guztien % 72,25. Ehuneko hori Espainia osoko datuetatik pixka bat beherago dago, baina, hala eta guztiz ere, genero-arrakala nabarmena da pentsio horretan.

**24. TAULA. Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa (Euskal Autonomia Erkidegoa).
Nominen onuradunak eta zenbatekoak (2012-2019).**

Hilabetea/Urtea	Pentsioak (*)	Zenbatekoak (€)	Batez besteko pentsioa (€)
2012	4.520	21.720.036,78	343,95
2013	4.662	22.868.531,68	348,13
2014	4.798	23.194.044,18	348,51
2015	4.981	24.497.653,07	356,40
2016	5.113	26.050.789,86	365,11
2017	5.405	26.270.956,20	352,31
2018	5.602	28.378.613,12	363,81
2019			
Enero	5.594	2.098.369,63	375,11
Febrero	5.666	2.179.914,83	384,74
Marzo	5.702	2.177.843,90	381,94
Abril	5.745	2.198.788,60	382,73
Mayo	5.744	2.178.847,94	379,33
Junio (**)	5.802	4.282.990,99	738,19

Iturria: IMSERSOren Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia. Prestazio Ekonomikoen Saila.

(*) Hilabete bakoitzeko lehen egunean indarrean zeuden pentsioak. (**) Hileroko ordainsiarekin batera, aparteko ordainsari bat ordaintzen da.

**25. TAULA. Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa Euskal Autonomia
Erkidegoan. Nominen onuradunak eta zenbatekoak (2012-2019).**

Hilabetea/Urtea	Pentsioak (*)	Zenbatekoak (€)	Batez besteko pentsioa (€)
2012	5.788	29.267.490,36	362,68
2013	5.978	32.289.167,12	400,23
2014	6.108	32.932.886,84	387,01
2015	6.165	33.750.542,82	390,46
2016	6.286	33.587.274,31	380,06
2017	6.312	34.932.106,25	391,71
2018	6.244	35.836.414,03	404,55
2019			
Enero	6.240	2.614.630,48	419,01
Febrero	6.276	2.645.131,27	421,47
Marzo	6.285	2.652.530,61	422,04
Abril	6.238	2.633.135,05	422,11
Mayo	6.200	2.622.535,36	422,99
Junio (**)	6.216	5.133.212,08	825,81

Iturria: IMSERSOren Kudeaketako Zuzendariordetza Nagusia. Prestazio Ekonomikoen Saila.

(*) Hilabete bakoitzeko lehen egunean indarrean zeuden pentsioak. (**) Hileroko ordainsiarekin batera, aparteko ordainsari bat ordaintzen da.

Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioekin ez da gauza bera gertatzen, kasu honetan gizonak nagusitzen baitira (% 55,67). Dena dela, kasu honetan sexuen arteko aldea ez da kotizazio gabeko erretiro-pentsioaren kasuan bezain deigarria (26. taula). Espainiako gainerako lekuetan aldea oso txikia izan arren, baliaezintasun-pentsioa jasotzen dutenen artean oraindik ere handiagoa da emakumeen ehunekoak. Gaur egun sexuen arteko aldea oso txikia bada ere, ezin dugu ahaztu emakumeek gizonak baino bizi-itxaropen handiagoa dutela, baina «desgaitasunik gabeko bizi-itxaropen horren proportzioa emakumeentzat txikiagoa dela» (Chinchilla, 2014; Benito Benítezek egindako aipamena, 2019).

26. TAULA. Kotizazio gabeko pentsioak Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainia osoan, sexuaren eta pentsio motaren arabera. 2018ko abenduko datuak.

KOTIZAZIO GABEKO ERRETIRO-PENTSIOA (*)						
	GIZONAK		EMAKUMEAK		GUZTIRA	
	nº	%	nº	%	nº	%
EAE	1.492	27,75%	3.884	72,25%	5.376	100,00%
ESPAINIAN, GUZTIRA	62.354	24,20%	195.309	75,80%	257.663	100,00%
KOTIZAZIO GABEKO BALIAEZINTASUN-PENTSIOA						
EAE	3.227	55,67%	2.570	44,33%	5.797	100,00%
ESPAINIAN, GUZTIRA	93.600	48,45%	99.574	51,55%	193.174	100,00%

Iturria: Kotizatu gabeko pentsiodunen IMSERSOren fitxategi teknikoa.

(*) Erretiro-pentsiodunak eta baliaezintasunak eragindako erretiro-pentsiodunak sartzen dira.

Pentsiodunaren profila, sexuaren eta adin-tarteen arabera

Kontribuzio gabeko erretiro-pentsioari buruzko taulan sexuaren eta adin-tarteen arabera agertzen diren datuak ikusita (27. taula), ikus daiteke pentsio hori jasotzen duten gizonen ehunekorik handiena (% 69,03) lehen bi adin-tarteetan sartzen dela (65 urtetik 74 urtera), eta gainerako % 30,97a, berriz, azken hiru tarteetan (75 urtetik 84 urtetik gora).

Emakumeen kasuan, hartzaille gehienak lehen bi tarteetan egon arren (% 51,49), bi tarteetan arteko aldea oso txikia da, ehuneko 2,99 puntukoa, hain zuzen ere; gizonen kasuan, berriz, 38,06 puntukoa da aldea. Bestalde, lehen bi tarteetan gizon hartzailleen ehunekoak emakume hartzailleen ehunekoak gainditzen badu ere, hirugarren tartetik aurrera aldaketa bat gertatzen da, eta emakumeek gizonak gainditzen dituzte azken hiru tarteetan. Fenomeno hori Estatu osoan errepikatzen da, emakumeen bizi-itxaropen handiagoa dela-eta.

27. TAULA. Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa, sexuaren eta adin-tarteen arabera.

	65-69 URTE		70-74 URTE		75-79 URTE		80-84 URTE		>84 URTE		EZ DAGO JASOTA		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GIZONAK	475	38,62	374	30,41	178	14,47	142	11,54	61	4,96	0	0	1.230	100
EMAKUMEAK	826	24,7	896	26,79	569	17,02	575	17,19	478	14,29	0	0	3.344	100
GUZTIRA	1.301	28,44	1.270	27,77	747	16,33	717	15,68	539	11,78	0	0	4.574	100
GIZONAK	15.086	31,39	13.898	28,92	8.097	16,85	6.643	13,82	4.327	9,00	3	0,01	48.054	100
EMAKUMEAK	33.387	21,9	39.628	25,99	29.893	19,6	29.191	19,14	20.378	13,36	1	0	152.478	100
GUZTIRA	48.473	24,17	53.526	26,69	37.990	18,94	35.834	17,87	24.705	12,32	4	0	200.532	100

Iturria: Kotizatu gabeko pentsiodunen IMERSOren fitxategi teknikoa (2018ko abenduko datuak).

28. TAULA. Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa, sexuaren eta adin-tarteen arabera.

	18-24 URTE		25-29 URTE		30-34 URTE		35-39 URTE		40-44 URTE		45-49 URTE		50-54 URTE		55-59 URTE		60-64 URTE		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GIZONAK	122	3,78	151	4,68	214	6,63	280	8,68	500	15,49	529	16,39	630	19,52	498	15,43	303	9,39	3.227	100
EMAKUMEAK	68	2,65	98	3,81	144	5,6	180	7	337	13,11	429	16,69	527	20,51	445	17,32	342	13,31	2.570	100
GUZTIRA	190	3,28	249	4,3	358	6,18	460	7,94	837	14,44	958	16,53	1157	19,96	943	16,27	645	11,13	5.797	100
GIZONAK	4.583	4,9	5.800	6,2	7.388	7,89	9.653	10,31	12.715	13,58	14.715	15,72	15.736	16,81	13.302	14,21	9.708	10,37	93.600	100
EMAKUMEAK	3.211	3,22	3.951	3,97	5.219	5,24	7.302	7,33	10.896	10,94	14.627	14,69	18.137	18,21	18.797	18,88	17.434	17,51	99.574	100
GUZTIRA	7.794	4,03	9.751	5,05	12.607	6,53	16.955	8,78	23.611	12,22	29.342	15,19	33.873	17,53	32.099	16,62	27.142	14,05	19.3174	100

Iturria: Kotizatu gabeko pentsiodunen IMERSOren fitxategi teknikoa (2018ko abenduko datuak; 65 urtetik gorako onuradunak bakarrik sartzen dira).

Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoan, prestazio hori jasotzen duten gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa da, Estatuan ez bezala. Sexuaren eta adin-tarteen arabera banatuta dagoen baliaezintasun-pentsiodunen profilaren taula aztertuz gero (28. taula), ikus dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoan, hartzaile guztiak kontuan hartuta, 40 urtetik aurrera jauzi nabarmena gertatzen dela pentsio hori jasotzen duten pertsonen ehunekoetan (6,5); Estatuko gainerako lekuetan ere gertatzen da hori, baina ehunekoan aldea txikiagoa da horietan (3,44 puntura iristen da). 40-44 urteko adin-tartera arte (biak barne), pentsio hori jasotzen duten gizonen ehunekoa emakumeena baino handiagoa da. Hala ere, 45-49 urteko adin-tartetik aurrera, egoera aldatu egiten da, eta emakumeak dira pentsio hori gehien jasotzen dutenak. Estatuan ere gertatzen da aldaketa hori, baina 50-54 urteko adin-tartetik aurrera.

Pentsiodunaren profila, sexuaren eta egoera zibilararen arabera

Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen duten pertsonen profilari buruzko datuak sexuaren eta egoera zibilararen arabera aztertuz gero (29. taula), ikus dezakegu, Euskal Autonomia Erkidegoko gizonen artean, ezkongabeak eta ezkonduak direla pentsio mota hori gehien jasotzen dutenak: % 37,89 eta % 33,74, hurrenez hurren (% 71,63, bien artean). Izan ere, ehunekoak nabarmen txikiagoak dira alargunen artean (% 4,63), dibortziatuen artean (% 17,48) eta bananduen artean (% 6,26). Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen kasuan, ezkongabeak eta ezkonduak jasotzen dituzte kotizazio gabeko erretiro-pentsio gehienak (% 23,39 eta % 26,29, hurrenez hurren), baina bien batura ez da iristen pentsio hori jasotzen duten emakume guztien % 50era (% 49,68); egoera berean dauden gizonak, berriz, pentsio hori jasotzen duten guztien % 71,63 osatzen dute. Gainera, gizonen kasuan ezkongabeak dira pentsio hori gehien jasotzen dutenak, eta ezkonduak ditugu horien atzetik; emakumeen kasuan, aldiz, emakume ezkongabeak dira pentsio hori gehien jasotzen dutenak, eta emakume ezkongabeak ditugu horien ondoren. Datu horiek ikusita, aipatutako errealitatea azal dezakeen arrazoi bat honako hau izan daiteke: Euskal Autonomia Erkidegoan, emakume ezkongabeak behar adina denbora egin dute lanean, eta beraz, kotizaziopeko erretiro-pentsioa jasotzeko berezko eskubidea sortzea lortu dute.

Emakume ezkonduak dagokienez, egoera horren arrazoiak izan daiteke emakume horiek ez dutela kotizatu eta/edo kotizaziopeko erretirorako berezko eskubidea sortzeko behar adina ez dutela kotizatu. Hala ere, nabarmendu behar da aldea handia dela Euskal Autonomia Erkidegoan ezkonduak emakume hartzaileen ehunekoa (% 28,29) Estatuko gainerako tokietan ezkonduak emakume hartzaileen ehunekoarekin (% 53,15) alderatuz gero; izan ere, Estatuan pentsio hori jasotzen dutenen % 50 baino gehiago emakume ezkonduak dira, eta horien atzetik, egoera zibil desberdinetako emakumeak ditugu, oso atzetik. Horrenbestez, pentsioa daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko emakume ezkonduak Estatuko gainerako emakumeek baino gehiago lan egin, kobratu eta, beraz, kotizatu dutela, baldintza beretan. Egoera bera errepikatzen da ezkonduak gizonen kasuan; beraz, esan dezakegu EAEko ekoizpen-sarea mesedegarriagoa dela eta izan dela, oro har, emakumeek eta gizonak mota horretako kotizaziopeko pentsio bat eskuratzeko orduan. Bestalde, emakume alargunen, dibortziatuen eta bananduen ehunekoari erreparatuz gero, esan daiteke, ehunekotan, emakumeak direla pentsio horiek jasotzen dituztenen ia erdiak (% 44,43); egoera berean dauden gizonak, berriz, EAEn prestazio hori jasotzen duten pertsona guztien % 38,37 izango lirateke.

Horien artean, alargunen eta bananduen artean daude diferentzia handienak. Horrek esan nahi du, aurreikusitako daitekeen moduan, egoera horietan dauden gizonak emakumeek baino gehiago eskuratu ahal izan dutela kotizaziopeko erretiro-pentsio bat. Bestalde, eta emakumeek dagokienez, oso esanguratsua da kotizazio gabeko erretiro-pentsioa jasotzen duten emakume alargunen ehunekoa, kotizazio gabeko pentsioa jasotzen duten emakume guztien % 12,09k jasotzen baitute (alargunen % 4,63k). Horrek esan nahi du emakume horiek gizonak baino gehiagotan egiten dituztela bateragarri kotizaziopeko alarguntza-pentsioak (jasotzen dutenean) eta kotizazio gabeko erretiro-pentsioak.

29. TAULA. Kotizazio gabeko erretiro-pentsioa, sexuaren eta egoera zibilararen arabera.

	EZKONGABEA		EZKONDUA		ALARGUNA		DIBORTZIATUA		BANANDUA		EZ DAGO JASOTA		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GIZONAK	466	37,89	415	33,74	57	4,63	215	17,48	77	6,26	0	0	1230	100
EMAKUMEAK	782	23,39	879	26,29	496	14,83	723	21,62	464	13,88	0	0	3344	100
GUZTIRA	1248	27,28	1294	28,29	553	12,09	938	20,51	541	11,83	0	0	4574	100
GIZONAK	14079	29,3	21742	45,24	2419	5,03	6708	13,96	2993	6,23	113	0,24	48054	100
EMAKUMEAK	23582	15,47	81049	53,15	15854	10,4	21037	13,8	10742	7,04	214	0,14	152478	100
ESPAINIA	37661	18,78	102791	51,26	18273	9,11	27745	13,84	13735	6,85	327	0,16	200532	100

Iturria: Kotizatu gabeko pentsiodunen IMSEROren fitxategi teknikoa (2018ko abenduko datuak).

30. TAULA. Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioa, sexuaren eta egoera zibilararen arabera.

	EZKONGABEA		EZKONDUA		ALARGUNA		DIBORTZIATUA		BANANDUA		EZ DAGO JASOTA		GUZTIRA	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
GIZONAK	2736	84,78	262	8,12	19	0,59	148	4,59	58	1,8	4	0,12	3227	100
EMAKUMEAK	1619	63	433	16,85	79	3,07	285	11,09	151	5,88	3	0,12	2570	100
GUZTIRA	4355	75,13	695	11,99	98	1,69	433	7,47	209	3,61	7	0,12	5797	100
GIZONAK	76552	81,79	10443	11,16	421	0,45	3916	4,18	2110	2,25	158	0,17	93600	100
EMAKUMEAK	50552	50,77	30493	30,62	1573	1,58	10715	10,76	6059	6,08	182	0,18	99574	100
GUZTIRA	127104	65,8	40936	21,19	1994	1,03	14631	7,57	8169	4,23	340	0,18	193174	100

Iturria: Kotizatu gabeko pentsiodunen IMSEROren fitxategi teknikoa (2018ko abenduko datuak; 65 urtetik gorako onuradunak bakarrik sartzen dira).

Sexuaren eta egoera zibilaren arabera banatutako kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioari buruzko datuei dagokienez (30. taula), lehenik eta behin, adierazi behar da kotizazio gabeko pentsio hori jasotzen duten gehienak —zalantzarik gabe— ezkongabeak direla —gizon zein emakume—, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Estatuan; hala ere, emakume eta gizon ezkongabeen arteko aldea txikiagoa da Euskal Autonomia Erkidegoan (21,78 puntu) Estatuan baino (ehuneko 31,02 puntuko aldea). Baliaezintasun-pentsio hori ezkongabeek jasotzen dute batik bat, jarraian adierazten den arrazoi hauetako batengatik edo gehiagorengatik. Alde batetik, pentsa daiteke baliaezintasuna duten eta pentsio hori jasotzeko eskubi-dea duten pertsonak (ezintasunen bat edo gaixotasun kronikoren bat dutelako, ehuneko 65eko edo hortik gorako graduan) ez direla ezkontzera edo bikotekidearekin bizitzera iristen; eta, beste alde batetik, egoera jakin batzuetan ez dutelako zainduko dituen inor.

Pentsio hori jasotzen duten eta ezkondua, alargun, dibortziatuta edo bananduta dauden pertsonen buruzko datuak aztertuz gero, ikus daiteke emakume hartzaileen ehunekoak murriztu edo handitu egiten direla haien egoera zibilaren arabera. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoan, ezkondua dauden gizon hartzaileak % 8,12 dira eta emakume ezkonduak % 16,85; gizon alargunak % 0,59 dira eta emakume alargunak % 3,07; gizon dibortziatuak % 4,59 dira eta emakume dibortziatuak % 11,09; eta azkenik, gizon bananduak % 1,8 dira, eta emakume bananduak % 5,88.

Txostenaren zati honetan ateratako datuetatik ondorio hauek atera daitezke:

- Euskal Autonomia Erkidegoan, kotizaziopeko pentsio gehienak erretirokoak dira, eta gero, alarguntza-pentsioak, baina erretiro-pentsioetatik oso urrun. Kotizaziopeko pentsioen batez besteko zenbatekoen ikuspegitik, Euskal Autonomia Erkidegoa da kotizaziopeko pentsio handienak jasotzen diren Espainia osoko autonomia-erkidegoa, bai termino orokorretan, bai dauden kotizaziopeko pentsioen modalitateei dagokienez.
- Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko kotizaziopeko pentsioei buruzko datuak sexuaren eta Gizarte Segurantzarekiko lotura-araubidearen arabera bereiziz gero, argi eta garbi ikus daiteke genero-arrakala nabarmena dagoela Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioen sistemarako sarbidean. 2018an, eta pentsioen batez besteko zenbatekoak aintzat hartuta, hura % 42koa izango litzateke, pentsiodun emakumeen kaltetan.
- Oro har, emakumeek gehiegizko ordezkartza dute kotizaziopeko prestazioen tarterik baxuenetan, eta ez alarguntza-pentsioaren onuradun diren emakume gehiago daudelako bakarrik, baizik eta zenbateko txikiagoko erretiro-pentsioak jasotzen dituzten emakumeen presentzia oso handia delako. 2018. urtean, adibidez, EAEko erretiroko emakume pentsiodunen % 28k edo % 5,8k bakarrik jaso zituzten 1.000 €-tik edo 2.000 €-tik gorako pentsioak, hurrenez hurren, eta gizonen kasuan, berriz, % 71,2k edo % 27,3k, tarte berdinetan.
- Zehazki, eta kotizaziopeko erretiro-pentsioari dagokionez, sexuen arteko desberdintasunak mantendu egiten dira 2006tik 2018ra Euskal Autonomia Erkidegoko erretiro-pentsioen batez besteko kopuruaren eta erretiro-pentsioen urteko batez besteko zenbatekoaren bilakaera-azterketan jasotako datu objektiboari erreparatuz gero. Hala ere, EAEn erretiro-pentsioak jasotzen dituzten emakumeen kopuruak zertxobait gora egin du, pixkanaka, urte hauetan zehar, baita horiek jasotako batez besteko pentsioek ere.
- EAEn, Espainiako gainerako lekuetan bezala, alarguntza-pentsioak emakume-aurpegia du. 2018an, pentsio horren onuradun guztien % 93,4 emakumeak ziren, eta % 6,5

gizonak. Onuradunek jasotako zenbatekoei dagokienez, adierazi behar da, oro har, emakumeek oso zenbateko txikiak jasotzen dituztela. Emakumeen % 75,9k 1.000 eurotik beherako pentsioak jasotzen dituzte, eta % 3,38k 1.500,01 eurotik gorakoak. Gainera, errealitate hori ez da ia ezertxo ere aldatu, azken 12 urteetako datu historikoak aintzat hartuta. Nolanahi ere, emakume onuradunen kopurua murriztu egin da, eta beraz, pentsio hori jasotzen duten gizonen kopurua handitu. Bestalde, gizonak eta emakumeak jasotzen dituzten urteko batez besteko zenbatekoei dagokienez, gizonak eta emakumeak alarguntza-pentsioetatik jasotzen dituzten zenbatekoen nolabaiteko igoera ikus daiteke kasu guztietan.

- Euskal Autonomia Erkidegoko ezintasun iraunkorratiko pentsioei dagokienez, 2018. urteko datuen arabera, guztira 42.921 dira indarrean dauden pentsioak. Horietatik % 67,47 (28.957) gizonak jasotzen dituzte, eta % 32,53 (13.964) emakumeek. Hau da, hartzaileen artean, gizonak emakumeen bikoitza baino gehiago dira. Erretiro-pentsioaren kasuan bezala, ezintasun iraunkorratiko pentsioan ere genero-arrakala dagoela egiaztatzen da. Kasu horretan ere emakumeen ehunekoa handiagoa da zenbateko txikieneko tarteetan (1.000 €-raino), eta gizonen kasuan, berriz, ehunekoa handiagoa da 1.000,01 €-tik gorako tarteetan. Ezintasun iraunkorreko pentsiodunen kopuruak azken urteetan izan duen bilakaerari dagokionez, pentsio horiek jasotzen dituzten emakumeen kopurua handitu egin da pixkanaka 2006tik 2018ra; era berean, gora egin dute gizonak eta emakumeak jasotako batez besteko zenbatekoek ere. Hori dela-eta, aldea txikiagotu egin da gizonen batez besteko zenbatekoei dagokienez, baina, berriz diogu, genero-arrakalak bere horretan dirau oraindik.
- Kotizazio gabeko baliaezintasun- eta erretiro-pentsioei dagokienez, esan behar da, EAEn (2018ko datuak), kotizazio gabeko pentsioak jasotzen zituzten pertsonen % 58,4 emakumeak zirela eta % 41,6 gizonak. Dena dela, esan behar da sexuen arteko alde hori txikiagoa dela EAEn gainerako autonomia-erkidegoetan baino.
- Euskal Autonomia Erkidegoko kotizazio gabeko pentsioei dagokienez, azken urteetan onuradunen kopuruak gora egin duela ikus dezakegu, bai kotizazio gabeko erretiro-pentsioetan (2012an 4.520 izan ziren, eta 2018an 5.602), bai baliaezintasun-pentsioetan (2012an 5.788 eta 2018an 6.244). Gainera, igoera horrek aurrekontu-partida horretara bideratutako zenbateko osoaren igoera eragin du, baina horrek ez du ondorio esanguratsurik izan batez besteko pentsioetan, oso gutxi hazi baitira: 344 €-tik (2012an) 364 €-ra (2018an), kotizazio gabeko erretiro-pentsioen kasuan, eta 363 €-tik (2012an) 405 €-ra (2018an), baliaezintasun-pentsioen kasuan.
- EAEn kasuan, azpimarratu behar da, kotizaziopeko pentsio baxuenekin gertatzen zen bezala, kotizazio gabeko erretiro-pentsioetan ere handiagoa dela emakumeen presentzia; izan ere, emakumeak dira pentsio horren onuradun guztien % 72,25. Ehuneko hori Espainia osoko datuetatik pixka bat beherago dago, baina, hala eta guztiz ere, genero-arrakala nabarmena da pentsio horretan.
- Kotizazio gabeko baliaezintasun-pentsioekin ez da gauza bera gertatzen, kasu honetan gizonak nagusitzen baitira (% 55,67). Dena dela, kasu honetan sexuen arteko aldea ez da kotizazio gabeko erretiro-pentsioen kasuan bezain deigarria.

L

LABURPENA

Gizarte Segurantzako sistemen helburu nagusietako bat da pobrezia-egoerei aurrea hartzea, haien aplikazio-eremuetan. Gauza bera esan daiteke Gizarte Segurantzako sistema horien barruan dauden pentsio-sistemei buruz ere. Hala, Gizarte Segurantzako sistemek pobrezia-aren aurkako borrokan funtsezko eginkizuna bete arren, pobrezia-egoera hori oraindik ere errealitate bat da pentsiodunen artean.

Idea orokor horri erantsi behar diogu, txosten honetan aztertutako datuen arabera, ukaezina dela EAEko pentsioetan genero-arrakala dagoela ondorioztatzea. Izan ere, alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen pentsio gisa jasotzen dituzten hileko edo urteko batez besteko ordainsarien artean, dela emakumeen kotizaziopeko pentsio bat eskuratzeko zailtasun gehiago dituztelako eta horregatik kotizazio gabeko pentsioen onuradunen artean emakumeen presentzia handiagoa delako, dela emakumeak direlako alarguntza-pentsioen eta/edo ZBDA pentsioen protagonista nagusiak. Horrenbestez, ondoriozta daiteke pentsioetan, oro har, emakumeen jasotzen dituztela zenbatekorik txikiak, eta horrek esan nahi du emakume pentsiodunek gizonen baino arrisku handiagoa dutela pobrezian egoteko, eta beraz, gizarte-laguntzako mekanismoetara jotzeko premia handiagoa dutela.

Illo horretan, eta txosten honen xedea EAEko pentsioetan dagoen genero-arrakalaren egoera aztertzea bada ere (txostenaren hiru apartatuetan garatu dira ondorio partzialak), txostenaren egileok balorazio orokor bat egin nahi izan dugu aztertutako genero-arrakalaren eta emakume pentsiodun batzuek bizi duten pobrezia-arriskuaren artean egon daitekeen loturaz. Horretarako, jarraian datu batzuk emango ditugu, eta, datu horiek oinarritzat hartuta, egiaztatu ahal izango dugu, kotizaziopeko eta kotizazio gabeko pentsioen kasuan — emakumearen presentzia handiagoa edo ia hegemonikoa da horietan—, nabarmena dela emakumeen bizi duten ongizaterik eza, batez ere Eusko Jaurlaritzaren 2018ko Behar Sozialen buruzko Inkestaren PGDI/Pobrezia-moduluan erabilitako atalaseekin alderatuta.

Hala, eta aipatutako txostenari dagokionez, lehenik eta behin adierazi behar dugu, txosten hori pentsiodunen pobrezia-ari buruzkoa ez izan arren, datu batzuk ematen dituela pobrezia-ari eta laneko prekaritateari buruz, betiere sexuaren eta adinaren arabera banatuta. Baldin eta pentsiodunak 65 urtetik gorako pertsonekin identifikatzen baditugu (pentsioak oso adin desberdinetan jaso badaitezke ere eta 65 urte bete arren pentsiorik ez jasotzea gerta badaiteke ere), benetako pobrezia-aren eta benetako ongizaterik ezaren tasak emakumeen kasuan handiagoak dira 2008-2018 aldi osoan, Eusko Jaurlaritzak argitaratutako datuek erakusten dutenez. Hala, benetako pobrezia-aren kasuan, 65 urtetik gorako emakumeen % 3 daude egoera horretan (6.525), eta gizonen kasuan, berriz, % 0,7 (2.799). Benetako ongizaterik ezaren kasuan, % 11,3 emakumeak dira (24.554) eta % 4,2 gizonak (15.700) (31. eta 32. taulak).

Baina, adierazle horietatik haratago, pentsiodun batzuek bizi duten pobrezia-egoera oso nabarmena da. Kotizaziopekoak ez diren pentsioei dagokienez, oso zenbateko txikiak

dira, eta baliabideen gabezia eragiten dute¹⁹. Euskal Autonomia Erkidegoan, 6.554 emakume eta 4.719 gizonak jasotzen dituzte horrelako pentsioak²⁰. Pentsio horren gehieneko zenbatekoa 392 €-koa da hilean, onuradun baten kasuan (5.488 € urtean). Zenbateko horiek mantentze-pobreziaren eta ongizaterik ezaren atalaseen oso azpitik daude, 2018ko PGDI metodoaren arabera²¹.

Gauza bera esan daiteke ZBDA pentsioen onuradunei dagokienez. Oso zenbateko baxuko pentsioak dira, eta bateraezintasunen araubide zorrotz bat betetzen dute. 2019an, pentsioaren zenbatekoa 433,7 €-koa izan zen (6.071,8 € urtean), eta 421 €-koa (5.894 € urtean) aldi bereko prestazioen kasuan. 2018ko PGDI metodoaren arabera, pentsioak mantentze-pobreziaren eta ongizaterik ezaren atalaseak baino askoz txikiagoak dira, eta jasotzaileak pobrezia-egoeretara kondenatuko lituzkete beste baliabiderik ez balute, bizirauteko, gizarte-laguntzako tresnetara jo behar izateaz gainera. Gizarte Segurantzak argitaratutako datuen arabera, 2018ko abenduaren 31n, 26.579 emakume eta 1.607 gizonak jaso zituzten ZBDA pentsioak Euskal Autonomia Erkidegoan. Beraz, pentsio mota hori jasotzen dutenen artean % 94,30 emakumeak dira eta % 5,7 gizonak.

Kotizaziopeko pentsioen gutxieneko zenbatekoei eta horien gutxienekorako osagarriei dagokienez, esan behar dugu horiek elkartasun-elementu garrantzitsua direla Gizarte Segurantzaren sistemaren kontribuzio-adarraren barruan. Mekanismo horrek zera aitortzen du, inplizituki bada ere: aplikatu beharreko araudiaren arabera ematen diren pentsio batzuk ez dira nahikoak, eta beraz, beharrezkoa da horiek osatzea. Hala ere, bermatutako zenbatekoak ere oso txikiak izaten dira askotan, eta mantentze-pobreziaren eta ongizaterik ezaren atalaseetatik behera geratzen dira kasu gehienetan, 2018ko PGDI metodoaren arabera. Gainera, pentsioaren gutxieneko zenbateko horiek ez dira egoera guztietan kontuan hartzen, eta hala bada ere, ez dira beti bermatzen (gutxienekoetarako osagarriak jasotzen diren beste baliabideen mende daudelako eta gutxienekoetarako osagarrien zenbatekoak ere muga batzuk dituztelako²²).

Emakumeen lan-historiak, soldata txikiagoak eta horrek Gizarte Segurantzaren kontribuzio-mailaren barruan pentsioak sortzeko orduan sortzen dituen desabantailak direla-eta, gutxienekoen osagarriak jasotzen dituzten emakumeen presentzia gizonena baino askoz handiagoa da. 2018ko abenduaren 31n, Gizarte Segurantzaren beraren datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan gutxieneko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen % 75,19 emakumeak dira (48.333 emakume) eta % 24,81 gizonak (15.285 gizon).

